

Bizi gaitezen elkarrekin

Bizikidetzarako Hezkuntzako Eskola Proiektua

Zamakola Eskola Publikoa IP (Bilbao)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: 1.a 2009ko apirila

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Internet www.euskadi.net

Argiraratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Maketazioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: .

ISBN: 978-84-457-2914-4

L.G. BI -

AURKIBIDEA

Aurkezpena	9
Joseba Azkarraga Rodero <i>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburua.</i>	
Tontxu Campos Granados <i>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua.</i>	

I

Proiektuaren esparru orokorra

1 TESTUINGURUA	15
2 GARAPENA	17
1. Proiektuaren garapena denboran	17
2. Garapenaren ezaugarriak	20
3 OINARRIAK	23
1. Kultura eta etika oinarria: kultura demokratikoa eta bakearen kultura. . .	24
2. Hezkuntza-oinarria: ikuspegi prebentiboa / eraikitzailea.	25
3. Bizikidetzaren ikasketa eta curriculumeko ikasketa	26
4. Oinarri komunitarioa: komunitatea agente hezitzaile gisa.	27
4 BIZIKIDETZARAKO HEZKUNTZAREN DIMENTSIOAK	29
5 XEDEAK ETA HELBURUAK	31
1. Xedeak	31
2. Helburuak	32

II

Proiektuaren programak

1 INGURUNEA ZAINTZEN DUGU.	37
--	----

1.1	Ingurune fisiko eta natural atsegina eta zaindua	39
	1. Abiapuntua	40
	2. Oinarrizko planteamenduak	40
	3. Programaren deskribapena	41
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	44
	5. Eranskinak	45
1.2	Auzora irekitako ikastetxea	47
	1. Abiapuntua	48
	2. Oinarrizko planteamenduak	48
	3. Programaren deskribapena	49
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	54
	5. Eranskinak	55
2	PERTSONAK ZAITZEN DITUGU	57
2.1	Eskola giro atsegina eta segurua	59
	1. Abiapuntua	60
	2. Oinarrizko planteamenduak	60
	3. Programaren garapena	61
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	65
	5. Eranskinak	66
2.2	Gaitasun pertsonal eta sozialen garapena	67
	1. Abiapuntua	68
	2. Oinarrizko planteamenduak	68
	3. Programaren garapena	69
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	73
	5. Anexos	73
2.3	Pertsona eta kultura aniztasuna	75
	1. Abiapuntua	76
	2. Oinarrizko planteamenduak	76
	3. Programaren garapena	77
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	82
	5. Eranskinak	83

3	HARREMANAK ZAINTZEN DITUGU	85
3.1	Talde kohesioa eta ikasleen integrazioa taldean eta ikastetxean.	87
	1. Abiapuntua	88
	2. Oinarrizko planteamenduak	89
	3. Programaren garapena	90
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	93
	5. Eranskinak	94
3.2	Adostasuna eta arauak betetzea	95
	1. Abiapuntua	96
	2. Oinarrizko planteamenduak	96
	3. Programaren garapena	97
	4. Ebaluazioa eta ondorioak	101
	5. Eranskinak	102
3.3	Gatazken eraldaketa eta bitartekotza	103
	1. Abiapuntua	104
	2. Oinarrizko planteamenduak	106
	3. Programaren garapena	107
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	110
	5. Eranskinak	112
3.4	Eskolako patioa, gune hezitzailea	113
	1. Abiapuntua	114
	2. Oinarrizko planteamenduak	116
	3. Programaren garapena	117
	4. Ebaluazioa. Ondorioak	124
	5. Eranskinak	125

III
Proiektua abiaraztea

1	IRIZPIDE DIDAKTIKOAK	129
	1. Oinarri kognitiboak	129
	2. Balioak eta jarrerak barneratzea	131

3. Taldea, erreferentea eta ikasteko tokia.	132
4. Eskola-testuinguruaren koherentzia.	134
5. Familiaren, eskolaren eta auzoaren arteko lankidetzak.	135

2 ANTOLAMENDU ALDERDIAK 137

1. Proiektuaren zuzendaritza	137
2. Irakasle taldeen koordinazioa	138
3. Irakasleen inplikazioa.	139
4. Eskola- eta gizarte-komunitatearen parte-hartzea eta laguntza	140
5. Baliabideen kudeaketa	140

3 PROGRAMAK GAUZATZEKO PROZESUA 143

1. Hobetzeko arloa zehaztea eta diagnostikoa egitea	143
2. Prestakuntza.	144
3. Berrikuntza	145
4. Ebaluazioa	145
5. Instituzionalizazioa.	146

Aurkezpena

Elkarrekin bizitzen ikastea hezkuntzaren oinarrizko helburuetako bat da, baita ikasle guztiek bizitza duina eta zorionsua izateko gaitasun guztiak garatzen laguntzea ere, eta hori da, hain zuzen ere, norberaren, herritarren eta lanbidearen gaitasunak garatzeko funtsezko ardatzetako bat Euskal Curriculum berrian. Bizikidetza egokia izaten saiatzea ez da soilik eskola-lana egiteko baldintza bat eta, aitzitik, oinarrizko ikasketa da berez, eta hezkuntzak lagundu egin behar du horretan eta etenik gabeko lanaren eta lan sistematikoaren emaitza izan behar du, ez tarteka egindako lana.

Ikastetxeak pertsona desberdinen arteko bizikidetza ikas daitekeen eta praktika daitekeen lekua izan behar du, harremanak izateko lekua, non edozein indarkeria, diskriminazio edo apalkuntza mota alde batera utziko den.

Ikastetxeek dute aldatzeko eta hobetzeko prozesuak gauzatzeko ardura, testuinguru jakin batean ikasle jakin batzuen baldintzen eta premien arabera, hezkuntza-komunitate guztia-ekin batera eta batez ere, irakasleen inplikazioarekin.

BIZI GAITEZEN ELKARREKIN Abusu auzoan dagoen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Zamakolako ikastetxean gauzatzen ari diren bizikidetzarako hezkuntza-proiektua da. Eskolatik errespetua, ongizatea, parte hartzea eta gure gizartean diskriminaziorik ez izatea sustatzen lagundu nahi du. Helburu horiek lortzeko, familiak eta auzotarrak kontuan izan ditu orain arte eta ditu gaur egun ere Zamakolako LHik, hezkuntza-eragile diren heinean, eta era berean, eskola bera beti eragile aktibo sentitu izan da auzoa hobetzeari begira.

Eskolaren demokratizazioaren eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko lan sistematikoaren lehenengo urratsetan gaude eta bizikidetza planifikatzeko eta hobetzeko eta gizarte- eta herritartasun-gaitasuna garatzeko beste ahalegin batzuekin batera, denborak aurrera egin ahala, udalerrriak benetako hiri hezitzaile bihurtzea eragingo dute eta bertan

gizalegezko portaerak landu eta aniztasuna sustatuko da, justizian eta giza eskubide guztien errespetuan eta elkar zaintzean oinarritutako gizarte-eredua.

Benetako Bake Kultura garatu behar da, eta horretarako, edozein gizarte demokratikotan ezinbestekoa da balio berriak sustatzen saiatuko den hezkuntza-mugimendu handia osatzea. Esparru orokor horretan, Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Euskal Hezkuntza Plana (2007-2011) eta Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza Programa (2008-2011) azpimarratuko genituzke EAEn proposatutako politika, estrategia eta ekintzen erreferente gisa.

Zamakolako LHIren proiektuan pertsona askok parte hartu dute eta horiei guztiei euren konpromisoa eta egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiegu. Lan horren esperimentazioak eta ebaluazioak emaitza gisa eskaintzen dizkizuegun material horiek eman dituzte, errealitatera eta ingurune hurbileko premietara egokituta, hezkuntza-komunitate desberdinei jakintza eta portaera eraikitzaile eta osasuntsuak garatzeko proiektuan murgiltzeko aukera emateko.

Argi dugu Euskadin hezkuntzak hobetzeko aukerak ematen jarraitzen duela eta etorkizunean jardun eraginkorretan islatuko dira, eta horretarako baliabide gehigarriak erabili behar dira. Ikastetxeek, Bizikidetzeta Plana landuz, eskolako giroa hobetzen lagunduko dute eta Zamakolako LHIren proiektu hori horren froga argia da, egiten ari denaren inguruko adibidea da eta, beraz, egin daitekeenaren inguruko adibidea.

Honako hau da Ikastetxean parte hartzen duten hezkuntza-komunitateko kide guztien asmoa: ikasleek bake-kulturan, desberdina denaren inguruko berdintasun- eta errespetu-kulturan, ahula lagundu eta harekiko elkartasunaren kultura oinarritutako portaera izatea eta horrela, gatazkei elkarrizketaren eta adostasunaren bidez aurre egitea, askatasunean garatzeko kultura demokratiko eta herritar kultura izatea, eskubide eta betebeharrak modu arduratsuan betez eta euren gizarte-taldeetan zuzenean eta modu kritikoa parte hartuz, printzipio etikoen arabera eta garapen morala sustatuz.

Aurkeztu dugun esperientzian argi geratu denez, zeregin ugari eta garrantzitsu hori ezin du eskolak bakarrik bete eta, aitzitik, familiarekin eta gizarteko gainerako lagunekin bete behar du. Bizikidetzarako hezkuntzak gizarte-laguntza eta parte-hartze modu berriak

abian jartzea eskatzen du, bizikidetzaz ez baita soilik nahitaezko ondorioa ikasketa harmonikorako eta, aitzitik, euskal hezkuntza-sistemaren helburuetako bat da eta agian, gure gazteek hezkuntza-prozesuan lortu behar dituzten oinarriko ikasketa eta ikasketa erabilgarrietako bat.

Joseba Azkarraga Rodero

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua
Eusko Jaurlaritzaren

Tontxu Campos Granados

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren sailburua
Eusko Jaurlaritzaren



I.
PROIEKTUAREN
ESPARRU OROKORRA

1 TESTUINGURUA

Aurkezten dugun proiektu hau Zamakola Eskola Publikoan gauzatzen ari da; Bilboko periferiako Abusu auzoan kokatua dago eskola. Geografikoki hiritik berezia, Abusu auzoak argi definitutako hirigunea osatzen du, eta horrek aukera ematen dio bere biztanleak eta zerbitzuak zonaldeko propio gisa identifikatzeko, baina Bilbok eskaintzen dituen abantailak eta zerbitzuak baliatzeko zailtasunak eragiten dizkio horrek.

Eskola 1973ko irailean jarri zen martxan. Txosten hau 2006-07 ikasturtean egin zen, eta urte horretan 2tik 12 urtera bitarteko 570 ikasle bildu zituen, Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak, maila bakoitzean hiru taldetan banatuak.

Ikasle gehienak maila ertain baxuko gizarte- eta kultura-ingurukoak dira: ikasleen % 65,7 baxuak dira. Oro har, aitek industrian eta zerbitzu-enpreetan lan egiten dute, eta ama kopuru handi batek etxetik kanpo lan egiten du, enpreetan edo etxe-zerbitzuetan. Ikasle guztietatik, gutxi gorabehera 450 ikaslek jangela-zerbitzua erabiltzen dute.

Ikasleen jatorria askotarikoa da. Gehienak 60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiako beste erkidego batzuetatik Bizkaira etorritako familietakoak dira, eta gaur egun, familia horiek guztiz errotuak daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikasleen % 7 inguru ijito-etniakoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan urte askotan egondakoak. Ikasleen % 10 gutxi gorabehera duela gutxi eskolatutako atzerriko familia etorkinetakoak dira.

Ia ikasle guztien familia-hizkuntza gaztelera da. Hala ere, eskolan irakas-hizkuntza nagusia euskara da: Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ikastea —euskara eta gaztelera— integratuz, berdintasunerako eta euskal gizartearekin kohesioa lortzeko funtsezko tresna da, eta hizkuntza-arloko murgiltze-prozesu bati jarraitzen diogu, bide eraginkorrena eta gutxien diskriminatzen duena dela uste dugulako. Orain arte, ezarritako jarraibideei jarraituta, maila bakoitzeko bi taldek D eremuan (euskaraz) ikasi dute, eta batetik B eremuan (elebiduna). Hala ere, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. mailan, premien arabera ikasle bakoitzari arreta berezia eman ahal izateko prozesu malguagoak

dituen eredu bakar baten aldeko apustua egin dugu, betiere ikasle guztientzako hizkuntza-helburu bateratuekin.

Irakasle-taldean 49 irakasle eta jangelaz eta bazkalorduren aurreko eta ondorengo aisialdiaz arduratzen diren 21 begirale daude.

Zuzendaritza Taldea	Tutoreak	Arloko espezialistak	PTE	Aholkularitza	Hizkuntza errefortzua	Beste batzuk
3	30	7	4	1	1	3

Gure eskola urte askotan zonaldeko kultur hezkuntza-ikastetxe bakarra izan da. Sortu eta garatu zen garaia aintzat hartuta, auzoak urte asko eman ditu kultura-zerbitzu publikorik gabe, hala nola auzo-etxeak, liburutegi publikoa, kirol-ikastetxeak eta pareko beste ikastetxeak, eta baita hurbileko gizarte-zerbitzurik gabe ere, hain zuzen ere Abusu auzoa barnean hartzen duen udal-barrutiak Hirigune Historikoa ere biltzen du, eta udal-zerbitzuak bertan kokatuta daude. Soilik azken urte hauetan ezarri dira beste zerbitzu publiko batzuk: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua, kiroldegi bat eta auzo-etxe bat (Arrigorriaga herrian, auzotik gertu; ikasle asko herri horretakoak dira).

Egoera horren ondorioz, alde batetik, kultura, hezkuntza, gizarte, elkarte eta kirol arloko beste jarduerak batzuen zerbitzura jarri behar izan genuen ikastetxea, bai haurrentzako, bai gazte eta helduentzako. Eta beste aldetik, ona izan da eskola-lanerako, auzoko eskolaren eta familien artean harreman estuak, zabalak eta askotarikoak sortu direlako. Urteak igaro ondoren, auzoko «indar bizi» guztiak gure eskolatik pasatu direla edo gure eskolarekin harreman estua izan dutela ikus dezakegu, lankidetzeta eta elkarrekiko laguntza errazagoa eta arinagoa eginez. Azken batean, auzoan sentipen bateratu bat detektatu dugu, eskola denona dela eta gehienek beren eskola dela sentitzen dutela.

2 GARAPENA

Aurkezten dugun proiektua prozesu luze baten emaitza da; prozesu horretan une jakin batzuk azpimarratzekoak dira, prozesuaren etapa bereziak markatu baitituzte, eta, era berean, etapa horietan etengabe agertu diren ezaugarriak azpimarratu behar dira.

1. Proiektuaren garapena denboran

a) Hasierako etapa

1973-74 ikasturtean sortu zenetik, gure ikastetxea gure ikasleei kalitatezko hezkuntza ematen saiatu da, eta lan handia egin du ikasleek eskolan ikas dezaten, beren jatorrizko baldintzen ondorioz sor daitezkeen desberdintasunak gaindituta. Hezkuntza-arloko berrikuntzak gauzatu ditugu sistematikoki, eta horietako batzuk aitzindariak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Gure ikasleak oso gaztetan gizarte-arloko gaitasunetan eta ikasteko ohituran hezten saiatzen gara, baina curriculum-ikasketa hobetzera bideratutako ikuspegi instrumentalagoa erabiltzen dugu, berezko hezkuntza-helburu gisa bizikidetzaren ikasketara bideratuta.

b) Eskolako giroaren diagnosis

1991-92 ikasturtean, eskola-giroaz kezkatuak, ingurune orokorrean eta ikasketan duen inplikazioagatik, inkesta baten bitartez irakasleen ikuspegia eta iritziak sakonki ezagutzeko helburua hartu genuen. Gogo-aldarte eta kezka lauso batzuk objektibatzen saiatu gara, ikuspegi partekatu batean eta datu errealetan oinarrituta jardun ahal izateko. Erantzunek eman zituzten datuak baliatuta hasi genuen pertsonen arteko harremanen eta bizitzako gaitasunen hobekuntzarako hezkuntza-lana. Jardun honen bitartez, arazoei aurre egiteko eta hezkuntza-berrikuntzako proiektuak egiteko modu bat hasi genuen, erantzun nahi ditugun premiei buruzko jakintza albait osatuena oinarritzat hartuta.

Horren ondoren, gure hezkuntza-lanari bultzada berri bat eman nahi izan diogun al-dietan, diagnosi berriak egin ditugu. 1999-2000 ikasturtean diagnosi osatuago bat egin genuen eskola-bizikidetzari buruz eta, zehazki, ikasleen pertsonarteko gatazka-egoera ohikoena ezagutu nahi izan genituen. Irakasleen iritzi eta balioespena kontuan har-tzeaz gain, ikasleena eta familiena ere kontuan hartu genuen, diagnosis osatuagoa izan zedin, betiere hezkuntza-komunitateko taldeen ikuspegi eta iritzia aintzat hartuta. Neu-rrri handi batean, emaitza espero zena izan zen, baina irakasleen iritziak bateratuak zi-rela bermatzen zigun, eta aldi berean hobekuntza behar zuten puntuak objektibotasun handiagoarekin neurtzeko aukera ematen ziguten. Diagnosi horretan oinarrituta, es-kola-patioaren jarduerak antolatzeko modu berri bat pentsatu genuen. Denok pentsatu genuen portaera negatiboak eta bortitzenak eta konpondu gabeko gatazkak gehien gertatzen diren eskolako tokia zela, eta aprobetxatu behar genituen hezkuntza-aukera asko dituen espazio bat zela adostu genuen. Horren ildotik, patioa hezkuntza-eremua izatea erabaki genuen, eta, pixka bat geroago, gatazken konponbide baketsu eta positi-boa bideratzea erabaki genuen.

Hortik aurrera, garrantzi handia eman diogu egiten ditugun urratsen eta emaitzen bi-lakaerari, eta horrek aukera ematen digu aurrerapenak ikusteko eta hobetu behar duguna atzemateko. Eta, era berean, ikusi dugu diagnosi- eta ebaluazio-prozesu horietan funtsez-koa dela eskolako komunitate osoaren ikuspegia eta balioespena kontuan hartzea.

c) Irakasleen prestakuntza-plana

1993-94 ikasturtean, LOGSEren ezarpenaren ondorioz, Hezkuntza Sailak irakasleen Prestakuntza Plan Trinkoa (PPT) abiarazi du Haur Ikastetxeetan eta Lehen Hezkun-tzako Ikastetxeetan, ikastetxearen Curriculum Proiektua lantzeko prozesuan. Plan horren berrikuntza zera zen, ikastetxeei aukera ematen zitzaiela irakasleei prestakuntzako arra-tsalde bat emateko, ikasleen presentziarik gabe, eta prestakuntza-koordinazioaren figura sortu zen, bete beharreko eginkizun eta baldintza batzuekin; era berean, ikastetxe bakoi-tzak finka zitzakeen kanpo-aholkularitza eta jarraibide ireki batzuk eskaintzen ziren, beharrezkotzat hartzen zuen prestakuntza gauzatzeko.

Gure ikastetxeak —EAEko ikastetxe gehienek moduan— parte hartzea erabaki zuen. Beti saiatu ginen gure lanean hausnarketa kolektiborako une bat sartzen eta prestakun-tza-proiektuak gauzatu genituen ikastetxean, 1979. urtean Hezkuntza Sailak presta-kuntza-modalitate hau ezarri zuenetik. Hala ere, PPTaren baldintzak erabakigarriak izan ziren irakasleen prestakuntza-prozesuak hobetzeko eta izaera-gutuna emateko, gure jar-

dunbideak sakonki aztertzeko, eta, batez ere, denen artean bide berriak bilatzeko, ohiko jardunbideen orde. Une horretatik aurrera, irakasleen eta eskola-komunitateko hezkuntza-agente guztien prestakuntza gako-elementu bat izan da gure proiektuaren garapen eta praktikarako.

Ikastetxeko prestakuntza-prozesuek aukera ematen dute irakasle-taldearen kezkak bateratzeko, talde gisa kezkutzen gaituzten arazoan hausnarketan eta ikerketan aurrera egiteko, gure hezkuntza-jardunbidea hobetzeko proposamenak ezagutzeko, eta erronka berriak hartzeko. Azken batean, honako hauei buruzko kultura bateratu bat sortzeko: heztearen zerizanari eta helburuei buruz, eskolaren paperari buruz, eta irakaskuntza eta eskola-bizitza inspiratu behar duten printzipioei buruz.

Ikastetxeko irakasle guztien prestakuntzaren ezinbesteko garrantziak ez du baliogabetzen forma indibidualaren balioa, maiz prozesu kolektibo baten abiapuntu bihurtzen dena. Gatazkak eraldatzeko eta bitartekotzeko Programa kolektiboki gure gain hartu arte jarraitu genuen prozesua adibide garrantzitsua izan zen guretzat. Zuzendaritza-taldeak gatazken konponketari buruzko ikastaro batean parte hartu zuenean hasi zen prozesu guztia. Gatazkak elkarriketaren bitartez eta modu eraikitzailean konpontzearen aukera hezitzaileak ikusi zituzten, eta gure ikastetxean halakoak egiteko genituen aukerei eta abantaileri buruz hausnartzea proposatu zieten beren lankideei. Hasieran zalantza batzuk izan ondoren, irakasleek proposamen hori kontuan hartu zuten eta, klaustroaren jarrera egozia lortu ondoren, prestakuntza-proiektu baten beharra agertu zen, gure ikastetxearen eta gure ikasleen ezaugarrietara egokitzen den gatazken konponketarako modu bat ezartzeko ezinbesteko oinarriak ematen dituen.

d) Hezkuntza-diskurtso partekatua

2003-04 ikasturtean, Bakearen eta Giza Eskubideen arloko Hezkuntzarako Europako sarearen (EURED) koordinatzaileak gonbidatu egin zigun Klagenfurtoko Unibertsitateak eta UNESCOk babestutako unibertsitate-ikastaroan parte hartzera; ikastaro horretan Europako 17 herrialdeetako hainbat hezkuntza-erakundek parte hartzen dute, ikerketaren eta ekintzaren ikuspegiari oinarrituta Bakearen arloko Hezkuntzaren dimentsioak landuta eta partekatuta.

Ikastaro horretan, gure eskolan egiten genuena azaldu behar genuen. Egiten genuena azaltzeko eta arrazoitzeko beharrak gure ekimenen oinarrian zegoen hezkuntza-hitzaldian sakontzera behartu gintuen, eta ekimen horietan guztietan lokarri bat bazela argi ikuste-

ko aukera eman zigun. Azken batean, argi ikusi genuen pixkana, baina zalantzarik gabe, bizikidetzarako Hezkuntza Proiektu bat garatu genuela, eta ez isolaturiko eta beren artean lotutako alderdi garrantzitsuen hobekuntza soilak.

Argi dagoen arren, horrek lagundu egin zigun, hezkuntza-komunitate gisa, lan guztia-ri koherentzia emango dion diskurtso edo arrazoibide bat lantzeko beharra ulertzeko, eta guk modu partekatuan eraiki genuela ikusi genuen. Gure Proiektuan edo edozein proiektutan egindako edozein aurrerapenek diskurtso partekatu baten emaitza izan behar du, betiere kontuan hartuta diskurtsoak dinamikoak eta ekarpena berrietara eta aldaketetara irekia izan behar duela.

2004-05 ikasturtean, gure eskolako jardunbidean saiatu eta gure gain hartu ditugun proiektu partzial askok diskurtso propio bati erantzun diotela aintzat hartuta, eta diskurtsoak garapen konplexua duela, baina irizpideekiko koherentea dela kontuan hartuta, BIZI GAITEZEN ELKARREKIN proiektua definitu genuen, oinarriko hezkuntza-helburu bat zuen proiektu global gisa: elkarrekin bizitzen ikasteko helburua.

Txosten hau idazteak gure proiektuaren oinarrian dagoen diskurtsoa perfilatzen lagundu digu. Egiten duguna jakinarazteaz gain, egiten dugunaren arrazoia ere jakinarazteko eskaera ezarri dugu, ahal izan dugun argitasun eta zehaztasun handienarekin.

2. Garapenaren ezaugarriak

a) Proiektu propio bat

Gure proiektuaren lehen ezaugarria da ikastetxean bertan garatu dugula eta une bakoitzeko premien eta heldutasun kolektiboaren arabera hazi dela. Aski ongi dakigu berezia dela, ez baitiogu eredu jakin bati jarraitu, aldiz, hausnarketa kolektiboaren eta etengabe-ko berrikuntzaren bitartez egin dugu, betiere honako hauek kontuan hartuta: gure ikastetxearen ezaugarriak, ikastetxea kokatua dagoen ingurua, ikastetxeko irakasle-taldea, jarraitutako ibilbidea, artatu behar dituen premiak, eta abar. Horrek esan nahi du proiektu itxia dela, pixkanaka ezagutu ditugun beste ikastetxe batzuen ekarpen teorikoen eta esperientzien emaitza baita. Ulertzen eta gure ekarpenak egiten saiatu gara, gure hausnarketak aberastuta eta gure ikastetxearen errealitatean aplikatu genezakeen aukera-sorta irekita.

b) Ikastetxeko proiektu bat

Bigarren ezaugarri bati dagokionez, gure proiektua hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatzen dute, ikasle eta irakasle guztiak hartzen ditu eraginpean, eta eskola-jardunbideko eremu guztiak hartzen ditu barnean, hau da, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eta antolamendu-prozesuak, ikastetxearen funtzionamendua, eta baliabideen kudeaketa. Hezkuntza-komunitatean geroz eta orokorragoa eta sakonagoa da ikastetxeari buruzko honako sinismen hau: ikastetxea eskolako hezkuntza-prozesu osoari koherentzia ematen dion unitatea da, irakasle bakoitzak modu indibidualean egiten duen lana indartzen da, eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-premiak hobeto arta daitezke. Ezaugarri horrek ondorio praktiko asko ditu Proiektuaren programazioan, prestakuntzan eta abiaraztean; baina, are gehiago, erreferente komun bat da, hots, denei segurtasuna ematen dien eta bakoitzaren lana sendotzen duen kultura partekatu bat.

c) Denen proiektu bat, eskola-kultura komun batean oinarrituta

Prozesu honen hirugarren ezaugarria da eskola-komunitateko kide guztien artean garatu dela. Gure esperientzia eta hausnarketa aintzat hartuta, eskola barne-hartzaile batek eraginkortasun eta berdintasun handiagoa duela sinisten dugu, non proiektuak pentsatu egiten diren eta ikasle guztiei bideratzen zaizkien, ikasle guztien eta bakoitzaren premiak eta aukerak kontuan hartuta, eta ikastetxearen dinamika globalean guztiz integratuta. Pertsonak proiektu bati lotu ahal izateko ezinbestekoa da subjektu aktibo gisa sentitzea, bai diseinuan bai betearazpenean, eta hezkuntza-lanaren ikuspegia partekatzen duenean eta prozesuan benetan parte hartzen duenean bakarrik gerta daiteke hori. Garatzen ditugun programa guztiek printzipio honi jarraitzen diote. Aski ongi dakigu gure proiektuan ezinbestekoak direla honako hauek:

- Irakasleen eta begiraleen *taldelana*, eta jardueren programazio eta betearazpenaren koordinazioa.
- *Ikasleen parte-hartzea* erantzukizun errealekin, betiere egokiak beren adinarentzat.
- *Familiekiko harremana*, eskolak egiten duena jakin eta ulertu behar dute eta ikastetxean zein etxean izan behar duten erantzukizun-kuota hartu behar dute beren gain.
- Ikasleek beren bizitza garatzeko eta beren harremanak egiteko baliatzen duten tes-tuingurua osatzen duen *komunitatearen inplikazioa*.

3

GINARRIAK

UNESCOren 2000ko¹ Txostenaren arabera, XXI. mendeko hezkuntza honako lau zutabe hauean oinarritu behar da: «izaten, elkarbizitzen, ikasten eta egiten ikasi». Bakoitzak bere ibilbide propioa dauka, nahiz eta lauen artean harreman sakonak dauden, eta denak ezinbestekoak diren ondorengo belaunaldiek jakintzaren gizaratean eta mundu globalizatu batean bizitzeko eta garatzeko beharrezko hezkuntza jaso ahal izateko.

BIZI GAITEZEN ELKARREKIN proiektuan gure ikasleei «elkarbizitzen ikasten» lagundu nahi diegu eta, nolabait, «izaten ikasten», betiere gainerako ikasketak alde batera utzi gabe. Bi alderdi hauek indartzeko asmoa hartu genuen, non familiako aldaketek eta gizarterakundearen aldaketek eskola paper aktiboagoa izatera behartzen duten, ordura arte lan sistematizatu batekin egin ez zuena, hain zuzen ere.

Hezkuntza-komunitateak bere erantzukizuna bere gain hartu du, *oinarrizko ikasketa* dela aintzat hartuta, eta ez eskola-curriculumaren ikasketa errazteko baldintza bat soilik. De- non zeregina den arren, eskola ikasketa honetan laguntzeko baldintzak biltzen dituen testuinguru bat dela ulertzen dugu. Ikastetxean ikasleek ordu asko ematen dituzte, familiarekin loturarik ez duten harreman berriak egiten dituzte, eta beste pertsonetikiko bizikidetzan izandako esperientzia pertsonalak aztertze-ko eredu eta testuinguru egokiak eskaintzen dituzte, eta baita familian eta auzoan dugun portaera aztertze-ko ere; hausnarketa horiek guztiak nazioarteko testuinguruan ere aplikatu daitezke.

Denok honako hau onartu dugu: «bizikidetzarako eta bakerako hezkuntza nazioarteko ekintza sistematiko eta etengabeak eskatzen dituen prozesu bat da, pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko beste modu batzuk eragiten dituzten esparruen bitartez garapen pertsonal eta kolektiboa bilatzen duten ekintzak hain zuzen. Prozesu horrek honako hau dakar: ikuspegi sortzaile eta ez-bortitz batean oinarrituta gatazkei aurre egiteko gaita-

¹ DELORS, J. Eta beste batzuk (2000): *Hezkuntza altxorra da. XXI. mendeko hezkuntzari buruzko Txostena*. UNESCO

sun, eta berdintasun, justizia, errespetu, askatasun eta elkartasun balioak kontzienteki bizitzeko gaitasuna»².

1. Kultura eta etika oinarria: kultura demokratikoa eta bakearen kultura

Gure portaerek besteekin harremanak egiteko eta besteak ikusteko, eta gatazkak konponitzeko eta gure ongizatea hobetzeko moduei buruzko sinismen jakin batzuei erantzuten diete. Horixe da gure portaera justifikatzeko eta gure garapen pertsonala eta erronka eta arazo kolektiboen gaineko jarrera orientatzeko erabiltzen dugun kultura-oinarria.

Era horretan ulertutako kulturaren osagaiak dira garapen pertsonal eta kolektiboko (alderdi arrazionala) ereduak egiteko erabiltzen ditugun pertsonari eta gizarteari buruzko ideien multzoa —«sinismen» erako ezaugarriekin, aztertu zein kritikatu gabe egiazkotzat hartzen direnean—, eta giza portaerak epaitzeko erabiltzen diren balio-eskala eta gizarte-arauak (alderdi etikoa). Ideia eta balio horiek kultura bihurtzen dira erlijioaren, jatorrizko lekuaren, gizarte-taldearen, lanbidearen edo bestelako alderdi baten bitartez lotutako pertsona talde batek partekatzen dituenean (alderdi soziala), eta talde horretako kideek adierazpen-modu arrunten bitartez beren kidesuna adierazten dutenean (alderdi sinbolikoa). Ideia, eredu eta balio horiekiko koherentziari eutsiz, emaitza zera da, egitura eta modu jakin batzuk ondorioztatzen dituzte (alderdi praktikoa).

Gure proiektuaren asmoa da eskolako bizitzan pertsona guztien duintasuna aitortzen duen *kultura demokratikoa* deskubritu eta bizitzea, honako hauek errespetatuta: pertsonen eskubide ukaezinak, eskubide-berdintasuna, askatasun indibiduala pentsatzeko, adierazteko eta bizitzeko moduan, eta kolektibitatearen eraikuntzan eta garapenean parte hartzea. Gure asmoa da pertsona guztiek eskubideak baliatzerakoan arduratsuak izatea, besteen eskubideak errespetatzeko betebeharra onartzea eta beren askatasun pertsonala bizikidetzan on baterako beharrezkoak diren gizarte-hitzarmenak errespetatuta egikaritzea. Era berean, honako hauek ezabatzen saiatzen gara: besteekiko edozein errespetu-falta, diskriminazio, bazterkeria edo kanporaketa, edo erabilera, abusua edo zapalkuntza.

² HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARITZA, GIZARTE ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA ETA GAZTERIA ZUZENDARITZA, ELKARRI, GERNIKA GOGORATUZ, BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA, ETA UNESCO ETXEA (2002): *Bizikidetzan eta bakean oinarritutako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan*. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.

Bakearen kultura praktikatu nahi dugu pertsonen eta taldeen arteko harremanetan, elkarrekikotasuna, lankidetzeta eta elkartasuna oinarritzat hartuta, eta elkarriketa eta adostasuna erabilia gatazkak konpontzeko bide onena gisa. Eta naturarekiko harremanak egiteko dugun modura zabaltzen dugu, ingurumena zainduta eta baliabideak modu arduratsuan erabilia, oreka eta iraunkortasuna bermatuz. Kultura-esparru horren barruan kokatzen da *indarkeriarik eza*, bizikidetzeta hobearen aldeko eta bizikidetzeta zailtzen duten kultura-oztopo eta gizarte-egiturak ezabatzearen aldeko jarrera aktibotzat hartuta, betiere baliabide baketsuak erabilia.

Kultura-oinarri horiek sozialki onartuak dauden arren, ez dira barne hartu eta ez dituzte inolaz ere arrazoitzen gehien orokortutako eta gizartean ongien balioetsitako jardunak. Hezkuntza-prozesuaren helburua honako hau da: alde batetik, oraindik eusten ditugun arrakasta pertsonal eta sozialari buruzko «sinismen» eta jardun asko kritikaren mende jarzea, eta, beste aldetik, ikasleek eta hezkuntza-komunitate guztiak bakearen aldeko kultura demokratikoa bizitzea, gizakiaren ikuspegi positibo batekin eta proposatzen diren balioekin koherentzia deskubri dezaten, horiek ekartzen duten ongizate pertsonal eta kolektiboa senti dezaten, eta bizitza errealean duen bideragarritasun eta efektibotasuna aitortu dezaten.

2. Hezkuntza-oinarria: ikuspegi prebentiboa / eraikitzailea

Prebentiboa da, hasteko, bizikidetzarentzat negatiboak diren portaerak ahalbidetzen dituzten egoeren aurrean arriskuez ohartarazten duen ikasleen hausnarketa bilatzen dugulako, eta ahal den neurrian portaera horiek saihesten dituzten eta, ahal izanez gero, ikasteko aukera ematen duten neurriak ezartzen ditugulako. Ikasleek, beren adinagatik, oraindik ez dituzte egoera horiei behar bezala aurre egiteko beharrezkoak diren jakintzak eta gaitasunak. Horregatik, eskola-eremuan, esperientzia negatiboak saihesteko eta ikasketak indartzen dituzten esperientzia positiboak ahalbidetzeko baliabideak jarri behar dira, zuzendu beharreko portaerak gertatzea utzi ordez. Hala eta guztiz ere, portaera horiek gertatzen badira, gure ustez ikasteko balio duten akatsak direla ulertu behar da, eta ez zigortu beharreko ekintzak.

Era berean, prebentiboa da lan egiten dugulako ikasleek eta hezkuntza-komunitateko kide guztiek, orain eta etorkizunean, harreman positiboak ezartzeko eta lankidetzan eta elkartasunean oinarrituta jarduteko behar ditugun ahalmenak eskura ditzagun. Horretarako, honako hauek lortzeko asmoa dugu: gure bulkadak kontrolatzen eta gure emozioak

erregulatzen ikastea; portaerak aztertzen jakitea —norberaren portaerak eta besteenak, indibidualak edo kolektiboak—, eta baita horien alderdi positiboak eta negatiboak, eta kausak eta ondorioak jakitea ere; modu arrazionalagoan eta koherenteagoan jarduteko aukerak ikustea; etikarekin bat etortzen diren erabakiak hartzea.

Eraikitzailea da, gizarte-ahalmenen ikasketa hori ez delako simulatutako egoeretara mugatzen, aldiz, eskola-bizikidetzaren eraikuntzan gauzatzen dira. Ikasleek, eskola-komunitateko gainerako kideekin batera, eskola bizikidetzarako gunea bihurtzeko aukera dute, pertsonen arteko eta taldeen arteko harremanak ezartzen dituztenean eta eskolako zereginak garatzen dituztenean. Norbere burua eta gainerako kideak ezagutzeko aukera dute; izan ere, eskola-eremuan esku hartzen duten pertsona guztiek jokoan jartzen dituzte beren gaitasunak, abileziak, estrategiak eta jarrera errealak, eta baita bakoitza modu jakin batean jardutera benetan bultzatzen duten balioak ere, betiere kontuan hartuta abantaila gisa zera duela, gune hezitzaile bat izateagatik portaera negatiboak aztertu eta berriz orientatu daitezkeela eta, bestelako akatsen moduan, ikasteko aukera eman dezaketela.

3. Bizikidetzaren ikasketa eta curriculumeko ikasketa

Gure proiektuan, bizikidetzaren ikasketa eta eskola-curriculumaren ikasketa ezin dira bereizi hezkuntza-lanean. Bi ikasketa horien elkarketak hezkuntza-arloko zentzua ematen dio eskola-ekintzari eta aukera ematen du loturak egiteko pentsamenduaren eta sentimenduen artean, jakintzaren eta moralitatearen artean, eta akademikoaren eta pertsonalaren artean, betiere hezkuntza-ekintzaren ikuspegi integral batean oinarrituta.

Bizikidetzarako ikasketa funtsezko ekarpena da curriculumeko ikasketarentzat. Eskolan giro emozionalki eroso izateak segurtasuna ematen du, eta ongizate pertsonala eta taldekoa eskaintzen du, eta horrek curriculumeko ikasketaren ahalegina egiteko laguntza handia ematen die ikasleei, eta, era berean, ahalegin horrek beren ikasketa hobetzen duela sentitzeak modu positiboan laguntzen du eskola-testuinguruan txertatzeko garaian.

Kontsiderazio hori, garrantzitsua izateaz gain, curriculumeko ikasketa-prozesutik kanpokoa da, eta, eskolan, beste ikasketa-eremu batzuen kasuan ez bezala, curriculumeko ikasketa taldeka egiten da, baina horrek ez du esan nahi prozesu indibiduala izan ezin denik, aldiz horrek zentzu berri bat ematen dio, eta, gainera, prozesuaren arrakasta ahalegin pertsonalaren eta besteek ematen dizkieten ezagutza baliotsuak ikusteko gaitasunaren mende dago.

Eskolako ikasketan funtsezkoak dira taldearen barruko berdinen arteko harremanak, eta neskek eta mutilek handitze pertsonaleko etapak gainditzen dituzten heinean aldatzen dira harreman horiek: elkarrekin lan egiten dutenen arteko imitazio sinplean hasita, beren indibidualitatea berresten saiatzen diren une batean emulaziotik pasatuta, eta proiektu komun batean elkarriketako, lankidetzako eta trukeko harremanak ezartzeko gai izatera iristen diren arte. Prozesu horiek hobetzen diren neurrian, eta ikasgelako metodologian balioa ematen diegun eta aprobetxatzen ditugun neurrian, eskolako curriculumaren ikasketak hobetzea espero dezakegu.

Aldi berean, *curriculumeko ikasketek bizikidetzaren ikasketarako ezinbesteko elementuak ematen dituzte*. Ikasgelan edozein motatako hizkuntza-ahalmenak eta adierazpen-ahalmenak zabaltzen ditugunean, ikasleek tresna hobeak dituzte beren ideiak, sentimenduak, ikuspuntuak edo iritziak adierazteko, edota besteei entzuteko, komunikatzeko, hitz egiteko eta elkarrekin lan egiteko; horiek guztiak bizikidetzarako oinarritzko ahalmenak dira. Ikasleek naturaren barruan edo une historiko jakin bateko pertsonen artean harremanak aztertzen ikasten dutenean, bizitza errealeko egoera bat aztertzeko erabilgarriak izan daitezkeen jakintzak eta estrategiak eskuratzen dituzte. Curriculumeko ikasketak, neurri handi batean, arrazoitzeko ahalmena garatzea ahalbidetzen du, eta hori eskolaren oinarritzko ekarpena da elkarbizitzen ikasteko, eta eremu afektiboan eta balioen eremuan familiaren ekarpena osatzen du. Eta, horretaz gain, denek zeregin komun batean parte hartzeko eta ikasten duen taldeko kide sentitzeko aukera ematen du.

Curriculumeko ikasketan zailtasunak topatzen dituztenentzako laguntza interesgarria da, ez bakarrik ikasle guztiak eskolan arrakasta lortzeari buruzko eskaeragatik, baizik eta taldearen barruan eta curriculumeko ikasketari zentzua ematen dion zereginen onartuak eta integratuak sentitzeko garrantzitsua delako. Formalki proiektuaren jarduera espezifikoen artean barne hartu ez ditugun arren, ikasketarako laguntza-jarduerak proiektuaren funtsezko euskarriak dira.

4. Oinarri komunitarioa: komunitatea agente hezitzaile gisa

Eskola-komunitatean kide guztiak gara agente hezitzaileak, eta ez soilik ikasleak eta begiraleak, baizik eta baita ikastetxean lan egiten duten pertsona heldu guztiak eta familiak ere. Ikasleak ere agenteak dira; izan ere, beren harremanetan, batzuek besteen-

gandik ikasten dute, eta kasu batzuetan horien irakaskuntzak helduek egindakoak baino esanguratsuagoak dira.

Era berean, *eskola-inguruneko komunitate* osoak sekulako eragina dauka haurren portaeran eta, inkontzienteki bada ere, hezitzaile-lana egiten dute. Pertsona helduak ereduak dira besteekin harremanak egiteko eta ongizate kolektiboan laguntzeko moduari dagokionez. Izan ere, pertsona helduen artean herri-jakintza bat dago, eskola-curriculumean aurki daitekeen jakintza osatzen duena eta, kasu batzuetan, gainditzen duena. Gure proiektuan asmoa zera da, auzoko pertsona guztiek agente hezitzaile gisa duten papera jakin eta modu arduratsuan beren gain hartzea. Eta, era berean, beren esperientzia pertsonal eta kolektibotik onena gure ikasleei emateko aukera eskaintzea. Belaunaldien eta kulturen arteko elkarizketa bilatzen dugu, elkarrekiko ulermenerako iturri gisa, gazteenei beren sustraiak eta nortasuna ezagutzeko laguntza emanez eta,aldi berean, helduenek beren esperientziaren gizarte-balioa sentituz.

José Antonio Marinak³ idatzi duenez: «gurasoek bakarrik ezin dute hezi, eta ezta eskolak bakarrik ere. Ez dute inoiz egin. Beti izan da gizartea horien bitartez hezi duena, baina gaur egun gizartearen aurka hezi behar dela dirudi. Horregatik, gaindituta sentitzen gara. Gizarte zibilaren mobilizazio hezitzailea behar dugu. Denek irakatsi/hezi behar diete haurrei modu askotan eta toki guztietan».

Eskolako ekintza hezitzailea bere indar handienera iristen da «garapen komunitarioa» izeneko esparruaren barruan kokatzen denean. Kideen ongizatean laguntzeko, komunitate batek —herri bat, auzo bat— erronka batzuk hartu behar ditu, premia materialak aseztzeaz gain, pertsonen kalitatean eta horien arteko eta gizartearen harremanetan eragina dutenak, horien kultura, komunikazioa eta lankidetzeta hobetuta. Kontrako aldetik ikusita, komunitate batek zeregin hezitzailea duela ulertzen duenean eta bere erantzukizuna eskola-instituzioekin eta familiekin batera bere gain hartzen duenean, bere garapen komunitarioako oinarri sendoak ezartzen ari da. Garapen komunitarioko proiektu honen barruan oso paper esanguratsua dauka pertsona guztien hezkuntzak eta, bereziki, nortasunaren handitze-prozesuan daudenen hezkuntzak. Auzoan jada badago bizitza eta ekintza sozial aberatsa, honako auzo-elkarte hauen bitartez: etxeko andreen elkarteak, hirugarren adinekoen elkarteak, gazte-taldeak, parrokia-elkarteak, mendizaleen elkarteak, eta mota askotako elkarteak. Gizarte-sare horren gainean egin behar da komunitatearen garapena.

³ MARINA, José Antonio (2000): *Aprender a vivir*. Ariel. Bartzelona.

4

BIZIKIDETZARAKO HEZKUNTZAREN DIMENTSIOAK

Bizikidetzak *mota askotako dimentsioak* ditu. EURED⁴ sareak (bakearen arloko hezkuntzan lan egiten duten ikastetxeen Europako sareak) proposatu du bakearen arloko hezkuntzaren curriculumean hainbat alderdi barne hartzea, honako hauek alegia: giza baliabideen eta baliabide naturalen ustiapenean oinarritutako garapen-ereduan eta giza harremanetan oraindik bizirik dirauen desberdintasunaren, bazterkeriaren, abusuaren eta indarkeriaren kultura gainditzeko lagun dezaketenean eta lagundu behar duten alderdi guztiak, eta bakearen aldeko kultura demokratikoa berretsi dezaketenean eta berretsi behar duten alderdi guztiak.

Gure Proiektua, une honetan, bederatziko programetan egituratzen da, eta proposatu ditugun helburuak lortzeko laguntzen duten jarduerak programa horietan artikulatzen dira, betiere partekatutako planteamenduetan oinarrituta. Bizikidetzarako oinarritzakoak diren honako lau eremu hauetan dute eragina: ingurunea, pertsonak, pertsonen arteko harremanak, eta ikaskuntza.

BIZI GAITEZEN ELKARREKIN

1. INGURUNEA ZAITZEN DUGU

1.1. Ingurune natural eroso eta zaindua

1.2. Auzora irekitako zentroa

2. PERTSONAK ZAITZEN DITUGU

2.1. Eskolako giro eroso eta segurua

2.2. Gizarte-ahalmeneren garapena

2.3. Pertsonen eta kulturen aniztasuna

3. HARREMANAK ZAITZEN DITUGU

3.1. Taldeko kohesioa eta taldean integratzea

3.2. Arauak betetzea eta adostasuna

3.3. Gatazkak eraldatzea eta bitartekotza

3.4. Eskolako patioa, espazio hezitzailea

⁴ EURED (2002): *Curriculum of European Peace Education Course*.

Banaketa horrek ez du esan nahi bizikidetzaren ikasketako dimentsioak bananduta lantzen ditugunik, aldiz, dimentsio horien guztien artean harremana dagoela aski ongi dakigu. Horren ondorioz, jarduera guztietan proiektu osoa kontuan hartzen dugu eta, gainera, jarduera berbera programa desberdinetan integra daiteke, betiere jardueran programen helburuak zuzenean lantzen badira.

Proiektuaren egungo konfigurazioak ez du adierazten proiektua amaitua eta itxia dagoenik, baizik eta oraindik beste hausnarketa, ekarpen eta hobekuntza batzuen mende dagoela adierazten du. Pauso garrantzitsuak, eta nolabait ukaezinak, eman ditugula ziur gauden arren, badakigu talde gisa hazten jarraitu behar dugula, bai barne-hazkundeko prozesu batean, bai besteen ekarpenen asimilazio-prozesu batean, bereziki gure ikastetxeak lan egiten duen eta bizi den komunitatearen premien eta eskaeren bitartez.

5

XEDEAK ETA HELBURUAK

1. Xedeak

Adierazitako oinarriekin bat etorritik, BIZI GAITEZEN ELKARREKIN Proiektuan honako helburu hauekin lan egiteko asmoa dugu, irakasle-taldearen eta hezkuntza-komunitate osoaren jarduna orientatze aldera:

- a) Orainari begira, ikasleak *seguru, zainduta eta kontuan hartuta* sentitzea nahi dugu, gure ustez bizikidetzaren ona eta ikasketa ahalbidetzeko ezinbestekoa baita testuinguru *emozionalki* positibo eta estimulatzailea izatea.
- b) Etorkizunera begira, gure asmoa da ikasleek *beharrezkoak diren ahalmenak* eskuratzea beren artean eta besteekin harreman osasuntsu eta eraikitzaileak ezartzeko, balio demokratikoekin eta giza eskubideekiko errespetuarekin koherenteak izanik, *herritarrentzako* hezkuntzaren oinarria baita.
- c) Eskolaren lanari begira, gure asmoa da *ikasle guztien prestakuntza integralari* laguntzea, bai pertsonak izateko, bai kolektibitate batean elkarbizitzeko, zein curriculumeko ikasketak hobetzeko.
- d) Eskolako inguruneari begira, gure asmoa da *familiek eta auzo* osoak *agente hezitzaile* gisa *jardutea*, eskolarekin bat etorritik, eskolak garapen komunitarioan eta auzoaren hobekuntzan laguntzen duen bitartean.
- e) Munduari begira, *ikasleak pertsona guztiengana eta beste kultura batzuetara irekitzea* nahi dugu, errekonozitu eta balora ditzaten eta horien bitartez norberaren kultura-baliabideak hobetzen ikas dezaten, bereziki beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleen kulturak eta beste herrialde eta kultura batzuetako mutil eta neskekin harremanak izanda.

2. Helburuak

Xedeetan adierazi dugun norabidean aurrera egiteko, eta bizikidetzarako hezkuntzak barnean hartzen dituen dimentsioak kontuan hartuta, honako helburu hauek lortzeko lan egingo dugu:

- a) *Komunitateko kide guztiek ingurune atsegin eta zaindu batean lan egitea eta ikastea, eta gure ekintzek ingurunean dituzten ondorioei buruzko kontzientzia hartzea.*

Ongizate indibidual eta kolektiboarentzat eta, beraz, bizikidetzaren osasuntsu baten-tzat, honako hauek duten balioa ikastea da asmoa: eskolako ingurunea garbia, ordenatua eta atsegina izatea, eta bizi garen ingurune naturala eta horren zaintzan denok dugun erantzukizuna errespetatzea.

- b) *Lankidetzaren harremanak egitea auzoko erakundeekin, komunitatearen garapena indartzeko eta garapen hori auzoko haur eta gazteen hezkuntzan ezartzeko.*

Ingurune sozialeko baliabideak aprobetxatzea eta ikasleen hezkuntzan horiekin bat egitea da kontua, bizikidetzaren on batean eta komunitatearen garapenean lagunduta.

- c) *Ongizate emozionala lortzea, hezkuntza-komunitateko kide guztiak zainduta, kontuan hartuta eta seguru senti daitezten.*

Hezkuntza-komunitateko kide guztien hezkuntza emozionalean laguntzea bilatzen dugu, ikastetxean kide bakoitza onartua eta baloratua sentitzen dela bermatuta eta horien gogo-aldarteak, sentimenduak eta premia pertsonalak zainduta.

- d) *Ikasleei laguntzea beren garapen pertsonal, sozial eta moralerako behar dituzten gaitasun eta ahalmenak eskuratzeko lanean.*

Ikasleek, modu teoriko eta praktikoan, bizikidetzarako behar diren gaitasun pertsonal eta sozialak eskuratzeko eta printzipio etikoen arabera jarduteko behar den garapen moralak lortzea da kontua.

- e) *Desberdintasun pertsonalak eta multikulturalitatea bizikidetzarako balioak dituen eskola-komunitate baterantz aurrera egitea.*

Desberdintasun indibidualen, lankidetzaren eta elkarrekiko laguntzaren errespetuan aurrera egin nahi dugu, eta baita kultur aniztasunaren, elkarrekiko erreko-

nozimenduaren eta elkarriketaren errekonozimenduan ere, betiere printzipiotzat hartuta denak desberdinak garela, baina garrantzi berbera dugula.

- f) *Taldearen barne-kohesioa ahalbidetzea, eta ikasleak integratuak egon daitezzen eta taldeko eta ikastetxeko kide senti daitezzen laguntzea.*

Ikasleek taldeko eta ikastetxeko kide direla sentitzea bilatzen da, taldearen kohe-sioa bultzatuta eta kide bakoitza taldean integratzea sustatuta.

- g) *Arauek eta horien betearazpena bateratu eta barneratzea, horien lantzean parte hartuta, eta balio demokratikoak eta printzipio etiko unibertsalak errespetatuta.*

Ikasleek bizikidetzaren positibo bat bermatzen duten arauen premia onartzea eta arau horien lantzean parte hartzea da gure asmoa, eta baita ikasleen garapen moralean laguntzea ere.

- h) *Hezkuntza-komunitatean bizikidetzaren kalitateari lehentasuna ematen dion eta gatazkak modu eraikitzaile eta sortzailean maneiatzen dituen kultura bat sortzea, bitartekotza tresna nagusi gisa erabilia.*

Eguneroko bizitzan pertsonen arteko gatazkak elkarriketaren, negoziazioaren eta adostasunaren bitartez eraldatzen ikastea da kontua. Eta, era berean, bitartekari batengana joatea, beharrezkoa denean, eta bitartekari gisa jardutea beste batzuek eskatzen dutenean.

- i) *Eskolako patioa gune hezitzaile bihurtzea eta jokoaren aukerak aprobetxatzea elkarbizitzaren ikasteko.*

Eskolako patioa gune hezitzailea izatea nahi dugu, jokoetan parte hartzen duten bitartean, ikasleek askatasun osoz pertsonen arteko harremanak egin ditzaten eta barneratuak dituzten jarrerak adieraz ditzaten, eta proiektuaren programetan ikasi dituzten ahalmek eta gaitasunak baliatu ahal ditzaten.



II. PROIEKTUAREN PROGRAMAK

1 INGURUNEA ZAINTZEN DUGU

Hautzaroaren hezkuntzan eskola ez dago isolatua, eta ezta bakarrik ere. Are gehiago, bizikidetzarako hezi behar denean.

Eskola ez dago isolatua. Ingurune batean txertatua dago, eskolako ekintza hezitzailea baldintzatzen duen eta zentzua ematen dion berehalako testuinguruan, alegia. Eskolak kontuan hartu beharko du hori, zentzuz jardun nahi baldin badu. Oso garrantzitsua da norberaren baliabide naturalak, urbanistikoak eta, nagusiki, giza baliabide baliotsuenak ezagutzea, eta horiek izatea funtsezkoa dela onartzea.

Eskola ez dago bakarrik. Familia eta komunitatea ezinbesteko eta funtsezko agente hezitzaileak dira. Bertan hurrek beren bizitzak garatzen dituzte, eta beren bizitza-ibilbidea markatuko duten portaera-ereduak aurkitzen dituzte. Familiarekin egindako lankidetzeta eta hezkuntza-lanean komunitateak duen parte-hartzea ezinbesteko baldintzak dira eskolako zereginak nahi den eraginkortasuna izan dezan.

Gure proiektuaren lehen blokean bi programa gaineratu ditugu, honako helburu hauekin:

- Eskolaren ingurune fisiko eta naturala errespetatzen eta zaintzen ikastea.
- Ingurune sozialaren parte-hartzea eta lankidetzeta bultzatzea, auzo osoa agente hezitzailea izan dadin.

1.1

Ingurune fisiko eta natural atsegina eta zaindua

HELBURUA:

Komunitateko kide guztiek ingurune atsegina eta zaindu batean lan egitea eta ikastea, eta gure ekintzek ingurunean dituzten ondorioei buruzko kontzientzia hartzea.

Inguruneak ongizate pertsonalean eta kolektiboan, eta, beraz, bizikidetzan duen garrantziaz jabetu nahi dugu.

Haurrek honako gauza hauek egitea nahi dugu:

- ingurune garbi, ordenatu eta atsegina baten ongizatea bizitzea, eta ingurune horren zaintzan duten erantzukizuna beren gain hartzea,
- bizitzeko eta harremanak egiteko erabiltzen dugun ingurune naturala errespetatu, kontserbatu eta hobetzeko beharra barne hartzea,
- kontsumo-forma jakin batzuen ingurumen-arazoez jabetzea eta garapen iraunkorraren esanahia ongi jakitea, baliabideen erabilera arduratsuan inplikatzeko, eskola-komunitate osoak egiten duen moduan.

JARDUERAK:

- a) Lorategien eta berdeguneen zaintza eta mantentze-lana.*
- b) Eskola-ingurunearen zaintza.*
- c) Garapen iraunkorra: Agenda 21.*

1. Abiapuntua

Auzoko parkea egin baino lehen, eskolako patioa zen jolasteko eta denbora pasatzeko erabilgarri zegoen espazio bakarra. Haurrek lurrarekin jolasteko aukera bakarra zen, eta arreta askorik gabeko gune libre gisa eskaintzen zen. Parkea egin ondoren, eskolako patioa pixka bat gehiago zaintzea erabaki genuen.

Ingurune irekia erabiltzeko moduari buruzko eztabaidak sortu ziren. Batzuek lurraren eta patioaren erabilera libreagoa eta ez hain kontrolatua defendatzen zuten, eta beste batzuek, aldiz, behin eta berriz esaten zuten auzoko haurrek eskubidea dutela hiriko erdigunekoak bezain politak eta ondo zainduak dauden lorategiak eta ingurune irekiak baliatzeko.

Horrela sortu zen guneen garrantziari buruzko hausnarketa, eta baita gune horien banaketak eta zaintzak gure hezkuntza-plangintzen oinarrizko ideiak islatzen dituztela adierazten duen ideia ere.

Bizikidetza-programa bilakatu zen heinean, ingurune atsegin, zaindu eta estimulatzaileretan lan egiteak duen garrantziari buruz hausnartu zen, interakzioen, harremanen eta ikasketaren hobekuntzarako faktore gisa.

Gainera, jardun-ildo hau komunitate guztiaren parte-hartzea zeregin partekatu batean indartzeko modu gisa erabiltzeko aukera ikusi zen.

Era berean, gunearen eta ingurunearen zaintzak aukera ematen digu baliabide naturalak erabiltzen ditugun moduari buruz hausnartu eta ikasteko, eta ekologiarekin eta garapen iraunkorarekin zerikusia duten ohiturak ikasi eta eskuratzearekin lotzen dugu.

Kasu honetan, eskaerak bizikidetzarako, herritartasunerako eta garapen iraunkorrerako hezkuntza-proiektu baten barruan egiten direla aintzat hartuta, adierazi beharra dago Udala laguntza-erakunde oso garrantzitsua bihurtu dela baliabide materialei eta giza baliabideei dagokienez.

2. Oinarrizko planteamenduak

Programa hau sorrarazi duten hausnarketak bizikidetzarako hezkuntza-proiektu orokorren barruan daude, eta honako oinarrizko puntu honetan laburbil dezakegun kultura bateratua eragin dute:

- Pertsonak ingurunearekiko etengabeko interakzioan hazten dira egokitzapen-prozesu kritiko baten barruan. Eskola ezin da isolatu eta itxi, ingurunearekin harreman guztiak ukatuz. Ezin da gune propio bat sortzearekin asebate, baldintzatzen duen eta eraginpean hartzen duen ingurune baten barruan dagoela ahaztuta.
- Ingurunera irekia dagoen eskola batentzat ezinbestekoa da bahetzea, hezkuntza-prozesuan erabilgarriak diren alderdiak errekonozitzea, eta pertsonak eta garapen baketsu eta solidarioa errespetatzen dituen gizarte baten printzipioekin bat ez datozen jarrerak, portaerak eta harreman-ereduak baztertea.
- Ingurunea esperientzien eta bizipenen funtsezko iturria da, eta baita gure ongizaterako behar ditugun baliabideen iturria ere. Herritarren ingurunearekiko jarrerak bi norabideko mugimendua hartzen du barnean: inguruneak eskaintzen duen baliozko gutzia hartzea, eta inguruneari gure laguntza ematea, ongizate pertsonalerako eta kolektiborako eta elkarrekiko laguntzarako iturri izan dadin, tradizioak eta modernitateak hitz egiten duten leku bihurtuta.
- Eskola bizitzeko eta lan egiteko erabiltzen dugun ingurunea da. Ingurune, garbi, ordenatu eta atsegin batek laguntasuneko eta gauza eta pertsonetikiko errespetuko harremanak ahalbidetzen ditu. Zaindu gabeko eskola bat aurkako ingurune bat da, ezer eta inor errespetatzen ez duten portaerak sortzen dituena.
- Bizikidetzarako hezkuntzak ingurumen-dimentsio bat dauka. Naturaren parte garela argi ikusteak, ingurunearekin etengabeko elkarreaginean, denok elkarren beharra dugula ulertzen laguntzen digu.
- Baliabide naturalak gehiegi erabiltzen dituen bizitza-ereduaren aurka, babeseko, kontserbazioko eta hobekuntzako jarrera bat sustatu nahi dugu, hain zuzen gure us-tez giza garapenik izango bada, iraunkorra izan beharko du nahitaez.
- Kontsumismoa baliabideen gehiegizko erabileraren adibide bat da, eta neska eta mutilak erraz erortzen dira bertan, neurri handi batean publizitate iradokitzaile bategen erakarriak, baina, era berean, horien bizitzak betetzeko gauza interesgarririk ez dutela adierazten du.

3. Programaren deskribapena

a) Lorategien eta berdeguneen zaintza eta mantentze-lana

Patioak, denboraren poderioaz, hasierako zelaia galdu zuen, eta euriarekin lokatzen den lurzati bat bihurtu zen, eta patioa leku atsegin eta alaia bihurtzeko lorategiak sortzea era-

baki genuen. Nahi genuenaren diseinua egin genuen eta Udalean aurkeztu genuen; udalak parte hartuko zuela adierazi zuen.

Neguan eta udaberrian denboraldiko lore-aldaketa egiten da, eta garbiketa-kanpaina bat gauzatzen den astean egiten da aldaketa hori. Denboraldi bakoitzean landareak eskatzen ditugu eta Udalak ematen dizkigu.

Haur Hezkuntzako eta Lehen hezkuntzaren lehen zikloko talde bakoitzak parterre bat esleitua dauka. Loreak landatzeaz eta horiek mantentzeaz arduratzen dira urte osoan zehar, eta errespetatzen dela zaintzen dute, lorategia errespetatu eta zaintzera gonbidatzen duten mezuekin kartelak jarrita. Ikasle bakoitzak lore bat landatzen du gutxienez. 6. mailako ikasleek txikienei laguntzen diete. «Zoragarria da ikustea zein leuntasun eta maitasunez laguntzen dieten handienek txikienei» adierazi zuten Haur Hezkuntzako maistrek.

3. eta 4. mailako ikasleek, lorategi handiak zaintzeaz gain, baratza lantzen dute: garia, babak, ilarrak eta abar landatzen dituzte, biltzen dituzte, beren fruituak eta barazkiak erakusten dituzte beren kideek ikusi eta ezagut ditzaten, azoka publikoetan saltzen dituzte eta etxean kontsumitzen dituzte.

Eskolako lorategian eta baratzean, eta baita irteera batzuetan ere, ikasleek zuzeneko harremana dute naturarekin, nahiz eta harreman mugatua izan, eta hori funtsezkoa da ingurumen-hezkuntzan, batez ere hiri-inguru batean bizi diren ikasleen kasuan. Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailako ikasleek aukera dute Ingurumen Hezkuntzako Ikastetxe batean astebete egoteko; bertan aukera izango dute landareen eta animalien bizitzako prozesuak, behar dituzten zaintzak eta ematen digutena deskubritzeko. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako 5. urteko ikasleek bisitak egiten dituzte Urkiolako, Gorbeiaiko eta Urdaibaiko Parke Naturalerako ingurumen-hezkuntzako ikastetxeetan.

b) Eskola-ingurunearen zaintza

Eskolako barne-ingurunea ere ondo zainduta egon dadin, atsegina izan dadin eta ikasleek mantentze eta hobekuntzako prozesu horretan parte har dezaten, «Ingurunearen Kontrol Batzorde» bat sortu da 5. eta 6. mailako neska-mutilekin.

Hilero ikasgela bat lau taldetan banatzen da bi alditan. Talde bakoitzak, kontrol-fitxa batekin, patioaren, beheko solairuaren eta ikastetxeko beste hiru solairuen egoera berrikusten du. Honako hauek begiratzen dituzte:

- Zaindu gabe dauden edo konponketak behar dituzten alderdiak.
- Oharrak jasotzen dituzte.
- Jada epetik kanpo dauden kartelak edo iragarkiak dauden begiratzen dute.

Taldeak berak konpontzen du zaindu gabe edo hondatua dagoena. Beraiek konpondu ezin dutena, proiektuaren batzordeari jakinarazten diote. Kudeatu beharreko konponketak edo proposamenak bere gain hartzen ditu zuzendaritzak.

Era berean, astebeteko garbiketa-kanpainak antolatzen dira, eta tutoretzetan ingurunearen zaintzaren garrantziari buruz hausnartzen da. Batzorde horren oharrek aukera ematen dute tutoretzetan aztertzea komeni den alderdiak ikusteko.

Jardun-ildo berean, kortxoak eta panelak jarri dira korridoreetan, iragarkiak edo plastikalanak jartzeko.

c) Garapen iraunkorra. Agenda 21

Bilboko Udalak Agenda 21 programan parte hartzen du, 1994ko *Aalborgen Gutuna* izenekoan *Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Konferentziak* bultzatutakoa, herritar guztiek ingurumenaren iraunkortasun eta zaintzako gaietan kontzientzia har dezaten. Gure ikastetxeak, Bilboko beste ikastetxe batzuekin batera, Agenda 21 programan parte hartzen du, eta programa hori programa orokorraren alderdi bat da.

IIHIIak (Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia), ingurumen-hezkuntzarako laguntza zerbitzuak, ikastetxeen jardunak bultzatu, koordinatu eta laguntzeaz arduratu da. Ikastetxean bertan bi pertsona dira programaren arduradunak, ikastetxeko bileretara joaten dira IIHIIaren arduradunekin batera, eta ikastetxearen baldintza eta ezaugarrietara egokitzen, garatzen eta zabaltzen dituzte proposamenak.

Urtero gai jakin bat aztertzen dute. Curriculum-mailan, Agenda 21 programaren gaiak beste arlo batzuekin lotzen dira, bereziki «Ingurunearen ezagutzan».

2005-06 ikasturtean programak paperaren gaia landu zuen. Paperaren erabilerari buruzko ikerketa bat egin genuen, eta familiek ere parte hartu zuten, eta, auzoko elkarteekin batera, auzo osora zabaldu zen. Gramaje txikiagoko papera erabiltzearen, papera hobeto aprobetxatzearen eta birziklatzearen garrantzia ulertu genuen. 2006-07 ikasturtean,

gai nagusia uraren erabilera izan zen. Bizitzarako oinarritzkoa den eta oso urria den ondasun baten balioa ikusi genuen, nahiz eta gure ingurunean ez dugun horrela ikusten, eta ohiko praktika askotan ura xahutzearen inkongruentzia ikasi genuen. 6. mailako ikasleek, «Munduak konektatzen» proiektuan (Intermon Oxfamek bultzatu eta koordinatua), gai hori landu dute beste herrialde batzuetako ikastetxeekin harremanetan, eta aukera eman die herrialde horietako askok bizi duten ur-eskasiako egoerak ezagutzeko, ura nola lor-tzen duten eta uraren erabilera nola zaintzen duten ezagutzeko, eta baita ongizate per-sonal eta kolektiboan dituen ondorioak ezagutzeko ere. Udalak eguzki-plakak jarri ditu, eta horrek aukera ematen digu energia garbiak ekoizten laguntzeko, eta baita zenbat ener-gia produzitzen dugun eta zenbat kontsumitzen dugun jakiteko ere. Era horretan, klima-aldaketaren gaira hurbiltzen gara, hau da, 2007-08 ikasturtean landuko den gaira.

Programa honen filosofia «eginda ikastea» da, jardunean ikastea. Horregatik, eguneroko edozein xehetasun aprobeztatzen da birziklatzearen eta ingurumenaren zaintzaren kon-zientzia sustatzeko. Esate baterako, bazkal ondoren patiora irteterakoan, haur bakoitzak ontzien edukiontzian botatzen du bere jogurtaren ontzia. Era horretan, haurrek gaiaren pertzepzio erreal eta kontrastatu batean oinarrituta jarduten dute, eta ez diskurtsoan oina-rrituta. Baliabideen erabilera murriztea lortu dugu (eskolan erabiltzen den paperaren gra-majea eta kopurua), eta baita berriz erabiltzea eta birziklatzea ere.

Jarduera horiei buruzko datu eta informazio guztiak patioan kokatutako «Txoko Ber-dea» izeneko panel batean adierazten dira. Horren zeregina da ikasgeletan lantzen diren gaiei buruzko memoria bizirik mantentzea, eta ingurumen-arazoak ezagutzeko eta horien kontzientzia hartzeko informazio erabilgarriak partekatzea. Kulturartekotasunarekin lo-tuta, panel horretan ikastetxeko neska-mutilek hitz egiten dituzten hizkuntza guztietan txertatzen da informazioa.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

2005-06 ikasturtea amaitzerakoan, honako ondorio hauek atera ziren programa honi buruz egindako ebaluazioan:

- 3 urtetik Lehen Hezkuntzako 4. mailara bitarteko ikasle guztiek lorategien eta bara-tzaren mantentze-lanetan parte hartu dute. Horien inplikazioa funtsezkoa izan da in-gurunearekiko errespetuzko jarrerak eskuratzeko, garbia eta atsegina izatea balioes-teko eta zaintzan arduratsua izateko.

- Patioan gertatutako aldaketa nabarmentzen da: eremu zikin eta lokaztua izateari utzi eta lorategi bihurtu da, non loreak, zuhaitzak, belarrak errespetatzen diren eta zakarrontziak erabiltzen diren, nahiz eta ontziak biltzeko edukiontzien erabilera egokia oraindik lortzeke dagoen.

Pasadizo bat den arren, nabarmendu beharra dago auzoko Kultur Astean txokolatada bat antolatu zela parkean, eta neska-mutil askok parte hartu zuten (...) Festa amaitzerakoan, zoruan plastikozko ontzi bat besterik ez zegoen. Xakean jolasten ari zen mutil batena zen eta, jolasten ari zen bitartean, txokolatea edaten zuen.

- Era berean, mantentze-lana eta alderdi estetikoak ere nabarmen hobetu dira erai-kinetan. Inguruneko batzordeak normaltasunez funtzionatu du eta eraikinean izandako gabezia asko konpondu dira.
- Agenda 21 programan parte-hartzearekin, sentsibilizazio-maila handia lortu dugu paperaren berrerrabileran, eta kontsumoa murriztu egin da.
- Hondakinen birziklapen-kanpainan auzoaren inplikazioa oso garrantzitsua izan da ikastetxeak auzoko elkarteekin eskolako kideen arteko eta auzoko kide guztien arteko bizikidetzaren hobekuntzarako egiten duen lanean.

5. Eranskinak

- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Inguruneko Batzordearen kontrol-fitxak.

1.2

Auzora irekitako ikastetxea

HELBURUA:

Lankidetzaren harremanak egitea auzoko erakundeekin, komunitatearen garapena indartzeko eta garapen hori auzoko haur eta gazteen hezkuntzan ezartzeko.

Bizikidetzarako hezkuntza ez da soilik eskolako helburua, baizik eta gizarte-komunitate osoak, auzoak partekatua, oinarri hirukoitz batetik:

- Ikasleak bizi diren eta harremanak egiten dituzten auzoa oinarritzko eredua da beren portaeran. Bizikidetzarako hezteko, kontuan hartu behar dugu testuinguru hau eta horren ekarpenak eta lankidetzak.
- Belaunaldi arteko elkarrizketak gizarte-kohesioa ahalbidetzen du: aukera ematen die helduei ondorengo belaunaldiak ulertzeko eta belaunaldi horiei aukera ematen die beren komunitatearen iragana jakiteko eta oraina hobeto ulertzeko, komunitatearen garapenean laguntze aldera.
- Gure zentroa hezkuntzaren eta kulturaren arloko eredu oso garrantzitsua da auzoan eta, horren ondorioz, garapen komunitarioko proiektu baten esku jarri behar da, familientzat eta garapenean lagundu nahi dutenentzat.

JARDUERAK:

- a) Komunitatearen lankidetzaren eskolarekin.*
- b) Eskolaren lankidetzaren komunitatearekin.*
- c) Abusu, auzo hezitzailea.*

1. Abiapuntua

Gure ikasleak testuinguru geografiko eta soziokultural mugatu batekoak dira. Gure ikastetxea Abusu auzoan dago, eta auzoa unitate bereizi bat da, bizitza propioarekin, bere kokapenagatik, Bilboko gainerako auzoetatik bereizita baitago, nahiz eta maiz hirira joan behar duten auzoan ez dauden erosgaiak eskuratzeko, kultura- eta aisia-jardueratarako eta zerbitzuetarako.

Gure eskola kultura-ikastetxe publiko bakarra izan da urte askotan, auzoak ez baitzuen gizarte-etxerik, liburutegi publikorik edo era horretako baliabiderik. Duela urte gutxi DBH ematen duen Institutua gehitu zen. Horrela, gure ikastetxea hezkuntzaren eta kulturaren arloko eredu bat da auzoan, eta bere instalazioak eta baliabideak ikasleen esku egotea nahi dugu, horien hezkuntza, kultura, elkarte, kirol eta bestelako premiak asetzeko, eta, era berean, familien eta elkarteen esku egotea nahi dugu, garapen komunitarioan laguntzeko.

Baldintza horietan, eskolaren eta auzoaren arteko harremana nahitaezkoa zen, baina baita hasiera beretik maitatua eta bilatua ere. Familiek beti izan dute funtsezko tokia gure hezkuntza-lanean, eta ikastetxeko proiektuei buruzko informazio puntuala ematen eta beren lankidetzara onartu eta emateko beharrezko prestakuntza ematen saiatu gara.

Era berean, auzoko erakunde guztiekin lankidetzara bilatzen dugu: emakume-elkartek, auzokideen elkarteak, hirugarren adinekoenak, kulturalak, esku-hartzeko sozialekoak, merkatarienak, parrokia-elkartek, etab. Auzoko elkarteekin sistematikoki bildu gara, komunitatearen hezkuntza- eta kultura-garapeneko proiektu bateratu bati edukia emateko asmoz. Erantzuna oso positiboa izan da, eta horrek aukera eman digu lankidetzara-forma jakin batzuetan aurrera egiteko.

2. Oinarrizko planteamenduak

Gure hausnarketetan eskolaren eta familiaren arteko harremanak eta eskolaren eta auzoaren artekoak aztertu ditugu. Eskola irekiaren aldeko apustua egin dugu, familiek eta auzoko elkarteek presentzia eta zeregina izan dezaten eta eskola komunitatera ireki dadin, garapenean laguntzeko, bereziki auzoko haurrei, nerabeei eta gazteei dagokienez.

- Familiek eskolaren bizitzan duten inplikazioa oinarrizko faktorea da irakaskuntzaren kalitatean. Familien bizitza-baldintzek, egiturak eta barne-antolamenduak, eta kideen

arteko harreman afektiboek ondorio nabarmenak dituzte seme-alaben garapen pertsonalean. Gurasoen ikasketa-maila, hizkuntza- eta kultura-iturria, ikasketekiko interesa eta horiengan jartzen diren itxaropenak funtsezkoak dira eskolako ikasketan.

- Familien eta eskolaren arteko harremana errespetuan, informazioan eta elkarrekiko konfiantzan oinarritzen da, eta eskolako parte-hartzearen eta lankidetzaren bitartez eta bi eremuetan zaintzen diren balioekiko koherentziaren bitartez jartzen da praktikan.
- Hezkuntzako arazo eta premia indibidual eta kolektiboak eskolaren eta familien artean aztertu behar dira, eta hobekuntzarako bidea bien artean bilatu eta praktikan jarri beharko dute. Ikastetxeko proiektuen garapenean oso garrantzitsua da zeregin espezifiko bat esleitzea familiei, horien inplikazioa lortzeko.
- Komunitateak eskolako proiektuen garapenean lagundu dezan, lankidetzarako guneak behar dira. Eskolak komunitatearen garapenean lagun dezan, komunitatearen asmoak eta proiektuak kontuan hartuta gaineratu beharko ditu bere proiektuak.
- Belaunaldien arteko elkarrizketak esperientzia aberatsak eskaintzen ditu, bai helduentzat, bai neska eta mutilentzat. Komunitateko pertsonen arteko loturak sendotzen dira, haur eta gazteen eta helduen arteko harreman-denbora efektiboa eta familia-nukleoa murrizteko joera dagoen une honetan. Pertsona adinduak baliagarriak eta baliotsuak sentitzen dira komunitatearentzat, eta adingabeek beren sustraiak ezagutzen dituzte, eta horrek komunitatearen parte direla sentiaraziko die.
- Auzoa, multzo gisa, lehen mailako hezkuntza-baliabidea da, betiere auzoko kideek eta, bereziki, presentzia publiko handiena dutenek, txikienen gaineko hezkuntza-erantzukizuna dutela argi daukatela aintzat hartuta.
- Hezkuntzagatiko gizarte-mobilizazioaren asmoa da pertsona, talde eta instituzio interesdun guztiek, aitzakiak bilatu ordeztu edo beren hutsegiteen errua besteei egotzi ordeztu, hezkuntzaren hobekuntzarako laguntza ematea, ekimen kolektiboetan parte hartuta.

3. Programaren deskribapena

a) Komunitatearen lankidetzaren eskolarekin

Auzoko elkarteetako eta Bilboko Udalaren oinarrizko zerbitzuetako lantaldeek ikastetxeko proiektuan lagundu dute, hainbat jardueren bitartez.

- «Gugaz aurrera» taldea *Ikasketa-arazoak dituzten ikasleen laguntza-taldeen* ardura-tzen da, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko auzoko neska-mutil guztiei zuzendua.
- Parrokiako boluntariotzak *eskola-laguntzako eta astialdiko Txilin-Txalan* programa garatzen du, Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. mailako ikasleei zuzendua.
- Gurutze Gorriko lantaldeak sentimenduak lantzeko *Saski-naski* tailerra zuzendu du, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzat.
- Bilboko Udalaren oinarritzko zerbitzuaren adingabeen Hezitzaileek *ludotekako Jarduerak* antolatu dituzte, portaera arriskutsuen prebentziorako eta 6 urtetik 12ra bitarteko haurrekin balioak transmititzeko.
- Familiek eta elkarteek ikastetxeko jardueretan parte hartzen dute:
 - Andreberri emakumeen elkarteak *literatura- eta arte-jarduerak* aurkeztu ditu liburuaren astean.
 - Familiek ikastetxeko hainbat jardueren prestakuntzan eta antolamenduan parte hartzen dute: inauteria, liburuaren astea, ikasturte amaierako festa...
 - Etorkizuneko tailer batean parte hartzea, eskolari buruzko iritzia emateko eta bizikidetzak, ikastetxearen funtzionamendua eta ikasketa hobetzeko proposamenak egiteko, eta, era berean, ikasturtearen barruan antolatutako bileretan parte hartzea.

b) Ikastetxearen lankidetzakomunitatearekin

Eskolak familiekin lotuta jarduten du ikasturtean egiten diren ikastetxeko eta taldeko bileretan, beti irekiak dauden bide informalean bitartez, zein bide formalagoen bitartez, hau da, ikastetxeko zuzendaritza-organoen eta ikasleen Gurasoen Elkartearen bitartez. Era berean, familien eta eskolaren arteko harremana estutzeko helburuarekin egindako ekin-tzak gauzatzen dira:

- *GUREA aldizkaria*, informatzailea eta prestakuntzako, familia guztientzat, auzoko hezkuntza-komunitate eta erakunde guztien laguntzarekin landua.
- *Gurasoen prestakuntza* eskolan lantzen ari diren gaiei buruz, eskolaren eta familien jarduna koordinatzeko. Irakasleen prestakuntzako xede diren gaiei buruzko

prestakuntza egokitua ematen zaie, honako gai hauei buruz esaterako: gatazkak maneiatzeko modua, arauak ezartzeko eta eskatzeko modua, arauen ez-betetzeen ondoren egin beharreko konponketa eta abar. Prestakuntzako saioetan ikastetxeko irakasleek eta irakasleen prestakuntzan parte hartu duten adituek esku hartzen dute.

- Haur Hezkuntzako ikasleen *gurasoen eskola* beren seme-alaben hezkuntzaren alderdi batzuei buruz, EISE udal-taldeak koordinatua, Bilboko Udalaren oinarritzko zerbitzuaren mendekoa.
- *Asteko kafe-topaketak* familia-hezitzaileekin (EISE), modu informalean beren seme-alaben hezkuntzarekin lotutako kezkak eta zalantzak adierazteko aukera izan dezaten.
- *Familian esku hartzeko udal taldeekin koordinazioa*.

Ikastetxeak bere lokalak eta ekipamenduak komunitatearen esku jarri ditu, elkartean eta talde antolatzaileen jardueretarako:

- *Emakumearen sustapenari buruzko ikastaroa*, astekoa, Andreberri taldeak antolatua bere bazkideentzat, baina beste interesdunentzat irekia.
- *Helduentzako informatika-ikastaroak*, Andreberri bere bazkideentzat antolatuak, eta parte hartu nahi duten beste pertsonentzat irekiak.
- *Instalazioak erabiltzea auzoko kultura- eta kirol-ekitaldietarako*. Ikastetxea irekia dago auzoko elkarteek antolatzen duten edo auzoko pertsonentzat egiten den kultura-, gizarte- edo kirol-arloko edozein ekimen jasotzeko.

c) Abusu, auzo hezitzailea

Eskolak auzoko elkarteekin duen harremanak urte luzeko ibilbidea dauka. Interes orokorreko gaiak aztertzeko bilerak egin ditugu. 2004-05 ikasturtean sare-lan bat hastea pentsatu genuen, honako goiburua honekin: «Auzo bat behar da haur bat hezteko». Gure planteamendua da erantzukizun kolektibo honen kontzientzia sortzeko modu onena ekintzak bultzatzea zela, taldeek eta instituzioek indibidualki edo isolatuta lortu nahi dugunari lankidetzak, modu praktikoan, indarra eta dimentsioa ematen diola ikusteko.

Lehenengo proposamena pertsonen arteko harremanen oinarritzko gizarte-ohiturak berreskuratu edo irakasteko kanpaina bat izan zen, eskolan lantzen ari ginena eta auzo

adeitsu bat lortzeko zabaldu nahi genuena. Kartel bat egin zen agurtzeko, eskatzeko, eskertzeko, barkamena eskatzeko eta beste gauzetarako esaldiekin, euskaraz eta gazte-leraz. Hainbat elkarte arduratu ziren auzoko dendetan kartela eramateaz eta kanpaina azaltzeaz, eta borondate onenarekin, auzokide guztiek ikusteko moduko lekuetan jarri zituzten kartelak.

2005-06 ikasturtean, auzoko elkarteek zaborraren bilketa selektiborako eta birzikla-penerako kanpaina batean parte hartu zuten, Agenda 21 programaren barruan. Institutuko ikasleek azterlan bat egin zuten auzoko zabor-erakundeentzako buruz, eta auzokideak erakundearen erabilera arduratsuen inguruan sentsibilizatzeko elkartearen jarduerari buruz.

2006-07 ikasturtean, bi jardun nabarmendu ziren. Lehenik, «Abusu, auzo hezitzailea» lemapeko I. Jardunaldiak egitea; jardunaldi horietan, lan komunitarioan esperientzia baliotsuak dituzten adituen laguntzarekin, gizartearen mesederako aukera eta jardunbide bateratuei buruz eta, bereziki, auzoko haurren eta gazteen hezkuntzari buruzko hausnarketa egin genuen. Elkarteek lan kolektibo honetan jarraitzeko hartutako erabakiaren eta beren ekarpenaren aurkezpen publikoa egin zuten, eta, aldi berean, egiten ari ziren lanean beren auzokideen errekonozimendua egiaztatu zuten. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordearen eta Giza Eskubideen zuzendariaren, eta Bilboko Udalaren Hezkuntza eta Gazteria zinegotziaren laguntza izan genuen, eta gastuak ere horiek ordaindu zituzten.

Bigarrenik, Kultura Astea antolatzea; bertan auzoko hogeit hamar elkartek eta taldek parte hartu zuten, bi ikastetxe publikoek gain (eskola eta Institutua), Udalaren laguntza ekonomikoarekin. Elkarte-erakundeek adin guztietako auzokideentzat pentsatutako proposamena ekarri du; horietariko askok belaunaldi arteko eta dibertsitatearen integratzaile izaera indartsua dute. Elkarte edo talde bakoitza jarduerak bat abiarazteaz arduratu da, betiere bere esperientziarekin bat etorritik.

5 urteko haurrak Institutura joan ziren DBHko 3. mailako ikasleei ipuinak kontatzera, eta DBHko ikasleek auzoari buruz egindako lana aurkeztu zieten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei. Helduek duela urte batzuetako auzoko bizitza eta jarduerak azaldu zituzten txikiei eta ertainei, hala nola angulen arrantza edo meategien ustiapena. Auzoaren argazki zaharren erakusketa batekin osatu zen iraganerako begirada hori. Emakumeen elkarteek eta ikastetxeko familiek munduko inguru desberdinetako ipuinak kontatu zituzten eta beraiek idatzitako antzerki-lan bat egin zuten haurrentzako.

Eskolako koruak, Institutuko musika-talde batek eta emakumeen koruak kontzertu batean parte hartu zuten. Gizarte-etxeak eta Arrigorriagako HHEak —gertuko udalerria izaki— munduko idazketa-tailer bat antolatu zuten, eta, bertan, neska-mutilen izenak idazkera desberdinetan (txinera, arabiarra, zirilikoa, eta abar) idatzi zituzten plastikozko xafla txikietan; xafla horiek denek ikusteko moduan jarriak daude. Liburuaren azokan Ikastetxeek eta Gurasoen Elkarteek emandako 1etik 3 eurora bitarteko balio-txartelekin gustuko zuten liburuak erostera joan ziren Lehen Hezkuntzako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako ikasleek bertan erosi zituzten beren liburuak, eta gero Institutuak ordaindu zituen. Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, liburu horiek beren ikastetxeetara eramaten dituzte eskolan irakurrita lan egiteko eta ikasgelako eta ikastetxeko liburutegia handitzeko. Era berean, beren etxeetarako liburuak erosteko asmoz ere agertu ziren hainbat familia. Horretaz gain, hainbat motatako jarduerak egin ziren: jai-arlokoak, kirol-arlokoak, ibilaldia auzoan barrena...

Ikastetxeak auzoko kultura-, gizarte- eta kirol-elkarte eta taldeekin egindako lehen ekintza bateratuak oso erantzun positiboa izan zuen, eta tamaina handiagoko beste jardun bateratu baten hasiera izan da. Une honetan lehenengo pausoak ematen ari dira garapen komunitarioko plan bat bultzatzeko, auzokideei lagunduko diena eta, bereziki, neska-mutilen hezkuntzan lagunduko duena.

Koordinazio-talde bat osatu da, eta auzoan dauden elkarte eta taldeek parte hartzen dute bertan; ikastetxeek gain (Haur eta Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoa eta Bigarren Hezkuntzako Institutua), Arrigorriagako gizarte-etxeak eta Bilboko Udalaren Gizarte Esku-hartze Taldeak parte hartzen dute. Giza Eskubideen Zuzendaritzak taldeko idazkari gisa diharduen pertsona bat jarri du, eta lanaldi erdiz/lanaldi heren batez dihardu lanean.

Urteko kultura-asteaz gain, ekintza berriak pentsatzen ari dira:

- *Ibilbide lagunak*

Auzokideen laguntzarekin etxetik eskolarako bidea ikasle guztientzat segurua izatea da kontua. Inkesta bat egingo zaie 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleei, etxetik eskolarako ibilbideak, bideko puntu arriskutsuak, eta ikasleen beldurrik bakarrik egiten dutenean ezagutzeko. Datu horiek kontuan hartuta, neska-mutilentzat arriskutsuak diren zonetan Udaltzaingoa egotea proposatuko zaio Udalari, eta bakarrik doazenen ibilbide berbera egiten duten eta beren seme-alabekin joaten diren gurasoen laguntza eta «den-

da lagun» batzuen laguntza eskatuko da; denda horiek sinbolo berezi bat izango dute, eta arazoren bat duten neska-mutilek bertara jo ahalko dute, lagun diezaieten.

- *Auzo irakurlea*

Irakurketa sustatzea da helburua, liburuak trukatzeko «Books crossing» nazioarteko sistema erabilia. Lehenik, inkesta bat egingo da auzoaren irakurle-maila eta nahiago diren irakurketak jakiteko. Gero liburuen trukerako kanpaina hasiko da, eta, irakurri ondoren, fitxa bat betetzea eskatuko zaie, gustatu zaiena jakinarazteko eta bidezkoztat hartzen dituzten iruzkinak egiteko. Era berean, blog bat irekiko da informazioa eta iriztiak trukatzeko.

- *Haur eta gazte informazioa*

Institutuko ikasle-talde batek auzoko haur eta nerabeentzat interesgarriak diren berriekin mural batzuk egingo ditu, Kazetaritzako praktiketako ikasle baten laguntzarekin. Kanpainen lagundu nahi duten denden erakusleihen beheko aldean kokatuko dira.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

- Auzoko familiek eta erakundeek Proiektuaren oinarritzko alderdietan laguntzen dute, eta horrek lagundu egiten digu denok norabide berari jarraitzeko eta balio berberen arabera lan egiteko. Gure nahia da inplikazio-maila hori urtero handitzea.
- Hondakinentzako edukiontzien erabilera egokiari buruzko *kanpainan* auzoko hama-bi elkartek parte hartu dute. Ikasleek modu aktiboan parte hartu dute (edukiontzien erregistroa, kartelen diseinua, banaketa, Udalarentzako idazkia, eta abar). Familien % 75ek erantzun dute inkesta.
- Inauterietan eta ekainean ospatzen ditugun *fiesta* irekietan, familien parte-hartzea hain da handia, non herriko jaiak bihurtzen ari diren.
- Familiek ikastetxearengan eta irakasleengan duten konfiantza handitu dela ikusi dugu argi eta garbi, eta horixe da gure lanarentzako eta proiektuarentzako laguntza onena.

5. Eranskinak

- *Programaren aurkezpena bideoz.*
- *Irakasleen prestakuntzarako testuak:*
 - *Movilización social por la educación*, José Antonio Marina jaunarena.
 - *La implicación familiar y social, factor de calidad de la enseñanza*, Pasqual Maragall jaunarena.
 - *La escuela abierta*, Jaume Trilla jaunarena.
- *Kultura-asteko eta ikasturte-amaieraren festako programak.*

2

PERTSONAK ZAINTZEN DITUGU

Bizikidetza pertsonen arteko topaketa da. Pertsoneri eta horien garapenari emandako arreta ezinbesteko oinarria da elkarrekin bizitzen ikasteko.

Bizikidetza on baterako, beren buruarekin ongi sentitzen diren eta besteen arreta eta errekonozimendua sentitzen duten pertsonak behar dira.

Bizikidetzan besteekin harreman eraikitzaileak eta positiboak izateko beharrezkoak diren ahalmen pertsonal eta sozial batzuk jokoan jartzen ditugu.

Bizikidetza on baterako zailtasun handiena bestearen errekonozimenduan dago. Desberdintasuna ez da bazterkeriarako edo diskriminaziorako arrazoia, aberastasunerako arrazoia baizik. Bizi behar dugun mundu ireki honetan dibertsitatea modu berrietan aurkeztu da.

Bloke honetan hiru programa barne hartzen ditugu, honako helburu hauekin:

- Eskola-giro atsegina eta segurua sortzea, guztien gogo-aldarteak kontuan hartzen dituenak.
- Besteekin harreman positiboak ezartzeko beharrezkoak diren ahalmen pertsonalak eta sozialak garatzea.
- Besteei irekitzea, horien dibertsitate pertsonal eta kulturala errespetatuta, berdintasunaren errespetuan oinarrituta.

2.1

Eskola giro atsegina eta segurua

HELBURUA:

Ongizate emozionala lortzea, hezkuntza-komunitateko kide guztiak zainduta, kontuan hartuta eta seguru senti daitezzen.

Sentimenduak, emozioak eta afektua ezinbestekoak dira giza harremanetan. Bizikidetzan on bat izateko, ezinbestekoa da ongizateko testuingurua izatea, ongizate emozionala bereziki. Pertsonen artean harreman positiboak izateko, ezinbestekoa da gure buruarekin (autoestimua) eta besteekin (errekonozimendua eta empatia) gustura sentitzea. Eskola-giro atsegina batek hezkuntza emozionala ahalbidetzen du, eta eskolako lanak egiteko estimulatu du. Hori ikasleentzat garrantzitsua izateaz gain, garrantzitsua da eskola-komunitateko kide guztiarentzat.

Pertsonak zaintzeko asmoa dugu, bereziki pertsonen alderdi emozionala, eta horretarako, honako hauetan lan egingo dugu:

- Ikasleek beren sentimenduak identifikatu eta adieraztea ahalbidetzea.
- Eskolako kide bakoitzaren autoestimua sendotzea.
- Emozionalki gaizki egotea eragiten dien une edo egoera batean daudenei arreta eta laguntza ematea.

JARDUERAK:

- a) Sentimenduak identifikatu eta adieraztea.*
- b) Ikasleentzako arreta.*
- c) Autoestimua.*
- d) Familientzako arreta.*
- e) Ikasleentzako arreta.*

1. Abiapuntua

Pertsonen ongizate emozionala gure kezketako bat izan da, eta, horregatik, afektibitate-giro bat sortzen saiatu gara beti. Giro atsegin bat ahalbidetzen dugu, ikasleentzat zein irakasleentzat, irakasleak ez diren langileentzat eta gurasoentzat.

Gure ikastetxeak baditu gure lanaren norabide hau errazten duten ezaugarri batzuk. Beti egon da auzoan ondo integratua, irakasle askok urte asko daramate ikastetxean eta, beraz, neska-mutilak ezagutzen dituzte eskolan sartzen direnetik, eta kasu askotan horien anai-arrebak eta familiak ezagutzen dituzte. Gure ikasleen eskolatzea 2 urterekin hasten da eta 12 urtera bitarte luzatzen da. Gauza horiek guztiek pentsarazi digute ikasleen «hazkuntzan» modu efektibo eta luzatuan parte hartu dugula, horien familia-inguruarekin harremanetan egonda. Horregatik, eskola-harremanek afektibitate-lotura asko dituzte, eta gure zeregin espezifikoa horiek zaintzen saiatzen gara.

Komunitatearen ongizatea bilatzeaz gain, gaur egun hezkuntza emozionala edo adimen emozionalaren garapena deitzen denaren barruan kokatzen dugu zeregin hori. Hau da, eskolako bizitzaren dimensio hau pedagogiaren ikuspegitik lantzen dugu, emozioak maneiatzeko gaitasunen garapeneko eta modelajeko ikuspegiari oinarrituta.

2. Oinarrizko planteamenduak

- Irakasle askoren ustez, beren zereginaren helburu zalantzagabea da arrazionaltasun-elementuak ematea sozializazio-prozesuari, eta hezkuntza emozionala beren eskumenekoa ez dela pentsatu ohi dute. Irakasle batzuek ahaztu edo ukatu egiten dute emozioek duten garrantzia eskolako hezkuntzan, ikasketetan, eta, oro har, ikasleen hazkunde eta garapen psikologiko orekatuan.
- Haurrek beren *gaizkiegon emozionala* adierazteko hainbat modu izan ohi dute: antsietate eta depresioko adierazpenak, arretari eusteko, arrazoitzeko eta harremanak egiteko arazoak, eta diziplinarik ezako eta indarkeriazko portaerak.
- *Analfabetismo emozionala* pairatzen dute, eta arreta afektibo handiagoa behar dute denboraldi luzeago batean. Horregatik, emozioak erregulatzen eta kontrolatzen lagunduko dien eta ahalmen afektiboa ekintza eraikitzaile baterako erabiltzen irakatsiko dien *hezkuntza emozionala* behar da.

- «Ezinbestekoa da sentitzen ditugun emozioez jabetzea; emozio horiek intimitate eta ikasketarako aukera gisa ikustea komeni da; ezinbestekoa da enpatiarekin entzutea eta haurraren sentimenduei garrantzia ematea; lagun iezaiozu bere emozioak hitzez adierazten, izen egokia emanez; ez iezaiozu konponbide eginik eman, konponbideak bilatzen lagundu». (Juan Antonio Marina (2006): *Aprender a convivir*).
- Ongizate emozionala autoestimuan oinarritzen da, eta autoestimua norberaren burua ezagututa eta norberaren gaitasunak jakinda lortzen da, betiere norberaren mugak ukatu gabe; izan ere, itxaropen positiboekin muga horien aurka lan egiteko asmoa izango baitu. Autoestimua aukera ematen du norberaren buruarekin eta besteekin harreman positiboak ezartzeko, eta autoestimu txikiak, aldiz, norberaren burua eta gainerakoak suntsitzeko portaerak izatera bultzatzen du.
- Besteen errekonozimendua lortzen denean sendotzen da autoestimua, eta etxean edo eskolan helduen etengabeko kekek edo norberaren berdinen mespretxuek autoestimu txikia izatera bultzatzen dute. Irakaslearen «begiradak» funtsezko papera dauka: kimika naturalaren ginetik, ikasle guztien errekonozimendu eta indartze pertsonaleko profesionaltasuna nagusitu behar da.
- Eskolaren hobekuntza, tekniken hobekuntzan baino, *irakasleen eta ikasleen arteko harremanen hobekuntzan* oinarritzen da. Irakasle on batek konfiantza-lotura bat ezarri behar du ikasleekin, eta lotura horretan oinarrituta, errazagoa izango da bereztzat osagai emozional handia duten jarrerak transmititzea ikasleari, hala nola, jakiteko nahia, gainditzeko premia, eta abar.
- Ikastetxearen giro atsegin eta seguruak eragina du ikastetxeko hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen ongizate emozionalean, eta, era berean, pertsonen ongizate emozionalak ikasketa eta bizikidetzaren positiboa bultzatzen duen giro positibo bat ziurtatzen du.

3. Programaren garapena

a) Sentimenduak identifikatu eta adieraztea

Tutoretza-jardunetan hezkuntza emozionalako programa bat garatu dugu, Manuel Segura jaunaren eta Margarita Arcas andrearen jarraibideei jarraituta, honako pauso hauekin:

Lehenengo pausoa horiek *identifikatzea* da. Haur Hezkuntzan haurrek oinarrizko hiru emozioak identifika ditzaten saiatzen gara: poza, tristura eta haserrea; funtsezkoak dira gure pertsona arteko harremanetarako. Lehen Hezkuntzako lehen zikloetan beste emozio batzuetan saiatzen gara: harridura, beldurra, lotsa, interesa, aspertzea eta abar; eta baita guretzat atsegina edo gogaikarria dena identifikatzen ere. Argazkiak, marrazkiak eta bes-telakoak erabiltzen ditugu, aurpegiaren adierazpenen, keinuen, ahots-tonuaren eta abarren bitartez adierazten dituzten sentimenduei buruz hitz egiten duten adierazpen motak ikusten ikasteko.

Hurrengo pausoa norberaren sentimenduak eta emozioak identifikatzen ikasten da, eta baita izen egokia emanez horiek *adierazten* ere. Sentimenduak adierazteak aukera ematen du besteekin afektiboki konektatzeko, besteek gu entzuteko, eta besteen laguntza izateko. Emozio handi bat sentitzen duen haur bati entzuten dionak komunikazioa erraztu behar du, bereziki heldua bada, eta interesa duela adierazi behar du, ez dio oztopatu behar, haren lekuan jarri behar du, eta adierazi nahi duen sentimendua ulertu behar du.

Bere buruarekin ongi sentitzea eta besteekin modu positiboan harremanak egitea saihesten dion egoera emozionala bizi duenak laguntza behar du bere egoera arrazionalizatzeke, hain zuzen ere, bere emozioak eta bulkadak kontrolatzeko, eta norabide eraikitzaile baterantz bideratzeko. Laguntzaren helburua ez da egoera minimizatzea, baizik eta haurrari laguntza ematea egoerari aurre egiteko, eta bere emozioak kontrolatzeko eta maneiatzeko, emozioek mendera ez dezaten etaitsu-itsuan jokatzera eraman ez dezaten.

b) Ikasleentzako arreta

Egunero, zuzendariak eta ikasketaburuak, beste irakasle batzuen laguntzarekin, pertsonalki haurrek jasotzen dituzte eta horien familiak agurtzen dituzte. Tutoreek beren ikasleak jasotzen dituzte ikasgelaren atean. Era horretan, haur bakoitzak zuzendariaren eta ikasketaburuaren arreta eta bere tutorearen arreta sentitzen du, eta tutore bakoitzak aukera dauka bere ikasleak eskolara nola iristen diren ikusteko.

Irakasleek eta begiraleek arazo emozional bat izan dezaketen edo familiaren edo lanaren inguruko denboraldi txar bat pairatzen duten ikasleen gainean erne egoteko jarraibidea daukate. Beren ikasleei transmititzen diete aztoratuta, kezkatuta, triste eta abar sentitzen direnean, beti egongo dela entzungo dien norbait. Ahal dutenean, afektiboki ongien identifikatzen diren irakasleengana edo zuzendaritzara joaten dira, hitz egitera, entzuterara,

bultza diezaioten, kamamila bat ematen dioten bitartean edo behar duen laguntza emateko prest dagoela adierazten dion bitartean.

Aholkulariak paper garrantzitsua dauka lan honetan, bereziki hutsune afektibo handiak dituzten ikasleekin. Egoera emozionalei arreta emateaz gain, saihestu egiten dute horien arazoek beren burua, taldea eta lan kolektiboa kaltetuko duten jarrera disruptiboak eragitea. Jardunaldi indibidualizatuak egitea, betiere haurrak ongien bidera dezakeen bidea bilatuta: marrazkiak, sentimenduen adierazpena, elkarrizketak, eta abar. Gainera, harremanak ezartzen ditu psikologoekin, kaleko hezitzaileekin edo familiarekin.

Haur Hezkuntzan sartu berri diren ikasleentzat, eskolara eta eskola-dinamikara egokitzeko programa bat dago. Hasteko, orduete etortzen dira eta beren ama edo aita ikasgelan egoten da beraiekin. Gero, ordu eta erdi etortzen dira; horren ondoren, haurrak bakarrik geratzen dira, beren gurasoak gabe; eta laugarren astean jangela abiarazten da.

Era berean, berandu eskolatzen diren ikasleak hartzeko protokolo bat dugu —kasu gehienetan ikasle atzerritarrak dira—, taldean integratzea eta bere eskolakideek egiten duten eskola-lana errazteko. Hizkuntza ez jakiteagatik edo beste arrazoi batengatik komunikatu ezin garen ikasle bat iristen denean, harekin harremana eta komunikazioa erraztuko digun norbait bilatzen dugu haren inguruan.

c) Autoestimua

Arreta berezia ematen diogu autoestimuari, gure ikasle askok autoestimu txikia dutela atzeman baitugu, eta horrek ondorio handiak ditu norbere buruarekin eta besteekin dituzten harremanetan. 2006-07 ikasturtean, hilabeteko talde-tutoretzako lau saioak autoestimua indartzera bideratu ditugu. Ziklo guztietan egin dugu, adin bakoitzera egokitutako jardurekin, eta Ordiziako Berritzeguneak eman dizkigun jarraibideak eta materialak erabilia. Litekeena da datozen ikasturteetan gai hau lehen zikloetan nagusitzea, azken zikloa beste gaitasun pertsonal eta sozial batzuk lantzeko bideratzeko; izan ere, adin hauean ezartzen dira estimu pertsonalaren oinarriak.

Saio horietan, alde batetik, ikasle bakoitzak bere burua ezagutu, onartu eta berresteko lanean aurrera egin dezan saiatzen gara, bere gaitasunak eta trebetasunak balioetsi ditzan, eta bakoitza bereizten duten ezaugarriak balioetsi ditzan, eta baita modu errealistan ongi egiten duena eta hobeto egin dezakeena ikusten ikas dezan ere. Bestalde, beren gaita-

sunei eta trebetasunei dagokienez, eta lagunak partekatzearen eta denekin lan egitearen abantailari dagokionez, beren eskolakideen errekonozimenduaren bitartez norberaren estimua sendotzea da gure asmoa.

Eskolakide batzuek besteak aintzat hartzean edo errekonozitzean oinarritzen den jarduera batekin amaitzen dira saio horiek. Adibidez:

- Taldeak liburu bat egiten du taldekide guztien argazkiekin eta argazki bakoitzaren oinean euskaraz egindako «bertso» batekin, kidearen trebetasun bat azpimarratuta; bakoitzak liburuaren fotokopia bat jasotzen du, eta etxera eramaten du bere ahai-deek ikus dezaten; era horretan, seme-alaben autoestimua hobetzeko laguntzen duten uneak sortzen dira.
- Kide bakoitzak idazki bat sartzen du «goraipamenean kutxan», zozketa bidez esleitu zaion kidearen bi trebetasun adierazita; hurrengo egunetan, kide bakoitzak idatzi duena irakurri eta aztertzen da taldean.

d) Familientzako arreta

Familiarentzako konfiantzarako eta irisgarritasuneko giro bat sortzen saiatzen gara. Ikasturtearen hasieran batzar orokor bat egiten da, eta gero, ikasgela bakoitzean, maila bakoitzaren dinamika espezifikoa buruz informatzen zaie.

Hilabete bakoitzaren lehen eta hirugarren asteetako ostegunetan familiek nahi dutenean eskolara joateko aukera dute. Irakasle bakoitzak hiruhileko bakoitzean gurasoekin hitz egiteko konpromisoa du, eta baita hileroko haur batzuen gurasoekin ere. Familia atzerritarren kasuan, hizkuntza-arloko errefortzua emateaz arduratutako pertsona da familiekin lotura estuena ezartzen duena eta horiekin erregularoki komunikatzen dena.

Haurren aurrerapenean ebaluazioa ere gurasoekin egindako elkarrizketa indibidual batean gauzatzen da, eta irakasleek zein zuzendaritzak elkarrizketa edo topaketa bakoitzaren datu esanguratsuak erregistratzen dituzte.

Haur Hezkuntzako gurasoekin bilera bat egiten da ekainaren hasieran. Aholku batzuk ematen zaizkie haurra udan presta dezaten, janariari, pixoi-halei eta abarri dagokienez. Haurra une horretan dagoen garapen-faseari buruzko dokumentu bat ematen zaie, eta hezkuntzarako aholku batzuk ematen zaizkie. Hortaz, familiekin harremana gertukoa eta etengabea da.

e) Ikasleentzako arreta

Garrantzi handia ematen diegu irakasleen arteko harreman onei, beren bizitza pertsonalean zein profesionalean denboraldi txar bat pairatzen dutenei ahal den guztian arreta emanaz. Ikasturteko bazkari kolektiboak eta urtebetetze-ospakizunak une paregabeak dira giro lasai batean batzuen eta besteen arteko hurbilketa bat egiteko. Garrantzitsuena da gure ikastetxean positibotzat ikusten dugula eskolakide batek bere sentimenduak adieraztea, eta lane-ko zailtasun baten aurrean senti ditzakeen zailtasunak eta estutasuna beste eskolakide bati adieraztea normala izatea, lehenik lasaitzeko, eta, gero, laguntza eskatzeko. «Emakume-talde bat dela aintzat hartuta, asko hitz egiten dugu eta gauza asko partekatzen ditugu, eta lagundu egiten gaitu duela urte asko elkar ezagutzeak»; horixe adierazi du zuzendariak.

Urtero, ikasturteko lehen egunean ongietorria ematen zaie irakasle guztiei, karga afektiboak duen ekitaldi eta opari baten bitartez, esaterako irakasle-gelan gosari bat eginez, udako gauzei buruz hitz egiteko. Irakasle-taldearen eta komunitatearen lotura harrera afektiboko giro batean berrezartzea da kontua.

Hasiko den ikasturterako erabaki gehienak ekainean hartzen direnez gero, lehenengo klaustroa baliagarria da, nagusiki, lehen aldiz laneratzen direnei jardun-ardatz garrantzitsuenak gogorarazi eta komunikatzeko. Irakasle berrientzat erreferentziatzeko eta laguntzako pertsona zikloko koordinatzailea da.

Ikastetxean lanean hasten diren irakasleak lehenbailehen taldean eta dinamika orokorrean sar daitezten, ikastetxeari eta taldeari buruz beharrezko informazio guztia emango zaie, eta karpeta bat emango zaie oinarrizko datu eta protokolo guztiekin: egutegia, ordutegiak, ikasleen datuak, haurrak falta direnean jarduteko protokoloak, ordezkapenak, eta abar. Karpeta hori ikasgelan gordeko da, talde horrekin lan egin behar duten pertsona guztientzako oinarrizko informazio gisa.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

Hainbat aztarna daude, gure ikastetxea bertako kideen ongizate pertsonala eta profesionala ahalbidetzen duen lantokia dela pentsarazten digutenak:

- Lekualdatuta ikastetxetik irteten diren irakasleak edo ordezkapenen bat egin dutenak maiz aukera bat duten bezain laster itzultzen dira.

- Erraztasuna komunikazioan eta harreman ona irakasleen eta ikasleen artean eta familien artean.

5. Eranskinak

- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Garapen komunitarioko plan batentzako proposamena.

2.2

Gaitasun pertsonal eta sozialen garapena

HELBURUA:

Ikasleei laguntzea beren garapen pertsonal, sozial eta moralerako behar dituzten gaitasun eta ahalmenak eskuratzeko lanean.

Bizikidetzan pertsona bakoitzak honako arlo hauetako baliabide batzuk praktikan jartzen ditu: jakintza, arrazoitzeko modua, gaitasunak eta estrategiak, eta balioak eta jarrerak. Hau da, gaitasun-multzo bat daukagu, eta horien garapena ezartzen ditugun harremanen kalitatearen mende egongo da.

Bizikidetzan on baterako gaitasunek norabide bikoitza dute: norbere bururakoa eta besteenganakoa. Lehenengoak norbere buruarekin ongi sentitzeko aukera eta gainerakoekin harremanak egiteko gogoia ematen duten *gaitasun pertsonalak* dira: norbere burua ezagutzea, autoestimua, norbere buruarekiko konfiantza, asertibitatea...

Bigarrenak harreman horietan jokoan jartzen ditugun *gaitasun sozialak* dira: enpatia, entzute aktiboa, elkarriketarako eta adostasunerako prestasuna, lankidetz...

Azkenik, gai izatea ez da nahikoa, *garapen moral*a zaintzea funtsezkoa da balio demokratikoetan eta bakearen kulturako balioetan oinarritutako printzipio etikoen arabera jarduteko.

JARDUERAK:

- a) *Adeitasunezko formulak.*
- b) *Gizarte-trebetasunak: elkarriketa, helduekiko harremana, lagunak egitea.*
- c) *Arrazoibidea.*
- d) *Judizio moral.*

1. Abiapuntua

Adeitasuna, gainerakoekiko kontsiderazioa aktibo bat da pertsonen hezkuntzan. Gure ikastetxean harremanak adeitsuak izan daitezzen saiatu gara, eta ikasleei era horretako portaerak irakasten ahalegindu gara. Horregatik, duela urte askotik hona ari gara gaitasun sozialak lantzen.

Lehenik, adeitasun-formulak edo oinarritzko gaitasun sozialak berreskuratu genituen; izan ere, tratu sozialean indarra galtzen ari ziren eta gauza zahar gisa bazterten ziren.

Lehenengo pausoa izan zen harreman positiboak ezartzeko beharrezkoak diren gaitasun pertsonal eta sozialen garapenean eragin handiagoa duen lan baten premia ikustera eramán gintuena. Bizikidetzarako hezkuntzaren alderdi berri bat aztertu nahi izan dugun bakoitzean gaitasun horiek hobetu behar zirela ikusi dugu. Hortaz, gatazken eraldaketa aztertu nahi izan genuenean, ikasleek asertibitate eta enpatia on bat, beren sentimenduak adierazteko gaitasuna, eta modu aktiboan entzuten eta adostasun batera iristeko prest egoten jakitea behar zutela ikusi genuen. Arauak eta horien betetzea azterterakoan, autoestimua eta bulkaden kontrolak eta erregulazioak jokabideetan eragina zutela ikusi genuen, eta askotan eragin erabakigarria dutela. Hortaz, behin eta berriz agertu den gaia da, eta ziklikoki sakondu dugu bertan, arlo honetako adituen laguntzarekin eta emaitza oso erabilgarriak eman dizkiguten irakurketen laguntzarekin tratamendu sistematiko bat eman diogun arte.

Gaitasun pertsonal eta sozialen garapena ez da nahikoa benetako giza garapena gauzatzeko delá bermatzeko. Gure lana ezin zen denekin harreman onak ezartzeko beharrezkoak diren gaitasunak ikasleek edukitzera mugatu, baizik eta jarduten dutenean unibertsaiki onartutako printzipio etikoen arabera jardun behar zutela ikusarazi behar genien. Balio demokratikoetan eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako printzipioak sendotzen saiatzen gara eskolan.

2. Oinarritzko planteamenduak

- Bizikidetzan jokoan jartzen ditugu gure buruarekin (pertsonekin) gaitasunak zein besteekin (gaitasun sozialak) kalitatezko harremanak ezartzeko aukera ematen diguten gaitasunak.

- Autoestimua positiboa behar da norberaren buruarekin eta besteekin harreman positiboak ezartzeko, eta autoestimua baxuak, aldiz, norberaren burua eta besteak suntsitzeko portaerak izatera bultzatzen du. Besteen errekonozimenduak autoestimua indartzen du, eta etxean edo eskolan helduen etengabeko kekek edo norberaren berdin mespretxuek autoestimua txikia izatera bultzatzen dute. Irakaslearen «begiradak» funtsezko papera dauka: kimika naturalaren ginetik, ikasle guztien errekonozimendu eta indartze pertsonaleko profesionaltasuna nagusitu behar da.
- Hizkuntza da pentsamendu arrazional eta logikoaren barne erregulatuzailea: ahozko bitartekotzak erraztu egiten du hizkuntzaren zeregin inhibitzailea barneratzea, erreakzio inportanteak asoziatiboak blokeatzeko balio duena, bai eremu kognitiboan bai eremu sozialean. Arazo baten aurrean, hizkuntzaren bitartez arazoaren kausak, konponbideak eta ondorioak adieraz ditzakegu, betiere erabaki arrazionalena hartzeko.
- Bizikidetzan oinarritzea da portaerak printzipio etikoetara egokitzea. Sozialki onargarria den portaera ikastean eta ingurune desberdinetan haurren inguruan dauden pertsonen transmititutako arau eta balioak beren gain hartzean eta barneratzean oinarritzen da garapen moralak.
- Ekintza hezitzailearen asmoa zera da, ikasle bakoitzari eta talde osoari laguntzea eta bultzatzea heteronomiatik autonomiara aldatzeko, eta NI pentsatu ordez GU pentsatzeko, erantzukizunean aurrera egiteko beren ekintzen ondorioak beren gain hartuta, eta, azkenik, beren ekintzak printzipio etiko jakin batzuei doitu behar zaizkiela kontuan hartzeko; horretarako, beren ekintzei buruzko judizio moral bat egiten jakin beharko dute.
- Irakasleak eredu-papera dauka ikasleen aurrean. Alderdi kognitiboak lantzeaz gain, arazoak eta zentzu moralarekin jarduteko egoerak ahalbidetu behar dira.

3. Programaren garapena

a) Adeitasunezko formulak

Harremanak adeitsuak izatea lortzeko, lehen pausoa besteengana errespetuz zuzentzen jakitea da, hau da, harremanak ditugun pertsonenganako jarrera positiboa adierazten jakitea.

Gaur egun, gaitasun horiek lantzen dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan, beste pertsonengana zuzentzen direnean portatzeko eredu gisa balio duten adibide praktikoekin, M.^a Inés Monjas andreak *Gizarteratzeko gaitasunen Programan* proposatzen dituen jarraibideei jarraituta: aurpegira begiratzea, irri eta barre egitea, agurtzea (ohiko formulak, besarkada, muxua, eta abar), mesedez eskatzea, eskertzea, barkamena eskatzea, goraiatzea, etab.

Ondorengo zikloetan, ikasturtearen hasieran gogorarazten dira, nahiko sendotua dagoen jardunbide bat indartzeko. Eta, ikasturte guztietan saiatu egiten dira formula horiek normaltasunez erabiltzen, bai ikasleek helduekin duten tratuan, bai beren artean.

c) Gaitasun sozialak

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntza amaitzen den arte, talde-tutoretzako plan bat garatzen dugu testuinguru desberdinetako gaitasun sozialak lantzeko. 2006-07 ikasturtean, asteko saioak baliatu ditugu horretarako, bi hilabetez.

- *Elkarrizketarako gaitasunak*

Entzute aktiboaren ikasketarako arreta-jolasak erabiltzen ditugu lehen ikasturteetan. Arreta galdu gabe entzutea da, ahoz jasotzen dituzten jarraibideei jarraitzea, eta xehetasunak kontuan hartzea (adierazpen motak, tonua, keinuak, gorputz-adierazpenak eta abar). Elkarrizketa lantzen dugu, honako hauek jakin ditzaten: esku hartzea, txanda gordetzea, sor daitezkeen gaizkiulertuak, entzutezko asoziazioa, besteen elkarrizketetan sartzea, etab.

- *Helduekiko harremanarentzat*

Haurrei irakasten diegu helduekin harremanak nola egin behar dituzten: adeitasunezko formulak, zukako eta hikako erabilerak, adierazten duten jarrera; helduen elkarrizketetan esku-hartzeko modua: ueña erabaki, esaten diotena ulertzea, azalpenak eskatzea, nahiak eta iritziak adieraztea; helduei eskaerak egiteko modua eta helduen eskaerei erantzuteko modua; kexa bat aurkezteko modua; helduekin arazo bat konpontzeko modua.

- *Lagunak egiteko*

Harreman sozialetan funtsezkoa da lagunak egiten eta lagunak edukitzen edo kontserbatzen jakitea. Ezagutzako eta errekonozimenduko jarduerak egiten ditugu, lagun berri ba-

ten aurrean aurkezten eta horri beste lagun batzuk aurkezten ikas dezaten; jolas batean sartzen ikas dezaten, elkarri ezagutzen eta besteak ezagutzen ikas dezaten. Eta baita lagunekin adeitasunezko formulak erabiltzen, laguntza eskatzen eta ezetz esaten ikas dezaten ere.

c) Arrazoibidea

Hizkuntzaren funtzioa da pentsamendu arrazionala eta logikoa erregulatzea. Funtzio hori «hitzezko bitartekotza» deitzen da: normalean bostetik zazpi urtera bitarteko adinarekin garatzen da. Aurreko urteetan, portaera bera erregulatzen hasten dira, aginduak ozen emanda, baina ez zaie jaramonik egiten isilik ematen diren aginduei (ezta zurrumuru moduan emandakoei ere); 5etik 7 urtera bitarte, haur gehienek beren portaera inhibitzen eta erregulatzen ikasten dute, barruko eta isilpeko hitzezko jarduera baten bitartez; jarduera hori geroz eta automatikoagoa egingo da adinez helduak direnean. Haur Hezkuntzan hasten dugu prozesua, ikasleek *galdera magiko* batzuei erantzutea zainduta: Zer egin dut? Zergatik? Zer moduz egin dut? Zein da emaitza? Zer egin dezaket?

Arrazoibideak funtsezko papera dauka harreman sozialetan. Pertsonen arteko harremanetarako beharrezkoak diren pentsamendu horiek bost dira:

- Kausazko pentsamendua arazoa non dagoen zehazteko eta adierazteko gaitasuna da.
- Pentsamendu alternatiboa egon daitezkeen konponbideen kopurua handitzeko gaitasuna da, betiere arazoa adierazi ondoren.
- Ondoriozko pentsamendua norberaren eta besteen ekintzen eta esanen ondorioak aurreikusteko gaitasuna da.
- Ikuspegizko pentsamendua bestearen tokian jartzeko eta egozentrismotik irteteko gaitasuna da.
- Bitarteko/helburu pentsamendua gure helburuak zehazteko eta horiek lortzeko bitartekari onenak hautatzen jakiteko gaitasuna da.

Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik lantzen da prozesu hori, eta erreakzio batek izan ditzakeen kausen bilaketarekin eta horien ondorioen errekonozimenduarekin hasten da. Gero, portaera baten kausak eta ondorioak errekonozitzeaz gain, ikasleek beste auke-

rak eta aukera bakoitzak izan ditzakeen ondorioak adierazi beharko dituzte, eta baita, hori oinarritzat hartuta, arrazoitutako eta arrazoizko hautaketa egiteko eska litekeen konponbidea ere. Azkenik, ikasleei proposatzen zaie besteen tokian jartzea (*empatia*), bestearen ikuspegitik ikusteko egoera, eta huts egindako egoeretan segurtasunez erantzuten jakitea.

Prozesu kognitibo hau simulatutako kasuetan oinarritzen da, eta jardun koherente baten bitartez osatu behar da kasu errealetan. Ikasle batek ikasgelaren dinamikan ondorio negatiboak dituzten oldarkortasunezko eta indarkeriazko emozio-erreakzioak dituenean, taldetik bereiztea erabakitzen dugu, lasaitzeko baino, bere portaera arrazionalizatzen laguntzeko, berarentzako eta talde osoarentzako ondorio hobeekin beste modu batean jarduteko aukera ere bazuela uler dezan. Era horretan, ikasleak bere akatsa onartzeko eta eragindako ondorio negatiboak konpontzeko beharra ikusteko unea iristen da. Hori izango da bete beharko duen zigorra.

Ikasle batzuek narriadura afektiboa dute, izan ere larritasun handiko portaera disruptibo horiek maiz errepikatzen dira. Emozioak kontrolatzeko laguntzak espezializazioa eta jarraitasuna behar duela pentsatu dugu. Hortaz, «*pentsatxoko*» bat ezartzea pentsatu dugu, pentsatzeko txoko bat, eta bertan beti irakasle bat egongo da, behar bezala prestatua, beste irakasle batek eskatzen duenean zeregin hori egiteko. 2007-08 ikasturtearen hasieratik, baliabide hori eta irakasle-talde baten prestakuntza egokia abiarazteko prest gaude.

d) Judizio moralak

Gaitasun sozialak menderatzeak aukera ematen digu besteekin harremanak egin behar ditugun egoerak eraginkortasunez maneiatzeko. Baina, horretaz gain, gaitasun horiek printzipio etikoak errespetatuta erabili behar ditugu, gure portaera ere zintzoa izan dadin.

Eskola-arauei buruzko programan garapen moralerako funtsezkoak diren alderdi asko landu ditugu. Programa honen barruan, ikasleei judizio moralak irakasteko hirugarren zikloan gauzatzen ditugun jarduerak barne hartu ditugu, hau da, giza portaerak eta gure portaerak inspiratzen dituzten balio eta printzipio etikoei buruz hausnartzen ikasteko jarduerak. Horretarako, taldeari dilema batzuk aurkezten zaizkio, operazioen azpian dauden balioak errekonozitzea eta giza duintasunarekin eta giza eskubideekin bat datozenak hautatzea eskatzen dutenak.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

- Ikusi dugunez, aldaketa nabarmena gertatzen ari da haurrek kortesiazko formulak erabiltzeko moduan (guk oinarrizko gaitasun gisa ikusten ditugu), batez ere helduekin.
- Gaitasun sozialak ikasleengan igartzen hasi dira, eta eskolako egoera eta jarduera askotan praktikan jartzen dituztela ikus dezakegu.

5. Eranskinak

- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Talde-tutoretzako saioren fitxak.

2.3

Pertsona eta kultura aniztasuna

HELBURUA:

Desberdintasuna eta multikulturalitatea bizikidetzarako balioak diren eskola-komunitate baterantz aurrera egitea.

Bizikidetzaren ikasketan funtsezkoa da bestea onartzen jakitea, pertsona guztiak berdina direla oinarritzat hartuta eta indibidualitate desberdinak errespetatuta, izan ere «denak desberdinak gara, baina garrantzi berekoak».

Ikastetxean beren ezaugarri eta gaitasun pertsonalengatik desberdinak diren pertsonak elkarrekin bizi dira, eta aniztasuna edo dibertsitatea dago honako alderdi hauei dagokienez: izaera, janzkera, sentitzeko modua, ikasteko modua, besteekin harremanak egiteko modua, etab. Ingurune oso interesgarria da desberdina den pertsona onartzen ikasteko, horrekin harremanak egiten ikasteko, eta besteekin lan egiten ikasteko, betiere aniztasuna onartuta.

Ikasle atzerritarrak iristerakoan, aniztasunaren beste forma bat ikusi dugu, kultura-dibertsitatea eta aberats diezaguketen desberdintasunak deskubritzeko dibertsitatea, hain zuzen.

Honako helburu hauek ditugu:

- *Desberdintasun indibidualen errespetuan*, lankidetzan, elkarrekiko laguntzan eta elkartasunean aurrera egitea, eskola inklusiboaren ildotik.
- *Kultura-aniztasuna*, elkarrekiko ezagutza eta elkarriketa errespetatu eta aintzat hartzea, kultura arteko hezkuntzaren ildotik.
- *Balio eta kultura-oinarri komunak barne hartzea.*

JARDUERAK:

- Desberdintasunari buruzko lan didaktikoa.*
- Beste kultura batzuk ezagutu eta errespetatzea.*
- Ikasle atzerritarrentzako arreta.*

1. Abiapuntua

Abusu auzoa —eta, beraz, eskola— beti egon da aniztasunera irekia. Duela urte askoz geroztik EAera iristen diren etorkinak jaso ditu; lehen Espainiako beste erkidegoetatik etortzen ziren, eta orain beste herrialdeetatik. Horren ondorioz, dibertsitatea fenomeno natural gisa artatu eta onartzeko sentsibilizazioa sortu zen, eta beraz ahal genuen erantzun onena eman behar genion.

Gure ikastetxeak pentsatu zuen gure ikasleei euskal gizartearen hizkuntza- eta kultura-oinarriak eman behar zizkiela, baldintza berberetan gizartera zitezen. Euskarazko ikasketa garaiz sartu genuen, eta, gaur egun, ikasketak euskarazko erudian eta eredu elebidunean ematen dira.

1983-84 ikasturteak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak sartu dira ikastetxean, hala nola ezintasun fisikoak, sentsorialak eta psikikoak dituzten ikasleak.

Ikasleen dibertsitatea handitu egin da familietan gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, bai familia-egituran, geroz eta ikasle gehiago eraginpean hartzen dituzten aldaketak izanik, bai familia guztietan berdina izan ez den garapenean gertatutako aldaketen ondorioz. Bestalde, ikasleen ezaugarri pertsonalen, izateko modu desberdinen eta ikasteko modu desberdinen ondorioz, ikasleek dituzten hezkuntza-premien gaineko arreta izan behar genuela geroz eta argiago ikusi dugu.

Ikasle atzerritarrak etortzeak begibistakoa bihurtu du kultura-dibertsitatea, izan ere ikasle horiek 17 nazionalitatetakoak baitira. Guretzako arazo berri bat topatu genuen, hain zuzen ere kulturen bizikidetzeta, edo kulturartekotasuna.

Geroz eta gehiago nabarmentzen den dibertsitatearen handitze progresibo horren ondorioz, balio gisa berdintasunaren eta desberdintasunaren gaia berriro aztertu genuen, eta baita desberdina dena sistematikoki errespetatzearen gaia ere. Betiere ahaztu gabe askotan desberdintasuna ezberdintasun bihurtzen dela, hau da, eskola-hezkuntzaren bitartez gaintzeko lagun dezakegun eta lagundu behar dugun egoera.

2. Oinarrizko planteamenduak

Pertsonen eta kulturen aniztasuna handitzen ari den inguru batean gure jarduna zuzendu behar duten oinarriak ulertzen eta horietan sakontzen saiatu gara gure hausnarketan:

- Besteak onartzea funtsezkoa da bizikidetzarako hezkuntzan. Pertsona guztien berdintasunaren aitopeneke eta desberdintasun indibidualaren errespetuko balioak daude jokoan.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza bereziki honako jarrera hauek landu behar ditugu: diskriminazioa aztertzea eguneroko harremanetan, ohiko adierazpenetan, kalteak, gure portaera (ukatzea, mespretxua, beldurra) desberdinak direnekiko, beren itxura fisikoagatik, sexuagatik, eskola-egoeragatik, jatorri etnikoagatik, etab.
- Guk zera erabiltzen dugu, «kultura-kontzeptu zabala eta dinamikoa, honako hauen multzo gisa: balioak, ulertzeko moduak eta errealitatera egokitze moduak, ohi-turak, antolamendua, espazioaren eta denboraren egituraketa, botere-harremanak, elkarreragiteko jarraibideak, eta arauak». Kultura modu desberdinetan adierazten da eguneroko bizitzan eta, bereziki, unibertso sinboliko baten bitartez (kontakizunak, mitoak eta legendak, forma plastikoak, abestiak, dantzak, jokoak, festak).
- Desberdintasuna ez da errespetatzen, gurea dena besteena baino hobea dela balioesten edo kontsideratzen dugunean bakarrik, gutxiengoan daudenek gehiengoaren pentsatzeko eta jarduteko modua onartu behar dutela uste dugunean (asimilazioa), edota sexuaren, etniaren edo kulturaren arabera banatutako eta urrundutako taldeak ezartzen direnean (multikulturalitatea).
- Ikastetxean pertsona guztiak barnean hartzen dituen komunitate bat sortu behar dugu, onartua izango dela konfiantza izanik bakoitzak bere burua adieraz dezakeen eta denak beren portaerak aldatzeko eta beren aurreiritziak gainditzeko prest dauden giro bat sortzeko asmoarekin lan eginez. Hezkuntza-lanean funtsezkoa da ikasle bakoitzaren gaitasunak, jakintzak eta hezkuntza-premiak ikustea eta horien guztien gaineko aurreikuspen positiboak izatea.
- Eskola-egiturek eskola inklusibo baten eskaerak bete behar dituzte (denetarik eta denentzat): taldeen heterogeneotasuna, elkarreragina eta elkarren arteko lana ikasgeletan, ikasle bakoitzaren arreta indibidualizatua, eta kultura arteko hezkuntza.

3. Programaren garapena

a) Desberdintasunari buruzko lan didaktikoa

Desberdintasunaren baitako berdintasunak eta dibertsitatearen aberastasunak zer esan nahi duen jorratzen dugu. Pertsona guztiekiko errespetu-jarrerak bultzatzen saiatzen gara,

eta arreta berezia jartzen dugu honako hauek saihesteko: itxura fisikoagatik desberdinak direnen aurkako diskriminazio-jarrerak, nesken eta mutilen artekoak, nagusien larderiak txikien aurrean, etab.

Proiektu osoaren helburua da ikasle desberdinak integratzea, denak berdinak direla aintzat hartuta, diskriminaziorik gabe, eta pertsona indibidualaren ezaugarri bereizleak errespetatuta eta balioetsita. Horregatik, hemen ez ditugu jarduera espezifikokoak barne hartzen, gainerako programetan barne hartzen diren jarduera askok helburu hau baitute, bereziki «Talde-kohesioa eta taldean integratzeko» programan.

b) Beste kultura batzuk ezagutu eta errespetatzea

Ikasgelan kultura-aniztasunera hurbiltzeko, errespetatzeko eta balioesteko ohiko lan bat dago, eta harremanetan eta eskolako lana antolatzeko moduan ez bezala, curriculumezko eduki askoren ikuspegiari ikusarazi nahi da. Jardun hau indartzen saiatu gara, neurri handi batean guztion inguruan dagoen munduko kultura-aniztasunaren aurrean sentsibilizazio handiagoa eta hurbilketa biziagoa izateko laguntzen duten jardun jakin batzuen bitartez.

2000-01 ikasturtean, Intermonen kanpaina batean parte hartu genuen, *munduko jolasak* praktikatuta beste kultura batzuetara hurbiltzeko. Ikasleak multikulturalitatera hurbiltzeko modu interesgarri bat zela ikusi genuen. Hurrengo urtean munduko jolasen astea antolatu genuen gure kabuz. Ikasleen harrera ona aintzat hartuta, jarduera hori zabaldu genuen antolatzen ditugun jolasen barruan sartu arte, eskolako patioaren programan azaldu genuen moduan; programa horrek aukera ematen du kultura-adierazpen desberdinak ezagutzeko eta, helburu horrekin, zertxobait hobeto ezagutzeko.

Ikasle guztien funtsezko zeregina da beren eskolakide atzerritarrei harrera eta laguntza ematea, bai hizkuntzaren ikasketan bai eskolako ikasketaren multzoan. Bestelako ekimenen artean, kasu desberdinetan eta toki desberdinetan (adibidez, ingurumenaren informazioari buruzko txoko berdea), testuak gaineratzen dira ikasleen hizkuntzeekin, ikasleei onartuak sentitzen laguntzeko eta aldi berean ikastetxeko ikasle guztiei laguntzeko haiek, berdintasunez, eskola-komunitateko kide gisa balioetsi ditzaten.

Eskolako festak beti izan dira une aproposak elkarrekin bizi eta ikasteko, jolas-testu inguru batean. 2003-04 ikasturtetik, beste herrialde batzuetatik beste kultura-tradizio batzuekin etorritako ikasle eta familien ekarpenekin aberastu dira.

Liburuaren astea une garrantzitsua da ikasleek ipuinak, kontakizunak, poesiak, eta beste kulturetako abestiak entzun eta irakurtzeko. Gure ikastetxean dauden kultura desberdineko familiak gonbidatzen ditugu ikasle guztiei beren herrialdeetako istorioak eta legendak konta diezaizkieten, eta oso gustura parte hartzen dute denek. Kontakizunak jatorrizko hizkuntzan egiten dira eta, gero, itzuli egiten dituzte. Kasu batzuetan, amak arduratzen dira itzulpena egiteaz, eta beste kasu batzuetan ikasleek egiten dute, aldez aurretik etxean beren gurasoek prestatuta.

Ikasturte amaierako festa beste une aproposa da ikasle eta familia atzerritarrak ikastetxean ikusteko. Familien ongietorriarako kartela euskaraz eta gazteleraz idazteaz gain, ikastetxeko ikasle guztien hizkuntzetan idazten da. Patioaren zona desberdinetan bost kontinenteetako jokoak, dantzak eta musikak antolatzen dira. Lehen urtean (2005), talde bakoitzak bere herrialdeko berezko janariak ekarri zituen, pintxo moduan, denek dastatu ahal izateko. Bigarren urtean (2006) tailerrak antolatu ziren, honako gai hauekin: Afrikako maskarak eta ilekordak, Txinako dragoiak eta Asiako mandalak, hispanoamerikako euri-makilak, Europako zirindolak; eta, horretaz gain, hainbat herrialdeetako dokumentalak eskaini ziren.

Era berean, kultura arteko elkarrizketan sakontzeko baliabide oso interesgarri bat aurkitu dugu interneten. Beren borondatez informatika-eskoletara joaten dira 6. mailako ia ikasle guztiak, eskolaz kanpoko ordutegian. Esparru hau aprobetxatu genuen 2000-01 ikasturtean *beste herrialdeetako neska eta mutilekin posta bidezko harremana* izateko. Hego Amerikan ibili ginen bilaka, gazteleraz komunikatzeko abantailarengatik. Colegio Bilbao izeneko ikastetxe bat aurkitu genuen Mexikon, eta ikastetxe horretako ikasleekin posta bidezko harremana izatea erabaki genuen, eta oso gustura onetsi zuten. Beren herrialdeetako ipuinak, istorioak, kontakizunak eta argazkiak bidaltzen dizkigute, beste bizimodu batzuk ezagutzen dituzte, errealitatera egokitzeko beste modu batzuk, kultura-desberdintasunak deskubritzen dituzte, eta aldi berean gertu sentitzen dira, adinagatik eta interes komun askorengatik.

Esperientzia horrekin, 2005-06 ikasturtean Intermon Oxfamen *Munduak konektatzen* proposamenean eman genuen izena. Taldeen lanean 6. mailako ikasleek parte hartu zuten eta informatikako irakasleak koordinatu zuen. Esperientzia horretan mundu osoko herrialdeetako bizimoduak ezagutzeko konektatzen dira. Ikasturte bakoitzean gai bat aztertzen dute: 05-06 ikasturtean etxebizitza izan zen, eta 06-07 ikasturtean ura. Tutoreek beren taldeko ikasleei laguntzen diete proposatzen dizkieten jarduerak betetzeko behar duten informazioa bilatzeko, eta informatikako eskolan beste herrialdeetako ikastetxeetara bidaltzen dituzte.

Helduen Hezkuntza ikastetxera atzerriko pertsona heldu asko joaten dira gaztelera ikaste-ko programetara, eta ikastetxeak beste aukera bat eman digu. 5. mailako ikasleek aukera izan dute bertan ikasten duten pertsonen erabiltzen dituzten hainbat hizkuntza eta idaz-kerak ezagutzeko; izan ere, pertsona horiek hainbat hizkuntzako karakteretan idatzi di- tuzte neska-mutilen izenak. Kartelak publikoki erakutsi zituzten.

c) Ikasle atzerritarrentzako arreta

Hezkuntza-komunitatea ikasle atzerritarrak hartzen eta integratzen saiatzen da, bereziki ikasketa-maila aurreratuetan eskolatzen direnean edo taldearekin eskola-zereginen nor- maltasunez parte hartzeko zailtasunak dituztenean.

- *Eskolako harrera eta integrazioa*

Taldeak talde gisa jada urteak daramatzanean —orain, gehien gertatzen dena da, baina ez etorkin atzerritarrekin bakarrik— eta, are gehiago, jada ikasturtea hasi denean ikasleak eskolatzen badira, une oso delikatuak da ikaslearentzat, eta kontu handiz lan egin nahi dugu bertan. Protokolo bat daukagu eraginpeko guztiek nola jardun behar duten jakin de- zaten.

Familia bat bere semea edo alaba matrikulatzeko ikastetxera joaten denean, hizkuntza-errefortzuko irakasleak artatzen du. Gaztelera ez badakite eta interprete-lana egin de- zakeen pertsona batekin etortzen ez badira, lan hori egin dezakeen norbait bilatzen dugu. Irakasle berak prestatzen du ikaslearen ikastetxerako sarrera: ikasleari buruzko informa- zioa, horren jatorriari eta kulturari buruzko informazioa, eta eskolatzearen ezaugarriei buruzko informazioa ematen dio tutoreari. Tutoreak taldea prestatzen du kide berria jaso- tzeko, eta lehenengo egunetan gida-lana egingo duen kide bat izendatzen du. Ikasle be- rria ikastetxera iristen den egunean, hizkuntza-errefortzuko irakasleak ikasgelara lagun- tzen dio, eta tutorea eta lagunduko dion kidea aurkezten dizkio.

Lehenengo urteetan, gure ikastetxean, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako le- hen zikloan bakarrik eskolatzen ziren ikasle atzerritarrak. Ikasle horiek ikastetxean di- tugun B (elebiduna) zein D (euskara) ereduetan eskola ditzakegu, arazo berezirik gabe. Soilik duela hiru urte hasi dira ikasle atzerritarrak matrikulatzen bigarren edo hirugarren zikloan. Ikasle horien kasuan, hizkuntza-arloko arazoak handitu egiten dira adinarekin,

ikasketak euskaraz eta gazteleraz normaltasun osoz egiteko aukera ematen duten euskarako eta gaztelerako gaitasun-maila lortzen duten arte.

Hizkuntza-errefortzuko irakaslea euskararen irakaskuntzaz arduratzen da pertsonalki — eta baita gazteleraren irakaskuntzaz ere, familia-hizkuntza gisa ez dutenentzat—. Ikastetxean bigarren edo hirugarren zikloan sartzen diren ikasleen inguruan dugun esperientzia oraindik motza bada ere, egiaztatu dugu denbora laburrean eskolakideekin ulertzeri iristen diren arren, hiru ikasturte inguru behar dituztela gazteleran maila nahikoa lortzeko, eta are denbora gehiago euskara ondo jakiteko.

Hizkuntza-errefortzuko irakaslearen zeregina da ikastetxera iristen den ikaslearen egoera, hizkuntza-gaitasunak eta instrumentalak, eta familiako egoera eta egoera pertsonala ezagutzea. Tutorearekin plan egokia prestatzen du lehenbailehen taldeko lanean sar dadin. Normalean irakasle batek bere gain hartzen du «tutore afektiboaren» zeregina, eta pertsonalki arreta emateaz, ikasketako eta bizikidetzako arazoak ezagutzeaz, eta laguntza egokienak bilatzeaz arduratzen da. Behar dituen laguntzak normalean ikasgelaren barruan jasotzen ditu, laguntza behar duten beste ikasleen baldintza berberetan, eta soilik beharrezkoa denean irteten dira ikasgelatik arreta indibidualizatua jasotzeko. Errefortzualdeetan parte har dezaten saiatzen gara, beren lanak Liburutegian egin ditzaten, irakasle arduradunaren arreta eskuratzeko aukera izateko, eta Udalak antolatutako udalekuetan parte hartzea nahi dugu, beren adineko haurrekin harremanak egiteko aukera izan dezaten, hizkuntza-ikasketa bultzatuz.

Ikasle horien onespenez prozesu bat jarraitzen du:

- Lehenengo fasean taldeko kide berriari harrera egokia ematen zaio, berria delako eta pertsona ezezagun bat ezagutzea dakarelako, eta, gainera, besteekin harremanak errazten dizkion eskolakidea dauka.
- Bigarren fasea zailena izan ohi da, eta gure esku-hartzea eskatzen duten urruntzeak, bazterkeriaren bat eta, kasu batzuetan, iruzkin arrazistak gertatzen dira.
- Hirugarren fasea eskola-integratioko fase gisa izenda dezakeguna da, hau da, normaltasuneko gainerako eskolakideekiko harremanetan.

Bizikidetzaproiektuak erraztu egiten du ikasle horien eskola-integratioko prozesua; izan ere, integratio hori azkarragoa eta eraginkorragoa izateko beharrezkoak diren gaitasun eta jarretako asko lantzen dira proiektu horretan.

- *Familiekiko harremana*

Arreta berezia jartzen dugu ikasle atzerritarren familiekin, bereziki Euskal Autonomia Erkidegora iritsi berri direnean. Familiak gonbidatzen ditugu familien topaketa eta bileretan parte hartzera, eta baita familiek ikastetxearekin egiten dituzten lankidetzajardueretan parte hartzera ere, bereziki liburuaren astean eta festa kolektiboetan. Hizkuntza-errefortzuko irakaslea arduratzen da familiei arreta emateaz horien seme-alabekin lotutako eskaera eta arazoek kasuetan. Era berean, irakasle horrek beste zeregin batzuk bere gain hartzen ditu ikasle atzerritarren harrera eta eskola-integrazioko prozesuan: arreta eta informazioa ematen die familiei, eta ikastetxearekin lotura gisa baliagarria zaie, beren seme-alaben eskolatzearekin lotuta ager daitezkeen arazoak konpontzeko.

Harremana desberdina da talde etnikoen arabera. Talde batzuk irekiak dira eta laguntza ematen dute, eta beste batzuk, aldiz, hizkuntza ez jakiteagatik edo komunitate itxiak osatzeagatik, komunikazio zailagoa dute. Jatorri atzerritarra duten familiek etorkizunearako aurreikuspenak dituzte eta oso positiboki balioesten dute eskolak beren seme-alabei eskaintzen diena.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

- Hezkuntza-komunitatea pertsona desberdinentzat irekitzen da. Pertsonen eta kulturen aniztasuna, eta horien gaitasunak eta jakintzak aitortu, errespetatu eta baliostearen garrantzia ulertzen dute, eta baita jarrera diskriminatzaile edo baztertzaileetan ez erortzeko premia ere.
- Programa guztietan arreta eta zaintza berezia jarri dugu nesken eta mutilen presentzia-berdintasunean, eta baita jarrera eta jardun diskriminatzaileak gertatzen diren egoeretan ere.
- Ikasleek beren adineko beste neska eta mutilekin munduaren aniztasun handia deskubritzeak duen interes hezitzailea balioesten dugu, askotan bereizkeriako egoerak eragiten dituena. Era berean, gure ustez interes hezitzaile handia dauka denek antzeko kezka ditugula jakiteak, nahiz eta bakoitzak bizi den inguruko arazoei aurre egin behar dien, betiere kontuan hartuta pertsona bakoitza bere bizimoduaren eta eskura dituen baliabideen erabileran egokitu behar dela inguru horretara.

- Familia kopuru handi batek eskolako festetan eta ikastetxean antolatzen diren beste jardunetan parte hartzeak eta laguntzeak bide baliagarria ematen du kultura desberdineko familien hurbilketarako eta ulermenerako.

5. Eranskinak

- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Desberdintasunari buruzko unitate didaktikoa.
- Ikasle atzerritarren harrera-protokoloa.

3

HARREMANAK ZAINTZEN DITUGU

Bizikidetzan pertsonen arteko harremanak ezartzen dira. Elkarrekin bizitzen ikastea besteekin harreman positiboak egiten ikastea da.

Eskola-eremuan, beste eremuen moduan, harremanak testuinguru baten barruan egiten dira, eta gure kasuan, taldearen barruan. Harreman positiboek esker talde-kohesioa eta bakoitza taldean integratzea lortzen da.

Kideek adostutako eta onartutako arau batzuk behar ditu taldeak. Arau horiek betetzeak segurtasuna ematen du eta harremanak errazten ditu. Arauak ez betetzea kaltegarria da, aitortu eta konpondu behar den kaltea.

Horrek ez du esan nahi gatazkak sortu ezin direnik, izan ere pertsonak gertakari baten aurrean dituzten helburuak eta bizipenak kontrajarriak izan daitezke. Bizikidetzan on bat lortzeko, gatazka horiek ikasketarako eta bizikidetzaren hobekuntzarako egoera bihurtzen jakin behar da.

Bloke horretan lau programa barne hartzen ditugu, honako ikasketa hauetarako:

- Taldearen kohesioa eta kide guztien integrazioa lantzea.
- Adostasuna praktikan jartzea arauak lantzerakoan, eta arau horiek betetzeko beharra.
- Gatazkak pertsona arteko harremanak hobetzeko eta horietan sakontzeko une bihurtzea.
- Eskolako patioa hezkuntza-espazio bihurtzea, ikasleek gainerako programetan ikasten dutenarekin bat datozen pertsona arteko harremanak autonomia gehiagorekin landu ditzaten.

3.1

Talde kohesioa eta ikasleen integrazioa taldean eta ikastetxean

HELBURUA:

Taldearen barne-kohesioa ahalbidetzea, eta ikasle guztiak integratuak egon daitezzen eta taldeko eta ikastetxeko kide senti daitezzen laguntzea.

Taldea eskolako oinarrizko bizikidetzatokia da. Denok laguntzen dugu taldeak dibertsitatearen aberastasuna eta berdintasunezko elkartearen indarra izan dezan. Taldearen kohesioak eta dinamikak bakarka lortu ezin diren garapen pertsonaleko aukera berriak irekitzen dituzte. Horregatik, oso garrantzitsua da kide bakoitza taldean integratua sentitzea eta taldearen bizitza kolektiboan parte hartzea. Denon erantzukizuna da inor baztertua ez sentitzea, eta ezta taldean diskriminatua ere.

Bi norabidetan jardutea garrantzitsua iruditzen zaigu:

- Taldean kohesioa egotea eta taldeko kide guztiak proiektu kolektiboetan parte hartzea, horrek dakarren aberaste pertsonalarekin;
- Taldearen barruan ikaslerik ez isolatzea, diskriminatzea edo baztertzea, edo bere berdinen eskutiko tratu txarrik ez pairatzea.

JARDUERAK:

- a) Taldearen egoera, eta taldekideen egoera taldearen barruan.*
- b) Esku-hartze hezitzailea taldean integratzeko.*
- c) Kohesioa eta taldeko kide sentitzea.*

1. Abiapuntua

Beti kontuan izan dugu ikasleek talde bat osatzen dutela, eta pertsonak taldean ikasten dutela eta hezten eta garatzen direla. Ikasleren bat diskriminatua, isolatua eta taldean baztertua sentitzeak edo kideren baten tratu txarrak pairatzeak kezkatzen gaitu. Egoera horiek bizi dituzten pertsonak atzemateko lanari eta horien zirkunstantzien analisiari ekin diogu, hezkuntza-tratamendu egokia emate aldera.

Sentsibilizazio kolektiboak aurrera egin duen heinean, arazoaren gainean genuen ikuspegi-a zabaldu dugu. Arreta ez dugu soilik sufritzen dutenen gainean jartzen, baizik eta baita beren kideei sufrimendua eragiten dietenen gainean eta gertakari horien lekuko mutu eta pasiboen gainean ere. Gure lanean aurrera egin dugu, Rosario Ortegak *La Convivencia escolar* liburuan emandako jarraibideen ildotik.

Aholkulariaren laguntzarekin eta irakasle guztien lankidetzarekin, tutoreak arreta mantentzeaz arduratzen dira, egoera horiek gerta ez daitezen edo horietako bate edo bat atzematen den bezain laster jarduteko.

Oso kezagarria suertatu zitzaigun kasu bat gertatu zenean, oso lagungarria izan zen Madrileko Erkidegoak editatutako bideo bat, kideen arteko isolatze edo bazterkeriako eszenak aurkezten zituena, hitzik gabe, baina adierazpen-indar handiarekin. Orain baliabide arrunt gisa erabiltzen dugu bideo hori.

Programaren garapenean, irakasleek taldearen kohesioa indartzeko beharra aztertzen ari ginen arazoaren beste alderdi baten antzera ikusi zuten. Taldearen kohesioak zerikusi handia dauka taldeko kide sentitzearekin eta zeregin kolektiboetan inplikatzarekin. Talde-kontzientzia indartzeak taldekide guztiei laguntzen die beren garapen pertsonalean. Kohesio indartsua duen taldea da gehien bermatzen duena ezein kidek ez duela besteen bazterkeria pairatuko eta inork ez dituela bere kideak baztertuko.

Talde-kohesioaren garrantziari eta balioari buruz eta kide sentitzea sendotzeko moduari buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko egiten ditugun tutoretza-saioak zabaldu eta aberastu ditugu.

2. Oinarrizko planteamenduak

- Haurren sozializaziorako espazio oso garrantzitsua da eskola. Neurri handi batean eskola-bizitzan beren nortasuna lantzen dute, beren berdinekin, helduekin eta munduarekin lotuta beren buruaren pertzepzioa.
- Lan handia egiten dugu taldea modu kohesionatuan elkarbizi dadin eta haurrek bazterkeriarik edo diskriminaziorik senti ez dezaten, betiere portaera horiek eragin dituzten kausa pertsonalak, familiakoak eta sozialak eta mekanismo psikologikoak kontuan hartuta. Soilik era horretan planteatu ahal izango dugu gure esku-hartze hezitzailea, hobetzeko aurreikuspenarekin.
- Gure esku-hartzeek, alde batetik, arazoei konponbidea bilatzeko dimentsio pragmatikoa dute, eta, beste aldetik, hezkuntza-dimentsioa, ezaugarri fisikoen, izaerako ezaugarrien, ikasteko erritmoen ezaugarrien, sexu-orientazioko ezaugarrien eta bestelako ezaugarrien dibertsitatea errespetatzeko balioen sozializaziorako dimentsioa.
- Honako egoera hauek zer esan nahi duten jabetzea nahi dugu: gaizki tratatua izatea, lekuko pasiboa izatea, gaizki tratatzen duena izatea edo biktima izatea, eta dinamika horiek guztiak gizartearen esparruko egoera konplexuagoetan aplikatu daitezkeela.
- Modu hezitzailean esku hartzeko, eguneroko bizitzan aurki daitezkeen eredu negatiboak aztertzea komeni da: nagusikeria-ereduak, eta edozein motatako indarkeria (hitzezkoa, psikologikoa, fisikoa) erabiltzeko ereduak; beren inguruan gertatzen diren egitate larrien aurrean itsu eta mutu geratzen direnen eta inhibitzen direnen ereduak.
- Taldeak dituen dimentsioei esker taldea osatzen duten kideak aberasten ditu. Hala da, betiere taldea ondo kohesionatua badago, eta taldearen barruan partaidetzako, helburu bateratuko eta zeregin kolektiboko dinamika batzuk sortzen badira, bakoitzak bere gaitasunekin eta ahalegin pertsonalarekin ahalbidetzen dituen dinamikak izanik.
- Talde baten abantailak baliatzeko ezinbestekoa da kideek taldearen barruan daudela eta taldearen garapenean lagun dezaketela sentitzea.
- Dimentsio emozional eta psikologikoez gain, badakigu ikasketak azkarrago eta hobeto gauzatzen direla haurra seguru sentitzen denean, eta onartzen, maitatzen eta laguntzen dion talde bateko kide sentitzen denean.

3. Programaren garapena

a) Taldearen egoera, eta taldekideen egoera taldearen barruan

Taldearen dinamika eta taldekideen jarrera ezagutzeko, *soziogramak* aplikatzen ditugu talde guztietan, eta, lortzen diren datuetan oinarrituta, bidezkoz hartzen ditugun jardunak gauzaten ditugu.

Taldea guztiz ezarri ondoren, urrian/azaroan, soziogramaren galde-sortak betetzen dira. Proba estandarizatua erabiltzen dugu, aldaketa batzuekin gure ikasleen ezaugarrietara eta gure asmoetara egokitzeko. Esate baterako, «Norekin ez zenuke lan egingo?» galdera aldatu egin dugu, eta horren ordez hain negatiboa ez den beste bat jarri dugu: «Nor da zurekin lan egitea gutxien nahi duzun pertsona?». Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo bi mailetan galderen ordez marrazkiak jartzen ditugu, eta galderak tutoreak egiten dizkie eta ahoz erantzuten dituzte.

Galde-sortaren erantzunekin talde bakoitzaren harremanen irudikapen grafikoa egiten da. Grafiko hori tutoreari ematen zaio, eta tutoreak ikasgelan begiratu behar du bere taldeari zer gertatzen zaion, eta ustez taldean isolatuak edo baztertuak dauden ikasleak atzeman behar ditu. Une horretatik aurrera, behaketa-plan sistematiko bat abiarazten da taldean egoteko eta izateko moduaren gainean, ikasgelako irakasleen eta jolas-orduan eskolako patioaz eta jangelaz arduratzen direnen eskutik, aldez aurretik ezarritako jarraibide batzuen arabera. Kasu batzuetan, aholkularia ikasgelan sartzen da eta harreman-dinamikak behatzen ditu. Zuzeneko jarraipen honek egoera bakoitzaren ñabardurei buruzko aztarna asko ematen dizkigu.

Isolamenduko edo bazterkeriako egintzak gertatzeko arrisku handiena duten egoerak behatzen ditugu bereziki, esate baterako itxaronaldiak (adibidez, ilaretan) edo araurik gabeko joko libreetan taldea desordenatzen denean (adibidez, ikasleen elkarreragin eta mugimendu gehiago eskatzen duten ikasgelako jarduera batzuk, sarreretan eta irteeretan, patiora igo edo jaisterakoan). Une horietan honako hauek egiaztatzen saiatzen gara: nagusitasuneko eta nagusikeriako keinuak nortzuk eta nola adierazten dituzten; ahultasuneko edo mendekotasuneko keinuak nortzuk eta nola adierazten dituzten; jarrera horiek eragiten dituzten arazoak edo aitzakiak, batzuenak eta besteenak; eta, gainerako kideen jarrera, lekuko gisa.

b) Esku-hartze hezitzaileak taldean integratzeko

Ikasle bat taldetik isolatua edo kideek baztertua dagoela atzematen badugu, eta egoera hori ahalbidetzen duten faktoreak eta egoerak aurkitu baditugu, tutoreak esku-hartzeko programa bat diseinatuko du, Aholkulariaren aholkuei jarraituta. Programa horiek batzuetan jardun indibidualak bakarrik barne hartzen dituzte; beste kasu batzuetan, taldeko jardunak planteatzen dituzte eta, batzuetan, ikastetxe osora zabaltzen dira. Kasu bakoitzean, eraginpeko irakasleei eta begiraleei esku hartzea eskatzen zaie, eta normalean horiengandik zera espero da, jarrera jakin batzuekiko arreta jartzea eta jarrera horiek gertatzen direnean adierazten zaien moduan jardutea.

Programa horietan, egindako behaketen arabera egokien ikusten ditugun neurriak proposatzen dira. Lehenik, jarrera horiek eragiten dituzten *egoera negatiboak saihesteko* asmoa dugu: kasu batzuetan testuingurua aldatzen dugu, esate baterako, ikasleen banaketa ikasgelan edo patiora igo eta jaisteko ordena; beste kasu batzuetan, funtzionamendua aldatzen dugu, esate baterako, ikasle bat arau orokor bat betetzetik salbuestea, urduritasuna eragiten diolako; edota, gaizki antolatutako jarduerak aldatzea, esate baterako patioan denek errespetatzen dituzten arau argiak dituzten jokoak ezarrita.

Unean uneko kasu larriagoetan lehenitasuna dauka denei *kaltetzen dieten jarrerak gelditzeak* eta une lasaiagoak ahalbidetzea, hezkuntza-ekintza sakona egiteko. Diskriminazioa, bazterkeria edo tratu txarra pairatzen ari den ikaslea ikasgelatik irteten da, pertsonalki hitz egiteko, lasaitzeko eta laguntza jasotzeko, eta horren bitartean gainerako eskolaki-deekin hitz egiten da bakoitzak jokatu duen eta jokatu behar duen paperari buruz.

Une honetan talde guztiaren sentsibilizazioa bilatzen dugu. Tutoretzako talde-saiοetan portaera horiei buruz hausnar dezaten saiitzen gara, eta portaera horiek gertatzen diren forma ugariak ikus ditzaten, eta baita horien ustez eman litezkeen edo eman beharko lirakekeen ondorioak eta aukerak ere. Kausei aurre egiteko, jokabide-ereduak aldatzeko, eta ikasleen artean lotura osasuntsuago eta positiboagoak ezartzeko asmoa dugu. Horretarako, jokabide-jarraibide jakin batzuk ematen dizkiogu bakoitzari, betetzen duen paperaren arabera. Aholkulariak tutoretza indibidualizatuak egiten dituztenean arazoaren eraginpean daudenekin, portaera hori izatera eramaten dituzten kausa pertsonaletan, familiakoetan edo bestelako kausetan sakontzeko, emandako mezuak egokitze aldera, eta proposatutako jarraibideak betetzen direla eta nahikoak direla egiaztatze aldera.

Kasu batzuetan, ikasle laguntzaileak ere erabiltzen ditugu, batez ere ikastetxera txikitzen etorri beharrean heldu samarrak direla sartzeko zailtasunak direnengatik. Oso figura balioetsua da ikasle horiek taldean integratzeko prozesuan laguntzeko, eta bereziki balioetsua da ikasle horiekin diskriminazio, isolamendu edo bazterkeriako egoeraren bat gertatzen denean.

Egokitzea zaila egiten zitzaien neskatxa afrikar batekin gertatu zen. Inkontzienteki, eskolakide batzuek iradokizun arrazista bat egin zioten eta min handia egin zion horrek. Eragindako minaz ohartarazi genituen eta kalte hori konpentsatzeko moduari buruz galdetu genien. Batek honako hau proposatu zuen: «Guk zainduko dugu.» Era horretan, tratua bat egin genuen ikasle horiek arduraz zitezkeen neskatxa hori inork ez iraintzeaz. Seriotasun handiarekin hartu zuten, eta konplizitate berezia sortu zen gazte horien eta tratua egin zuen ikasketaburuaren artean.

Ikusi dugunez, era berean, haur baten atzean askotan familiako historia bat dago. Kasu horietan, familiarekin zuzeneko komunikazioa bilatzen dugu eta baita haren lankidetzara ere. Beste kasu batzuetan, zeharka egiten dugu, esate baterako, familia jakin batzuei deitzen diegu, familia guztientzako den hitzaldi batera joateko.

c) Kohesioa eta taldeko kide sentitzea

2005-06 ikasturteetik aurrera, arreta handiagoa eman diogu taldearen kohesioa lantzeari eta ikasle bakoitzaren taldeko eta ikastetxeko kidesun-sentimendua indartzeari. SozIALIZAZIO-prozesuan funtsezko alderdia dela aintzat hartzen dugu, eta adin horretako neska-mutuek modu espontaneoan daukaten individualismoa gainditzeko laguntzen du.

Tutoretzako talde-saioetan ildo honetako hainbat ideia garrantzitsu lantzen ditugu, eta gure ikasleentzat irisgarriak dira:

- Denak desberdinak gara, baina garrantzi berbera dugu.
- Bakarrik egonda ez ditugun aukerak eskaintzen dizkigu taldeak.
- Desberdintasunak aberasgarriak dira.
- Taldeko kide bat atzean geratzen bada, denok galtzen dugu.

Baliabide desberdinak erabiltzen ditugu hausnarketa, eztabaida, kontzientziazioa, eta erantzukizun indibiduala eta kolektiboa eragiteko. Saio horiek inpaktu handiagoko jarduera batekin amaitzen dira, esate baterako:

- Lepoko bat egitea, ikasgela irudikatzen duten zatitxo edo ale desberdinekin.
- Zuhaitz handi bat egitea, haur guztien argazkiekin.
- Makilatxo magiko bat erabiltzea bazterkeriako ekintzak edo keinuak adeitasunezko keinu bihurtzeko.

Are gehiago, balio sinboliko oso garrantzitsua dute, beste une batzuetan gai horiek gogorazteko balio digutenak: «Gogoratzen zara lepokoaz?», «Gogoratzen zara ipuinaz?».

Gai honetan oso garrantzitsuak dira irakaslearen begiradak, keinuak, iruzkin pertsonalak, ahots-tonua, etab. Izan ere, haurrarekiko duen jarrera adierazten dute, eta haurrak intuitiboki sumatzen du jarrera hori. Era berean, honako hauek inpaktu handia daukate horien-gan: ikasgelan lana antolatzeko modua, ikasle bakoitzari esleitzen dizkiogun jarduerak, akatsak zuzentzeko modua, eta kide bakoitzari edo taldeari dagokionez erakusten ditugun itxaropenak. Kontuan izan behar da egiten ditugun epaiek (baita gure barruan egindako epaiek ere) barneratua dugun ikasle-eredu bati jarraitzen diotela, eta eredu hori beste ikasle mota batzuen ezaugarriak eta potentzialtasunak kanpoan uzten dituen eredia da askotan.

Ikasgelaren barruko ekintzez gain, komunitate bateko kide sentitzea sustatzeko beste jarduera batzuk antolatzen ditugu:

- Lorategien landatzea eta zaintza adin askotako neska-mutilekin.
- Egonaldia Baserri Eskolan; bertan hainbat talde elkarrekin bizi dira.
- Jarduera kolektiboetan eta eskolako festetan hainbat jolas-jarduera garatzen dira euskal kulturako eta eskolan dauden kultura guztietako osagarriekin.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

Irakasleak nahiko pozik daude egindako lanarekin, gaiari buruzko jakintza garrantzitsuak eskuratu dituztela sentitzen dute, eta diagnosirako eta esku-hartzerako tresna ba-

tzuk dituzte, nahiz eta arlo horretan aldaketa asko gertatzen ari diren eta beren jardunak hausnartzen, behatzen eta ebaluatzen jarraitu behar duten.

Irakasleek argiago dute berdinaren arteko isolamendu eta bazterkeriako jarreraren aurrean ikasleekin egiten dituzten esku-hartzeak zaindu behar dituztela, jarreraren zuzenketa pribatuaren egin behar dela, eta jarrera horiek ez direla publikoki zigortu behar.

Taldearen kohesioa hobetzen ari dela uste dugu.

Gai honi buruzko sentsibilizazio handiagoaren aurrean, gurasoak ikastetxearen eta beren seme-alaben egoerari buruz galdetzeko batzuetan eskolara kezkatuta etortzen direnean, asko lasaitzen ditu behaketako eta esku hartzeko programa sistematizatu bat dagoela ikusteak.

5. Eranskinak

- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Soziograma-ereduak.
- Tutoretzako talde-saioen fitxak.
- Esku-hartze hezitzaileko ereduek.

3.2

Adostasuna eta arauak betetzea

HELBURUA:

*Arauk eta horien betearazpena bateratu eta barneratzea, horiek lantzerakoan parte hartuta, eta balioak eta printzipio etiko unibertsalak errespetatuta, eta horiek ez bete-
tzearen kalteak konponduta.*

Arauek funtsezko papera dute bizikidetzan. Segurtasuna ematen dute pertsona arteko harremanetan eta bizitza sozialean. Besteen eskubideak aintzat hartzen direla eta elkarrekiko errespetuak arauetan adierazten den adostasunaren emaitza izan behar duela esan nahi dute.

Hezkuntza-prozesuan haurrei laguntzen diegu inposaketatik arauk barneratzera igaro daitezten, horien balioa eta bizikidetzarako abantailak ulertuta, eta horiek ez betetzeak eragiten dituzten kalteak ulertuta. Horretarako, haurrek arauak onartu behar dituzte, arrazoizkotzat eta komenigarritzat ikusten dituztelako, adostasun baten emaitza direlako, eta pertsonen duintasuna, giza eskubideak eta gizarte demokratikoa berresten duten printzipio etikoekin bat datozelako.

Bizikidetzarako hezkuntzan honako helburu hauek ditugu:

- Ikasleek bizikidetzarako arauen zentzua eta horiek betetzeko eskaera ulertzea.
- Jarrera aktiboa hartzea eskolako bizikidetzaz zuzentzen duten arauak lantzerakoan, betiere printzipio etiko unibertsalekin koherenteak izanik.
- Ikasleak autonomia arduratsu handiagoarekin eta beren jokabidea beren eskaeren berehalako asebetetzera baldintzatu gabe garatzea.

JARDUERAK:

- a) Arauk lantzea, formulatzea eta jakitea.*
- b) Erantzuna arauak betetzen ez badira: egintza konpontzailea.*
- c) Araua eta printzipio etikoak.*
- d) Informazioa eta familien lankidetzaz.*

1. Abiapuntua

Eskola-arauak betetzea beti izan da kezkatzeko arrazoia. Inoiz ez dugu zalantzarik izan arauen premiari dagokionez, bana eztabaida asko izan ditugu horiek lortzeko eta bete-arazteko moduari buruz, eta baita horien benetako zentzuari buruz ere.

87-88 ikasturtean, hausnarketa bat hasi genuen eskola-arauei buruz, eta arauen balioa hobeto ulertzen hasi ginen. Ikasleentzako eskola-arauak aztertu genituen, hau da, horiek egiteko jarraitzen genuen prozesua eta arauen ezagutza- eta betetze-maila, eta ikusitakoak prozesu horiek berriz pentsatzera eraman gintuen. Era berean, irakasleen jarduna normalizatua egoiteak dituen abantailak ere ikusi genituen, denok modu berean jarduteko eta kasu bakoitzean inprobisatu behar ez izateko. Era horretan, hainbat egoeretan jarraitu beharreko forma edo protokoloa ezarri genuen, esate baterako sarreren eta irteeren ordenan, korridoreak, zerbitzuak, patioa, puntualitatea, jarrera disruptiboa duen ikasle batekiko jarduna, familiekin egindako elkarrizketak (gidoia barnean hartuta), edo seme-alaben notak ematea, etab.

Prozesu guztien moduan, denbora igaro ondoren ikusi genuenez, eskola-arauen betetzea eskatzeko eta horren balioa ulertzeko modu desberdinak zeuden oraindik. 98-99 ikasturtean, aditu baten laguntzarekin eta testuen irakurketa iruzkindua eginez, klaustroak bere prestakuntza-prozesuari ekin zion berriz ere eta eskola-arauen balioan sakondu genuen, eskolaz gain, hezkuntza-potentzialtasunean ordena lortzeko modu gisa. Gure esperientziak eta hausnarketak aurrera egin zuten heinean, hezkuntza-sakonera handiko gai bat lantzen ari ginela ikusi genuen: arauak unibertsalki aitortutako printzipio etikoetan oinarritutako irizpide batzuei erantzun behar zieten.

2005-06 ikasturtean, arauen ez-betetzei ematen genien erantzuna berrikusten hasi ginen. 2006ko irailean justizia-ereduei buruzko prestakuntza eta hausnarketarako jardunaldi batzuk egin ondoren, argi ikusi genuen hezkuntza-eremuan aurrera egin behar zela prebentzio-ekintzan eta justizia konpontzailean, eta justizia zuzentzailea edo zehatzailea gainditu behar zela.

2. Oinarrizko planteamenduak

- Neskek eta mutilek jakin beharra dute pertsona arteko eta taldeko harremanetan mugak eta jarduteko moduak daudela, bizikidetzaren ahalbidetzen dutenak eta arautan adierazten direnak. Arau horiek, askatasuna kendu ordez, segurtasun emozio-

nala ematen diete; izan ere, egoera ezezagunetan besteen aurrean nola jokatu behar duten jakiteko eta gaizki dagoena eta ongi dagoena desberdintzen laguntzen diete.

- Arauak betetzea eskatzeko eta horiek betetzeko konpromisoa hartzeko, ezinbestekoa da denok —irakasleek, ikasleek, familiek— arau horiek ondo ezagutzea, ulertzea, arazoizkotzat hartzea, ongizate pertsonal eta kolektiborako baliozkotzat hartzea eta, gure esku baldin badago, adostuak izatea.
- Arauen balioa ez da mugatzen eskola-lanerako behar dugun ordena lortzen laguntzera. Aprobetxatu behar dugun hezkuntza-balio handia daukate.
- Arauei buruzko hezkuntzaren azken helburua ikasleek autonomia arduratsuan aurrera egitea da: arauen arabera jardutea norberaren ideiangatik, eta ez norbaitek inposatzen duelako; beren egintzen ondorioak eta erantzukizuna beren gain hartzea, bereziki arauak betetzen ez direnean.
- Eskola-arauak betetze soilak kanpo-diziplina dakar. Ikasleak hazten diren heinean, arauak barneratu egin behar dituzte, eta, erreferentziazko puntu batean pixkanaka, beren alboan, besteak hartu behar dituzte barnean. Besteei betetzea eskatu ahal izateko, printzipio etiko eta giza eskubideekiko koherenteak izan behar dute: pertsonen duintasuna errespetatzea, berdintasuna desberdintasunean, askatasuna, justizia eta elkartasuna.
- Eskola-arauak egiteko lanean parte hartzen dutenean, ikasleek lotura estuagoa sentitzen dute arauekin, eta jarrera aktiboa hartzen dute ikastetxearen bizitzan. Komunitateko pertsonen tokian jartzen laguntzen dio horrek ikasleari, eta denen beharrak kontuan hartzen direla zaintzeaz arduratzen da.
- Arauak ez betetzeari dagokionez, gure hezkuntza-planteamendua, beste ezeren gaineratik, prebentiboa da: arauak ez betetzea eragiten edo ahalbidetzen duten baldintzak eta egiturak ezabatu edo murriztea. Bigarrenik, justizia konpontzailea nahiago dugu, justizia zuzentzailea edo zehatzailea baino. Arau bat urratzen duenak eragindako kaltea konpondu behar du.

3. Programaren garapena

a) Eskola-arauak formulatzea, lantzea eta jakitea

Arreta berezia jartzen dugu eskola-arauen *lantze-prozesuan*, betiere kontuan hartuta ikastetxearen, patioaren edo ikasgelen arauak desberdinak direla. Hasiara beretik nahi

izan genuen arauak adostasunaren emaitza izatea, arauen ulermena eta betetzea errazten duelako horrek. Lehenik, arauak betetzeaz eta betearazteaz arduratutako irakasleen adostasuna, era horretan irakasle-talde osoak jarraibide berberak izango zituelako portaera-jarraibideak ezartzerakoan. Eta, beste aldetik, ikasleen eta familien adostasuna.

Ikastetxeko arau orokorren *lantze-prozesua*, ziklo bakoitzaren ñabardurak aintzat hartuta, Batzorde Pedagogikoaren proposamen batekin hasten da, eta proposamen hori koordinazio-organoek eta klaustroak aztertu eta formulatzen dute. Ikasgelako arauak talde bakoitzak lantzen ditu. Ziklo bakoitzean, tutoreek alde aurretik zikloaren arazo eta premia orokorrak eta taldearen arazo eta premia espezifikoak aztertzen dituzte, beren taldean adierazteko, betiere ikasleek ez badute egiten. Eta aurreko esperientzian oinarrituta berrikusten dira urtero.

Espero den helbururako balio dezaten, arauak honelakoak izan behar dute, *edukiari eta formulazioari* dagokionez:

- Arrazoizkoak eta bizikidetzan eragina duten egoerekin lotuak.
- Bete behar dituztenekin adostuak.
- Gutxi (garrantzitsuak eta lehentasunezkoak), argiak eta laburrak.
- Positiboki eta pluraleko lehen pertsonan formulatuak, onartuak izatera eta horien betearazpenean inplikatuak sentitzera gonbidatuta.
- Betetzen diren edo betetzen ez diren egiaztatzeko moduan eginak.

Azkenik, *arauak ezagutzea eta ulertzea* arauak onartzeko alde aurreko pausoa da. Urteror, ikasturtearen lehenengo astean, eguneroko lehen orduan tutoretza egiten da, ikasle berriei harrera emateko eta, batez ere, ikastetxeko eta patioko arauak jakinarazteko, aztertzeko eta hobekuntza-proposamenak egiteko, eta baita ikasgelako arauak egiteko ere. Ikasturtean zehar, beharrezkotzat hartzen diren tutoretza-saioak egiten dira, arauen betetze-mailaren jarraipena egiteko, interpretazio desberdinak baldin badaude arauak zehazteko, eta aldaketak proposatzeko, pentsatutako helburuetarako balio ez badute.

Arauekin lotutako hezkuntza-lanaren helburua ikasleek arauen beharra eta bizikidetzarako balioa ulertzea da. Lehen Hezkuntzan, arauak 1., 3. eta 5. mailan lantzen dira. Lehen mailako neska-mutilei jokoak proposatzen zaizkie, araurik adierazi gabe, jolas-arauak beren kabuz ezar ditzaten eta, era horretan, jolastu ahal izateko denek betetzeko

konpromisoa hartu duten adostutako arau batzuk behar direla ikus dezaten. Hirugarren mailan egoera batzuk aurkezten dira (irla batean galdutako pertsona batzuk, eta abar), non talde batek zailtasun batzuei aurre egin behar dien eta oinarrizko beharrak asebetze behar dituen. Ikasleen heltze-prozesuak aukera ematen duen eta eskatzen duen neurrian, bidezko, premiazko eta adostutako arauak barneratzeko lan egiten da.

Onartutako arauak karteletan idazten dira, eta kartelak ikusteko moduko lekuetan kokatzen dira. Lehenengo zikloetan pixkanaka aurkezten dira, ikasleek hobeto ikas ditzaten.

b) Erantzuna arauak betetzen ez badira: ekintza konpontzailea

Izaera zuzentzaile edo zigortzailearekin, eskola-arauak ez-betetzeagatiko zehapena dakarren erantzun zigortzailea gorabehera, erantzun konpontzailean aurrera egiten ari gara, EHUko Juana M.^a Maganto irakaslearen jarraibideei jarraituta. Zehapenaren helburua araua urratu duenak zigorraren beldur jokabide hori ez errepikatzea ikastea da, eta ekintza konpontzailearen helburua, aldiz, arau-hausleak eragindako kaltea eta konpontzeko betebeharra ulertzea da, eta taldean eragiten dituen kalteak eta, horren ondorioz, konpontzeak dakarren erantzukizuna argi izatea. Oso garrantzitsua da ekintza konpontzailea honelakoa izatea:

- Neurrizkoa edo proportzionatua (egun batzuetan behin eta berriz berandu iristen denak eskolako egonaldia luzatuko du, liburutegian eskolako lanak eginez).
- Eragin duen egitatearekin lotua (ikasgelako zorura paper bat botatzen duen haurrari ikasgelan dauden paperak jasotzea eskatzen zaio).
- Ondo pentsatuta erabakia, ez haserrealdian zein oldarkortasunez.
- Erabakian egintzaren egileak parte hartzen badu, hobe. Era horretan, erantzukidetasuna eta konpromisoa sustatuko dugu.

Bi mota horietako erantzunak bereizten dituen beste alderdi bat zigorra eta ekintza konpontzailea ezartzeko modua da. Zigorra aginteak zehazten du, eta ekintza konpontzailearen kasuan, aldiz, denek parte hartzen dute eragindako kaltea modu egokian konpontzen duen ekintzaren definizioan, eta denek jakiten dute zer egin beharko duten ezarritako araua betetzen ez badute.

2006-07 ikasturtean, arau bakoitzaren ez-betetzearen kasuan ezarri beharreko ekintza konpontzaile egokiak erabakitzeko ari gara lanean. Irakasleen eta ikasleen partaidetzarekin,

arau bakoitzaren balioa ulertzen laguntzen digu, eta araua betetzearen ekarpena eta ez bete-tzeak eragiten duen kaltea ulertzen; kalte horixe izango da konpontzen saiatu beharko dena. Ez dugu bilatzen zigorraren eredugarritasuna, baizik eta araua urratu aurretik pertsonak eta gauzak zeuden lekura eta modura itzultzeko erantzukizuna.

c) Araua eta printzipio etikoak

Arauk lantzerakoan eta arauak betetzen ez badira ezarri beharreko ekintza konpon-tzailearen proposamena egiterakoan, kontuan hartu behar ditugu ontzat edo txartzat edota desiragarritzat edo ukagarritzat hartzen dugunari zentzua ematen dioten balioak.

Eskola-arau gehienen helburua eskolako lana erraztea da. Hemen jokoan sartzen dira ho-nako hauen moduko balioak: ordenari eustea, ikasgelan entzutea eta arreta jartzea, esko-lako lanak egiteko betebeharra eta besteei ez aztoratzeko zein oztoporik ez jartzeko bete-beharra, etab. Adibidez:

- *Ikasgelara puntualki iristen gara.*
- *Ikasgelako materialak ordenatzen ditugu.*
- *Etxeko lanak egiten ditugu.*

Baina, helburu berbera lortzeko, betidanik bermatu nahi izan ditugun beste balio batzuk jokoan jartzen dituzten arauak erabakitzen dituzte ikasleek: bestea errespetatu eta zain-tzea, bestearen lekuan jartzea, besteen jarduteko moduan gauza positiboak ikustea, eta abar; eskolakideekiko edozein motatako diskriminazio, mespretxu edo bazterkeria saihestea, larderiazko jarrera edo indarkeria psikologiko, fisiko edo ahozko jarrera duen aginte-keria saihestea, mendekotasuneko edo gutxiagotasun-sentimenduko jarrerak saihestea, eta abar; faboritismorik eta ankerkeriarik gabeko justiziak bultzatuta jardutea, eta ez amorruak edo mendeku-desioak bultzatuta, eta abar; elkarri laguntzea, ahularekiko kontsiderazio be-reziarekin, eta aldi berean bakoitzak bere indarrak eta ahuleziak deskubritzen laguntzea.

- *Materialak DENONAK dira. Bestela, zu izango zara erabiliko dituen azkena!*
- *Txanda eskatzeko eskua jasotzen dugu. Bestela, ez duzu eztabaidan parte hartuko!*
- *Errespetuz tratatzen dugu elkar. Bestela, barkamena eskatuko dugu eta adostokian hitz egingo dugu.*

- *Korridoreetan poliki ibiltzen gara eta 5 urteko haurrak errespetatzen ditugu. Bestela, korridoreetako eta ikasgelako muralak eta liburuak konpontzera etorriko gara.*

d) Informazioa eta familien lankidetzak

Hasieratik bertatik garrantzi berezia eman diogu gurasoen konplizitateari, ezarri ditugun helburuak lortzeko funtsezkoa baita horien adostasuna eta lankidetzak izatea.

Lehenik, informazioa ematen diegu familiei. Eskolako arauak ezagut ditzaten nahi dugu, eta zergatik eta zertarako adostu ditugun. Gurasoen kasuan, lehenik, beren iritzia ematea eta beren babesa espero dugu, eta, bigarrenik, etxean beren seme-alabekin hitz egiten dutenean eskola-arauak ezagutzea. Eta, hirugarrenik, familia-ingurunean pareko irizpideekin arauak ezartzea, izan ere erabilgarria izango baita familian eta eskolan hezkuntza-ekintza elkarren artean indartzeko.

Arauak ematerakoan eta betearazterakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko gai batzuei buruz hitz egin genuen gurasoekin. Irakasleen prestakuntza zuzendu zuen pertsonarekin prestakuntza-saio bat antolatu genuen, mezuak bat etor zitezten. Era berean, haurrek familiako eta eskolako arauak betetzea erraztu dezaketek teknikak batzuetan lan egin genuen: entzutea eta hitz egitea, beren jokabidea eta aurrerapenak goraiatzeko, modu egokian eta berehala; desiratzen diren jokabideak positiboki indartzeko; atseginak ez diren jokabide batzuk baztertzea eta atsegina denari arretoa jartzea; desiratutako jarraia lortzen den arte trinko egotea; dagokion kasu guztietan mezu berbera errepikatzea, esaldi labur eta adierazpenezkoekin; desiratutako jokabideak modu proportzionatuan ordaintzea; pertsonaren ordean, portaera zehatzen duten zigorrek neurritik, baina trinkotasunez, erabiltzea.

4. Ebaluazioa eta ondorioak

Inkesten bitartez, haurren hitzezko adierazpenen bitartez, arauak ez betetzeagatik deitzen zaien izaten dituzten erreakzioen bitartez, eta bestelako bitartez egiaztatu dugunez, «araua bete behar da» eskaera jada ez dute agindu arbitrario edo zigor gisa ikusten, baizik eta hobeto elkarbizi ahal izateko beharrezkoa den zerbait gisa (ahala ere, kasu batzuetan ez dute betetzen, haurrak baitira). Horretarako oso lagungarria da arauak horiek indostu edota berrikustea eta onartzea.

Beren ekintzei eta ondorioei buruz hausnartzeko dugun sistemarekin batera, hurrek araua ikusteko duten modu horren ondorioz, zigorren aplikazioa murriztu egin da, eta neska-mutikoei helduekiko dituzten harremanak hobeketa eta lasaiagoak dira.

5. Eranskinak

- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Familien prestakuntzarako proposamenak.
- Ikastetxeko, patioko eta ikasgelako arauak.

3.3

Gatazken eraldaketa eta bitartekotza

HELBURUA:

*Hezkuntza-komunitatean bizikidetzaren kalitateari lehentasuna ematen dion eta gataz-
kak modu eraikitzaile eta sortzailean maneiatzaren dituen kultura bat sortzea, bitarteko-
tza tresna eraginkor gisa erabilia.*

Bizikidetzaren kalitateak taldeko pertsonen ongizate eta hazkunde psiko-afektiboan du era-
gina, besteekin harreman-forma positiboak egitea ahalbidetzen du eta, beraz, esparru ego-
kia eskaintzen du gizartearen arloetan bizikidetzaren gakoei buruz ikasi eta hausnartzeko.

Eskolakideen arteko harremanetan gatazkek sortzen dira. Gatazkaren ikuspegi negati-
boa gorabehera, kontuan hartzen dugu pertsonen eta taldeen arteko harremanetan gataz-
kak normalak direla eta modu eraikitzailean konpontzen badira bizikidetzaren hobetzeko
aukera ematen dutela. Zentroko bizikidetzaren kalitatea hobetu nahi dugu, eskola-bizi-
tzan sortzen diren gatazkek modu baketsu eta eraikitzailean eraldatuta, eta horrela hez-
tea espero dugu, eta baita ikasketa horiek bizitzaren beste eremu batzuetara lekualda-
tzea ere. Zehazki, honako helburu hauek ditugu:

- Eskolakideen arteko gatazken eraldaketaren ikasketa bultzatzea, prozesu egokiak praktikan jarrita.
- Zentroan baldintzak ezartzea, ikasleek beren gatazken eraldaketa-prozesu bake-
tsua praktikan jar dezaten.
- Ikasleen artean bitartekariaren figura ezartzea, berdinaren arteko gatazka zailenak konpontzeko laguntza gisa.

JARDUERAK:

- a) Gatazken eraldaketa ikastea.*
- b) Adostokiak edo adostasunerako tokiak.*
- c) Bitartekotza.*

1. Abiapuntua

Gatazkak eguneroko harremanen zati bat dira. Harremanak daudenean, gatazkak sortzen dira: desadostasun errealak edo harremanaren alderdi batek edo batzuek jasandakoak. Harremanaren testuinguru osoan gertatzen den moduan, eskola-bizitzan ere gatazkak sortzen dira. Ikastetxe honetan, ikasleen arteko gatazkak maistraren edo maisuaren epaiaren bitartez ebazten ziren, ikastetxe gehienek moduan, eta alderdi bati ematen zitzaion arrazoia eta, kasu askotan, zigor bat edo zuzenketa inposatzen zen.

Gainera, gatazkak onbideratzeko moduari dagokionez, gertuko espazioetan zein gatazka sozial edo politikoetan, bakearen aldeko kulturaren arabera jarduteko dugun gaitasuna jartzen da jokoa, baita entrenatu ere: elkarriketa prozedura gisa, enpatia, solidaritatea kaltetuarekin, konponbideen bilaketa bateratua, gatazka batean esku hartzen, igotzen edo jaisten diren faktoreak aztertze gaitasuna, etab.

Gure hezkuntza-komunitatea gatazken maneiatze baketsua bizi eta entrenatzen den espazio bat izatea helburutzat hartuta, eskolak ekimen asko garatu ditu urteen poderioz.

97-98 ikasturtean, zuzendariak gatazken eraldaketari buruzko ikastaro batean parte hartu zuen, zuzendari-taldeei zuzendua, Hezkuntza Sailak antolatua, eta Gernika Gogoratu Bakearen aldeko Ikerketa Ikastetxeak emana. Itzultzerakoan, irakasle-klaustroarentzako hitzaldi bat antolatu zuen ikastaro horretako hizlari batekin, baina ez zen ekimenik atera.

Hurrengo urtean, gatazkei aurre egiteko modu berriak bilatzeko interesa eta kezka handitu zen. Hizlari bera gonbidatu zuten irakasleekin hitz egitera, eta ikastetxean sortzen ziren gatazkak onbideratzeko bide eraikitzaile eta adostuaren garrantzia ulertzen joan ziren arian-arian irakasleak; hala ere, ikasle bitartekariaren figura ikustea zaila egiten zitzaien, baina kontuan hartu zuten aukera hori aztertzea. Hezkuntza-komunitate bakoitzak erritmo eta lehentasun propioak ditu. Taldeak beharrezkotzat hartzen ez duen prozesu bat ezarri nahi denean, programak izan dezakeen potentziala blokea daiteke. Hezkuntza-komunitatea bere kabuz ireki eta baliabideak eskatzen hasi arte itxaroten denean, biderkatu egiten da edozein ahaleginen eraginkortasuna.

Egoera horiei modu eraikitzailean aurre egiten ikastea ikastetxeko helburuetako bat bihurtu zen, eta, are gehiago, ikastetxeak konpromisoa hartu zuen hausnarketa, prestakuntza eta esperimentazioko prozesu etengabe batekin. Prozesu horren emaitzak geroz eta

handiagoak izan dira eta bizikidetzeta-giroaren hobekuntza orokor batean ikus daitezke, eta baita komunitate osoan gatazkak onbideratzeko beharrezkoak diren gaitasunen barneratzean ere.

Irakasleek beren prestakuntzari ekin zioten hamar orduko plan intentsibo batekin, astebeteko arratsalde guztietan (ikasleek goizeko ordutegiko irakas-denbora guztia betetzen dute; arratsaldetan, jarduerak eskaintzen zaizkie, monitoreekin, nahi dutenentzat). Bizikidetzaren erronkak landu ziren: harremanen kalitatea, gatazkak, indarkeria. Kalitatezko harremanak izateko behar diren faktoreak aztertu ziren: entzutea, komunikazio asertiboa, enpatia, sormena, norberaren eta besteen sentimenduak aitortzea, oldarkortasuna maneiatzea, etab. Gatazkari dagokionez, gatazkaren elementuak aztertu ziren (gatazkaren alderdiak, prozesu-keinuak, hitzak, premiak, interesak, balioak, harremanak, egiturak, misioa), maneiatzeko modua eta gatazkaren aurrean emandako erantzun ezberdinak: indarkeria motak, elkarrizketa, negoziazioa, bitartekotza. Eskolako bizikidetzeta eta bakearen kultura.

Oinarri horiek kontuan hartuta, irakasleek prestakuntza-prozesu etengabe bat jarraitzen dute ikasturte osoan, arratsalde batean astero, eta bertan aurkezpenak konbinatzen dira, testu eta hausnarketa bateratuak irakurrita. Prestakuntza-prozesu bikoitz hau erabakigarria izan da bere bi alderdietan. Gaiari buruzko baliabide teoriko eta praktikoak dituen kanpo prestatzaile baten laguntza izateak asko orientatzen eta adoretzen du taldea. Elementu horrek, klaustroaren autoprestakuntza etengabearekin batera, bermatu egin zuen irakasle guztiek gatazken eta konponbideen ikuspegi eta hizkera bateratua zutela, eta aukera eman zuen proiektu partekatu bat diseinatzeko. Prestakuntza monitoreen taldera zabaldu zen; izan ere, adituen laguntzarekin, monitoreek hainbat ordu eman dituzte gai honetan, irakurketen iruzkinean, eta kasuen azterketan. Gainera, hezkuntza-komunitate oso bat sortzeko asmoarekin bat etorritik, gai honi buruzko hitzaldiak eta tailerrak antolatu ziren gurasoekin eta auzoko taldeekin.

Denboraldi horretan hainbat behaketa eta inkesta egin ziren, ikasleen arteko gatazkak zehaztasunez eta sakontasunez ezagutzeko: gatazken objektuak, gatazkan dauden pertsonen ezaugarriak, gatazkak konpontzeko moduak, etab.

Inolako premiarik gabe, gatazka-egoerak eragiten zituzten egiturak zeudela ikusi zen, hala nola patioko lorategi batzuek zuten konfigurazioa (adibidez, buelta handia ematera behartzen zuten eta, beraz, parterreak zapaltzen ziren) edo ilaretan (lehenengo postuan

jartzeko bultzadak eta gatazkak eragiten zituzten). Aldaketak egin ziren egitura horietan, eta gatazken kopurua asko murriztu da.

Bizikidetzaren programen funtsezko puntua da hori. Eskola-eremuko gatazka asko ikaste-txeko jardueretara eta helburuetara egokitu gabeko egiturekin lotuak daude. Askotan, pertsonekin lan eginda saiatzen gara gatazka-egoerei erantzuten, baina arazoaren oinarri-ri dagoena egitura desegoki bat da, eta egitura hori aldatzen bada, gatazka-iturri eten-gabe bat ezabatzen da.

Prestakuntzaren beste pauso bat izan zen aholkulariak eta interesatutako irakasle batek ikastaro intentsibo batean parte hartzea; ikastaroa Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Ikastetxeak eman zuen, Hezkuntza Sailaren laguntzarekin.

2. Oinarrizko planteamenduak

Pertsonen eta harremanen zaintza gure proiektuaren funtsezko bi ardatz dira, eta, be-raz, praktikan hainbat tresna eta proposamen metodologiko aztertu eta ikertu ditugu. Norabide honetan aurrera egiteko, jarduera asko garatu ditugu honako printzipio hauei jarraituta:

- Bizikidetzaren kalitatea eguneroko interakzio bakoitzean lantzen da.
- Pertsonak daudenean, gatazkak sortzen dira. Gatazkak ikasteko eta hobetzeko auke-rak dira. Gatazkei aurre egiteko moduak erabakitzen du ezaugarri suntsikorrak na-gusituko diren edo pertsonen, harremanen eta sistemen heldutasuna eta hobekuntza nagusituko diren.
- Hezkuntza emozionala gure lehenengo harremanekin hasten da, gure hezkuntza-prozesu osoan jarraitzen du, eta bizitza osoan zehar gure buruarekin, besteekin eta munduarekin harremanak egiteko modua zehazten du. Hortaz, eskola-bizitzaren eta, oro har, gizartearen funtsezko alderdia da.
- Bitartekotza gatazkak eraldatzeko tresna zaharra da, kultura guztiek modu askotan erabili dutena eta orain berreskuratzen ari garena, bizitzako eremu guztietarako.
- Gatazkak iraupen desberdineko hainbat fasetatik igarotzen dira. Gure interes na-gusia zera da, gatazkekin batzuetan datozen dinamika suntsikorrak eraldatzea eta

hobekuntza-prozesu bihurtzea da. Horregatik «erlidaketa» terminoa erabiltzen dugu «ebazpena» terminoaren aurretik.

- Txikitatik, bitarteko edo parte gisa, gatazken erlidaketa eta konponketan agente aktiboak izatea modu paregabea da gatazken onbideratzean entrenatzeko.
- Gatazka-egoerek, elementu pertsonalez gain, egiturazko elementuak dituzte (espazioak, denborak, arauak, baliabideak, lan-metodologia, antolamendua, eta abar), eta horiek ere aztertu eta positiboki erlaldatzea komeni da.
- Gatazkek maneiatzeko, mugak jartzen ikasi behar dugu, parte hartzen dugun egoeretan erantzukizuna gure gain hartzen ikasi behar dugu, aldatzarekin konpromisoa hartu behar dugu, eta komunitateari edo pertsoneri kaltetu bazaie, konpondu egin behar dugu.
- Gatazka eta indarkeria bereizi behar ditugu. Badaude ndarkeriarik gabeko gatazkek, eta baita gatazkarik gabe sortzen den indarkeria ere, nahiz eta gero indarkeria horrek gatazka eragin. Indarkeriak ageriko alderdiak eta alderdi ikusezinak ditu, zuzeneko ekintzako alderdiak, egiturazko alderdiak eta kultura-alderdiak.

3. Programaren garapena

a) Gatazken erlidaketa ikastea

Ikasleek beren gatazkek konpontzen ikas dezaten, prestakuntza eta entrenamenduko aldi bat behar dute, eta tutoretza-saioak horretara bideratzen dira hiruhileko batean, honako gidoi honi jarraiki:

1. Gatazka normala da.
2. Gatazkek kontatzea.
3. Gatazkaren egitura.
4. Erantzun motak.
5. Hizkuntza asertiboa.
6. Entzutea.
7. Bitartekotza.
8. Bitartekotza-lana.

Saio horietan, ikasleen adinen arabera, material desberdinak erabiltzen dira: marrazkiak, puzzleak, ipuinak etab. Jarduera indibidualak egiten dira, hala nola gatazka bat marraztea, galderak erantzutea, erantzun motak animaliekiko gatazkekin lotzea eta abar, eta, era berean, taldeko jarduerak egiten dira, ipuinak trukatu, istorioak kontatu eta entzunda, hizkuntza asertiboko formak praktikatuta, gatazka bateko bitartekotza simulatuta, etab.

b) Adostokia

Gatazkaren gakoak jakin ondoren, eta gatazkak modu baketsuan eta hitz eginda konpontzeko oinarrizko gaitasunak entrenatu ondoren, ikasketa hori eguneroko harremanen praktikan eramatea programaren alderdi garrantzitsua da. Horretarako, *adostokiak* hartu ditugu; haurrek bertara jotzen dute adostasuna bilatzeko eta iritzi-ezberdintasunak konpontzeko.

Adostoki bakoitzean bi aulki daude, eta aulki bakoitzaren gainean sinbolo bat, aho bat edo belarri bat kokatzen da, entzuteko edo hitz egiteko tokia den arabera. Ziklo bakoitzaren ondoan bat dago, beste bat patiotik gertu, eta beste bat jangelaren ondoan. Toki horiek, beren konfigurazioa dela-eta, ikasleei beren artean sortu den gatazka aztertzen eta konponbidea bilatzen laguntzen dieten espazioak dira. Horretaz gain, txandak gordetzeko, modu aktiboan entzuteko eta modu asertiboan komunikatzeko gaitasunak entrenatzen dituzte.

Gatazka bat duten haurrak *adostokira* joaten dira beren borondatez, eta txandaka aulki bakoitzean esertzen dira, entzuteko edo hitz egiteko txanda duten arabera. Alderdi bakoitzak arazoari buruz duen ikuspegia, bere arazoak eta bere sentimenduak adierazten dizkio beste alderdiari, eta bitarte horretan, bestea entzun eta ulertzen saiatzen da. Prozesu horren ondoren, bi alderdiak beren kabuz erabaki bat lortzeko baldintzetan egon ohi dira. Hori lortzen denean, zigilatu egiten dute bien artean hartutako erabakia, eskua emanaz edo adiskidetasunezko beste keinu baten bitartez.

c) Bitartekotza

Zuzeneko komunikazioak funtzionatzen ez duenean, edo ezinezkoa denean, komunikazio hori eskainiko duen eta bitarteko gisa jardungo duen hirugarren pertsona baten laguntza izateko aukera ematen da, baina ez egoeraren hobekuntzarako ahaleginean gatazkadun pertsonak ordezkatzeko, baizik eta beren kabuz lor dezaten laguntzeko, horien arteko aldean eta topaguneen lekuko eta laguntzaile gisa jardunez, adostasuna ahalbidetzen duen giroa sortuta. «Horien presentziak jokabide oldarkorrek neutralizatzen ditu neurri handi batean», «konpromisoen lekukoa da eta horiek betetzen diren edo ez ebaluatzen laguntzen du», eta, horretaz gain, «gatazkak konpontzeko harremanak iraunkorrek egiten dituen eta multzoaren harmonia urratzen ez duen modu bat erabiltzeari buruz taldeak duen interesa» adierazten du (Mireia Uranga, 1994). Hasiera batean arraroa bazirudien ere, antzeko beste programa batzuk bazeudela jakiterakoan, ikasleen arteko bitartekotza beste ikasle batzuek egin behar zutela onartu zen, zeregin delikatu hori betetzeko behar bezala

prestatutako ikasleak izanik; izan ere, oso garrantzitsua da «eztabaidan harrapatuta daudenen maila berbera izatea bitartekariak ere».

Bitartekotza formalaren eta informalararen arteko aldea adierazi beharra dago hemen. Bitartekotza formala modu egituratuan egiten dena da, horretarako prestatutako pertsonekin, eta lan horretara bideratutako espazio batean. Bitartekotza informalarari dagokionez, teknikari erreferentziarik egin gabe eta prozesuari egituraketa formalik eman gabe bitartekotzaren printzipioak aplikatzen diren gatazken testuinguru guztietan egiten da.

Ikastetxe honetan, bitartekotza formala ikasleen artean egiten da batez ere, nahiz eta bitartekotza informala helduen arteko gatazketan asko baliatzen den, ikastetxearen kulturaren osagai den neurrian. Bitartekotza informal asko egiten dira gurasoen artean.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 12 ikaslek (sei mutil eta sei neska) jarduten dute bitartekari gisa, ikasturte bakoitzaren erdia. Bi ikasturterako hautatzen dira, eta ikasleen erdia urtero berritzen da, eta beste erdiak, aldiz, jarraitu egiten du. Ekainean bitartekari berriak hautatzen dira, beren borondatez aurkezten diren Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean. Kanpainaren hasieran 6. mailako bitartekariak 4. mailako taldeak bisitatzen dituzte, beren bizipenak kontatzeko eta bitartekari izateko aurkez daitezzen animatzeko.

Hautatutako ikasleek ekainean hasten dute beren prestakuntza espezifikoa, eta irailean jarraitzen dute. Prestakuntza hori gatazkarekin eta bitartekotza-teknikarekin lotutako gaiei buruzko da. Urrian, Lehen Hezkuntzako 5. mailako bitartekari berriak beren zeregina betetzen hasten dira. Zapi berdea daramate lepoan, ikasleek ezagut ditzaten. Bitartekotza-taldea ezagutzeko eta programaren berri emateko oso elementu garrantzitsuak dira ikastetxeko sarreran kokatzen diren bitartekarien argazkiak. Era horretan, besteek argi daukate taldea nortzuk osatzen duten. Gainera, bakoitzari kopia bat ematen zaio etxera eramateko.

Gatazkan hasten diren ikasleak dira beren borondatez erabakitzen dutenak bitartekari baten laguntza nahi ote duten, eta laguntza nori eskatuko dioten. Horrela bada, *adostoki* batera joaten dira, gatazkako bi alderdiek askatasun osoz hitz egiteko, gertatu dena adierazteko, eta izan dituzten sentimenduak adierazteko.

Bitartekariak gatazkako bi alderdien aurrean kokatzen dira, eta beren lana komunikazioa erraztea dela eta saioan esaten dena konfidentziala dela adierazten diete. Alderdi bakoitzari hitz egitera gonbidatuko dio, besteak entzuten duen bitartean: bitartekariak esaten dena parafraseatu besterik ez du egiten, konponbidea eman gabe, inplikatuak iritsi dai-

tezen konponbidera. Adostasuna lortu ondoren, bitartekariak konpromisoak idatzi eta gordetzen dituzte.

Ikasturtean zehar, hamabost egunean behin biltzen dira beren prestakuntzaz eta jarraipenaz arduratutako aholkulariarekin. Bilera horien unea eta formatua aldatu egin da. Gaur egun, bazkalorduan biltzen dira, eta beren lanari buruz edo sortutako kezkei buruz hitz egiten dute.

Ikasturte amaieran, beren esperientziak kontatzen dituzte gurasoen batzarrean eta eskolako aldizkarian. Azken ebaluazioan beren iritziak eta proposamenak biltzen dira. Ikasturte amaierako festan, eskola-komunitate osoak publikoki eskertzen die beren lana ikastetxea uzten duten 6. mailako bitartekariak, bertso batekin eta bitartekariaren argazki batekin, guztiak sinatua. Bitartekari horiek, beren aldetik, ongietorria emateko bertso bat abesten diete hurrengo ikasturtean bitartekari izango diren 4. mailako ikasleei, eta zapi berdea jartzen diete hartzen duten lekukoaren sinbolo gisa.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

Tutoretzetan, talde guztiak gertatzen diren gatazka-egoeren eta adostokien eta bitartekariaren baliozkotasunaren ebaluazioa egiten dute aldizka. Bitartekariak beren zeregina eta esku hartzen duten gatazkak ebaluatzen dituzte etengabe. Aholkulariak ebaluazio horiek jasotzen ditu, eta proiektuaren ebaluazio orokorrean barne hartu eta kontuan hartzen dira.

Ondorio nabarmenenak honako hauek dira:

- Ikasleek jokabide normal gisa onartzen dute gatazken konponbide baketsua bilatzea, adostasunerako zonak erabilita eta beharrezkoa denean bitartekariak baliatuta.
- Emozioen eta sentimenduen kontrolari dagokionez eta besteekiko errespetuari dagokionez, ikasleek aurrerapenak egin dituztela ikusi da, eta baita beren eskolakideekiko harremanak kaltetzen direnean beren tokiak lagatzeari dagokionez ere, elkarrekin lan egitea eta lehiakortasunaren zein inhibizioaren eraginpean ez jardutea hobe dela ulertzen eta balioesten hasi direlako; era berean, beraiek hartutako konpromisoak betetzen dituzte.
- Ikasleen artean hitzezko borroka bat edo borroka fisiko bat gertatzen denean esku hartzeko modua aldatzen ari dira irakasleak: jada ez du epaile gisa jardun nahi errugabea nor den eta erruduna nor den erabakitzeko, eta, gero, bere jokabidea zigor-

tzeko eta iraindu denari konpentsatzeko zigor bat jartzeko. Orain, jokabide oldarkor hori eragin duen gatazka konpontzera gonbidatzen ditugu, gatazkaren arrazoia berriak errekonozitzera, eta konponbidea elkarrizketaren, adostasunaren eta lankidetzaren bitartez bilatzera.

- Eskolako giroa hobetu da, jokabide oldarkor gutxiago dago bai eta gatazka gutxiago ere, eta gainera denbora laburragoan konpontzen dira. Geroz eta gutxiago jutzen dugu indarkeriazko jokabideen ondorio negatiboek eragindako beldurrera eta zigorrera, eta geroz eta errazago lortzen dugu gatazkan dauden pertsonak talde guztiaren eta beren buruaren mesederako beste jokabide batzuk hartzea, harreman on bat izateko egokiak eta bidezkoak direla ulertzen dutelako.

Kasu batean, zuzendaria ikasle-talde batera hurbildu zen bitartekotza-saio batean. Baimena eskatu zien taldearen argazkiak egiteko. Eta haur batek honako hau galdetu zion, harrিতuta: «Zergatik egin nahi digute argazkia?». «Gatazka konpontzeko modu berezia delako eta hemen egiten duguna prentsan kontatu nahi dutelako» erantzun zion zuzendariak. «Eta nola egiten dute beste leku batzuetan?» galdetu zion gazteak. «Ba, guk lehen egiten genuen moduan» erantzun zuen zuzendariak, eta haur horiek jada kultura honetan bizi izan zirela eta beste formarik ez zutela ezagutzen konturatu zen.

Era berean, prozesuan egoera barregarriak gertatzen dira, non neska-mutilek beldurra duten bitartekotza-taldeko kide izateak gatazkarik ez izatea edo beti ondo konpontzea esan nahi duelako. Argazki bat egin nahi zieten aurreko eszena horretan, haur bat konturatu egin zen gatazka alderdietako bat bitartekari-taldekoa zela, eta taldeko kide batek bitartekotza baliatzen zuela ikusterakoan kezkatu egin zen, zer pentsatuko ote zuten.

Bitartekari gisa prestatzen hasi zen eta jokabide nahiko bihurria zuen beste haur batek honako hau adierazi zuen kezkatuta: «Eta, hemen baldin banago, jada ezin naiz gehiago haserretu?» Haur hori bitartekari bikaina izan zen gero.

Puntu hau azpimarratzekoa da bitartekotza-taldea osatzearekin zerikusia duenari dagokionez. Abantailak ditu taldea anitza izateak: mutilak, neskek, adin desberdinak, kulturajatorri desberdinak, maila akademiko desberdinak, eta gaitasun sozial desberdinak. Ikusi ditugun kasu batzuetan, neska-mutilek komunikaziorako, harremanetarako edo gatazken kudeaketarako ohitura txikia dute, eta bitartekotza-taldean parte hartuta harremanak egiteko modua aldatzen dute. Hainbat arrazoi daude horretarako: tresna berriak eskuratzen

dira eta entrenatu egiten dira, asko ikasten dute kanpoko gatazketan esku hartuta, eta rol desberdin bat hartzen dute: badakite planteatzen dutena modelatuko dutela espero dela eta, gainera, aurreko portaeretan arreta erakartzeko nahia baldin bazegoen ere, bizikidetzataldean parte hartuta bide eraikitzailea lortzen dute arreta eta errekonozimendua lortzeko.

Era berean, neska-mutilek bitartekarien lana baloratzen dutela ikusten da, eta kasu batzuetan beste eremu batzuetara zabaltzeko interesa erakusten dute. «Etxean ere bitartekaria izan naiteke? Izan ere, nire gurasoek eztabaidan ematen dute egun osoa» *esan zuen gazte batek*. «Parkean ere bitartekari-lana egin dezaket?» *galdetu zuen beste batek*.

Azpimarratzekoa da gatazka eta harremanak modu eraikitzaileagoan maneiatzeko elementu horiek denboraren poderioz gure ikastetxeko kulturaren osagai bihurtu direla. Ordezkapenak egiten dituzten eta urteak igaro ondoren ikastetxera itzultzen diren irakasleek esaten duten gauzetako bat da. Horixe da, hain zuzen ere, programa hauen helburu nagusietako bat.

Prozesu honen emaitza bizikidetzaren ikasketarako proiektua inspiratzen duten irizpide pedagogikoei erantzuten dien lan-egitura bat da:

- Gatazkak modu baketsuan maneiatzea aukera paregabea da ekinez bitartez ikasteko, eta ikasketa bizona errealari lotua egon dadin.
- Gatazken zati handi bat ikasleek kudeatzeak protagonismoa ematen die ikasleei ikastetxean, partaidetza aktiborako bidea da, hezitzaile-taldeari karga kentzen dio eta, norberaren mundu emozionalari buruz gehien dakitenak beraiek direla eta esku hartzeko baliabide asko dituztela transmititzen die.

5. Eranskinak

- Programaren aurkezpena bideoz.
- Irakasleen prestakuntza-plana.
- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Familien prestakuntzarako proposamenak.
- Ikasleen prestakuntza.
- Ikasle bitartekarien prestakuntza-plana.
- Bitartekotza-saioen fitxa.

3.4

Eskolako patioa, gune hezitzailea

HELBURUA:

Eskolako patioa gune hezitzaile bihurtzea eta jokoaren aukerak aprobetxatzea elkarbizitzaren ikasteko.

Patiao ikasleek jolas-testuinguru batean beren harremanak askatasunez ezartzen dituzten gune bat da, berdinen arteko interakzio edo elkarreragin askorekin. Eskolako patioaren-tzako hezkuntza-plan bat planteatu behar genuela ikusi genuen, are gehiago kontuan hartzen badugu ikasle gehienek eskola-denboraren zati handi bat ikasgelatik kanpo ematen dutela (% 37,5etik % 47,3ra bitarte). Honako helburu hauek ditugu:

- Pertsona arteko harreman positiboak ahalbidetzea, jarrera diskriminatzaile eta oldarkorrak saihestuta, autonomia handiagoko testuinguru batean.
- Joko berriak ezagutzea eta jokoen oinarritzko alderdiak praktikan jartzea: arauak eta gaitasunak; lankidetzeta eta lehiaketa; joko tradizionalak eta munduko jokoak.
- Jolasean oinarritzko jarrerak lantzea: partaidetzeta, aisialdian ongi pasatzea eta eskolakideekiko harremanean ongi pasatzea, norberaren eta besteen gaitasunak balioes-
tea, erronka komun bat betetzeko lankidetzeta, porrota onartzea, erantzukidetasuna materialen eta gune komunen erabileran.

JARDUERAK:

- a) Eskolako patioaren espazioa eta jarduerak antolatzea.*
- b) Jokoak.*
- c) Ikasleen partaidetzeta.*
- d) Patioko arauak.*
- e) Irakasle-taldearen partaidetzeta.*
- f) Behaketa sistematikoa.*

1. Abiapuntua

98-99 ikasturtean, ikasleek beren berdinekiko zituzten jarrera batzuegatik kezkatuak, azterlan bat egin genuen, eskola-komunitatearen partaidetzarekin (familiak, ikasleak, irakasleak), ikasleen jokabideei buruz, jarrera negatibo gehienak biltzen zituzten guneei buruz, eta eskola-bizikidetzan ondorio negatiboak dituzten ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduko alderdiei buruz. Gainera, denbora jakin bat eman genuen ikasleen artean ezartzen ziren harreman moten behaketa sistematikoa egiteko.

Gehienen iritziak adierazi zuenez, patioa zen ikasleen arteko gatazka gehien gertatzen ziren lekua, indarkeriazko jokabideak eragiten zituzten gunea eta, askotan, gertatutakoa argitzeko eta bizikidetzaren berrezartzeko ikasgelan denbora luzea ematera behartzen zuen horrek. Horretaz gain, egiaztatu genuen futboleko helduenek bakarrik jokatzen zutela, eta gainerako ikasleak ez ziren jolasten edo harrapaketan jolasten ziren. Ez zituzten joko tradizionalak ezagutzen, eta, era berean, ez zuten gaineratu neska-mutilentzat interesgarria zen joko berririk, erositako jokoak izan ezik. *Joko askok eskaintzen dituzten hezkuntza-aukerak galtzen ari zen eskola.*

Erantzunak bildu eta aztertu ondoren, jakin ahal izan genuen egoera ez zela oso larria, baina beharrezkoa zen arreta espezifikoa jartzea eskolako patioan gertatzen zenaren gainean. Aski argi geneukan patioan ikasleek harremanak egiten dituztela beren eskolakideekin, bat batean eta askatasun osoz, han ez baitago pertsona heldurik. Hala ere, hantxe gertatzen ziren ikasleen arteko irain, borroka eta mehatxu gehienak, mutilen agintekeriak nesken gainean eta helduen agintekeriak txikien gainean, neska-mutil batzuekiko isolamendua eta bazterkeria, eta gatazka txikiak. Ikasgelara itzultzerakoan, tutoreek egoera horiek onbiderratu egin behar izaten zituzten, kasu batzuetan denbora luzean ahaleginduz.

Tutoretzetan ikaskuntza arlo kognitibora mugatzen den bitartean, patioan ikasleek barneratutakoa jartzen dute praktikan. Eskolako patioaren hezkuntza-arloko garrantzia handiagoa da kontuan hartzen badugu ikasleen % 80 eskolako jangelan geratzen direla, eta, beraz, egunean zortzi ordu inguru ematen dituztela ikastetxean, eta horietatik hiru ordu eta erdi ikasgelatik kanpo ematen dituztela, patioan batez ere. *Eskolako patioa berdinaren arteko bizikidetzaren ikaskuntzarako hezkuntzagune pribilegiatua da.*

Lehenengo aldaketa-proposamena patioa ikasketa-mailen eta sexuen arabera banatzea izan zen, denak futboleko jolas zitezten, neskak eta mutilak, txikiak eta handiak. Egun

batean ez zen futbolik egoten, beste jarduera batzuk egiteko. Egoera ez zen behar beste hobetu: heldu batzuk txikien edo nesken jokoan «sartzen ziren» eta, beraz, gatazkak eragiten zituzten.

Futbola kentzeko proposamenak irakasleen arteko eztabaida eragin zuen, eta, batez ere maisuen artean, era honetako argudioak entzun ziren:

—Erotu al zarete? Kirol maitatuena ezabatu nahi ez dugu ba! Auzoan koplak aterako dizkigute!

—Helduen eskubidea errespetatu behar da, aski ongi irabazi baitute txikiak zirenetik une horren zain egon ondoren!

Oztopoak gorabehera, futbola ezabatzea eta patioko jolas-jarduera osoa berriz planteatzea erabaki genuen, eta baita espazioa modu ekitatiboagoan banatzea ere. Gorputz Hezkuntzako irakasleekin lan eginez plan bat lantzeko beharrari buruz pentsatu genuen, kirol-jardueren aniztasun handiagoa bultzatzeko, eta baita Musikako dibertsitate handiagoa bultzatzeko ere, joko tradizionalak abesti herrikoien laguntzarekin aurkezte aldera.

Praktikan jartzeko, irakasle guztiek 15 egun eman zituzten jokoetan parte hartzen, arauak irakasteko eta parte hartzera bultzatzeko. Hiruhilekoaren amaieran, ikasleak «ahuldu egiten zirela» ikusi genuen, eta, beraz, 2. hiruhilekoaren hasieran, irakasleek berriz ere esku hartu zuten denek jokoetan parte hartzea bultzatzeko. Bigarren ahalegin horren ondoren, patioan egoteko eta jolasteko modu berria sendotzen hasi zen.

Guretzat —andereño batek adierazi zuenez— aurkikuntza bat izan zen ikasleek joko horietan parte hartzeko norainoko interesa zuten ikustea, arazo txiki baten-gatik egun batzuetan jokorik ez antolatzea erabaki genuenean. Jokoekin jarraitzeko eskaera aho batez egin zuten, txikiak zein helduek.

Urte hauetan antolamendua aldatu egin dugu, ebaluazioak adierazten zigunaren arabera. Azpimarratu beharra dugu 2000-01 ikasturtean *Munduko Jokoak* izenekoak gaineratu genituela, Intermonek egin zigun gonbidapen baten ondorioz, eta 2005-06 ikasturtetik aurrera, arreta berezia jarri dugu *lankidetzajolasetan*.


2. Oinarrizko planteamenduak

- Ikasleek beren eskolakideekin harremanak intentsitate eta askatasun handienarekin ezartzen dituzten eskolako gunea da patioa, eta, era berean, ikasleek beren eskolakideekiko harremanetan eta berdinekiko gatazkak konpontzeko moduan, autonomia handiagoarekin, beren benetako jarrerak adierazten dituzten egoera gehien gertatzen diren gunea da patioa. Bizikidetzarako hezkuntza-proiektu batean, ahaztuta geratu orde, behatoki gisa eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako gune gisa aprobe txatu behar da.
- Askotan ikasleek familian eta gizarte-testuinguruan eta, kasu batzuetan, eskolan ikasi dituzten jokabideak erakusten dituzte, hala nola agintekeriak, mendekotasuneko, diskriminazioko eta bazterkeriako harremanak, eta abar, bereziki helduek txikien aurrean, eta mutilek nesken aurrean.
- Hezitzaile-taldeak harreman positiboak ahalbidetu behar ditu ikasleen artean, eta besteenganako bazterkeria, kanporaketa edo mespretxua eragiten dutenak prebenitu, dagokion baldintzak sortuta. Taldeko behatzaile gisa jardungo du, egoera arriskutsuak saihesteko, diskriminazioko edo indarkeriako jokabideak eragozteko eta istripu bat dagoenean laguntza emateko prest.
- Jolasa heltze-prozesuaren funtsezko jarduera da. Funtzio sinbolikoa du: hasieran, pertsona nagusietan ikusten dituzten paperak antzeztzen dituzte; gero, nagusien jardunaren zuzeneko errepresentaziorik gabe ere beren kabuz erreproduzituko dituzte harreman mota horiek.
- Oro har, taldeko jokoek hezkuntza-arloko abantailak dituzte joko indibidualekin alderatuta, antzeko lehiakortasun-planteamendua duten arren. Lankidetzajolasak oso interesgarriak dira bizikidetzaren ikaskuntzan, izan ere «jolas-jardueretan jokalariei eskatzen baitzaie helburu komun bat betetzeko parte-hartzaile bakoitzak besteekin lan egiten duen eta taldera bideratua dagoen moduan jardutea.
- Festetan, jokoetan, musikan, dantzan, arte plastikoetan, kontakizunetan (mitoak, legendak, ipuinak, eta abar) eta bestelakoetan, talde bakoitzak fenomeno naturalei eta pertsonen eta taldearen bizitzako une garrantzitsuenei aurre egiteko eta horiek ulertzeko duen modua adierazten du. Joko tradizioaletan, ikasleek euskal herriaren adierazpide batzuk eta kulturaren zati batzuk ezagut ditzakete. Munduko alderdi desberdinetako jokoak praktikatuta, kultura arteko programa indartzen da, eta ikasleek jarrera irekiak, tolerantak eta malguak hartzen ikas dezakete.

3. Programaren garapena

a) Eskolako patioan espazioa eta jarduerak banatzea

Eskolako patioa honako 3 zona hauetan zatitu dugu: *karrerapea*, joko errazagoak egiten diren estalpeko gunea; *pilotalekua*, joko batzuentzat beharrezkoa den pareta duen estalpeko gune zabala; eta, *patioa*, estalperik gabea eta handiagoa, espazio handiagoa behar duten jokoak eta kirol-jarduerak praktikatzeko. Euria egiten duen egunetan patioaren estalpeko zonak eta ludoteka erabiltzen dira bakarrik.



Ikasleak honako bi une hauetan egoten dira eskolako patioan:

- *Goizeko jolasgaraia*. Jolasteko denbora 25 minutukoa da. Bi txandatan banatzen dira ikasleak: lehen txandan Lehen Hezkuntzakoak, eta bigarren txandan Haur Hezkuntzakoak.
- *Jangelako jolasgaraia*. Jolasteko denbora ordubetekoa da. Kasu honetan ere, ikasleak bi txandatan banatzen dira: txanda bakoitzean adin desberdineko neska-mutilak daude, jangelako txanden antolamenduak eskatzen duenaren arabera.

Bi kasuetan helburu berberak dituzte, eta oinarrizko ezaugarriak eta arauak ere berberak dira, jokoan antolamendua eta garapena patioan dauden ikasleen egiturara eta patioiko egonaldira egokituta.

Jokoak praktikatzeko, ikasleak patioiko zona desberdinetan banatzen dira, zikloen arabera —asko direnean, ikasketa-mailen arabera—. Patioiko jokoan koordinazioaz arduratzen diren bi irakasleek ziklo bakoitzarentzako zona-banaketaren asteko egutegia aurkezten dute astelehenean, jolasgarai bakoitzarentzat. Egutegi hori ondo ikusteko moduan kokatzen da patioiko korridore eta ate guztietan, denek jakin ditzaten astegun bakoitzarentzat aurreikusitako zonak.

Koordinatzaileak egunero arduratzen dira programatutako jokoentzat beharrezkoak diren materialak kutxetan daudela ziurtatzeaz. Jolasgaraia baino bost minutu lehenago, tal-

de bakoitzean astebetaz materialak zaintzeaz arduratzeko hautatutako ikasleak —lehen zikloan egunero aldatzen dituzte— patiora jaisten dira, beren taldeari dagokion jokoarentzako kutxa hartzen dute eta dagokion zonan kokatzen dute (zona bakoitzean, lurrean kolore desberdinekin marraztutako lore batekin adierazten da tokia).

Patiora irteten direnean, denek dakite zein zona dagokien jolasteko eta zein den proposatu zaien jokia. Nahi baldin badute, jokoan parte hartzen dute, eta, nahi ez badute, beste jarduera batzuk egiteko askatasuna dute, baldintza bakarra antolatutako jokoak ez oztopatzea izango da.

Amaitzen dutenean, denek jasotzen dute erabilitako materialak, ikasle arduradun baten zaintzapean, eta ikasle hori izango da materialen kutxa dagokion tokian gordetzeaz arduratuko dena. Bertan, orri batean adierazten dute dena bete dela eta dena behar bezala dagoela. Materialen batean hondamenak atzematen badira, erabileraren ondorio normala den edo erabilera txarraren ondorio den balioesten da, eta erabilera txarraren ondorioa bada, hondamena eragin duenak konpondu beharko du, ezarritako arauen arabera.

b) Jokoak

Kontu handia dugu jokoak ikasleen interesekoak izan daitezen, eta, aldi berean, hezkuntza-arloko baldintza batzuk bete ditzaten, honako irizpide hauetan oinarrituta:

- Jokoak adinarentzat egokiak izatea (motrizitatea, gaitasuna, zailtasuna).
- Aniztasuna egituran (espazioa, jolas-materiala, arauak), beharrezko gaitasunak (eskuzkoak, arintasuna, indarra, mentala, eta abar), egiten diren harremanak.
- Joko lehiakorrek murriztea eta lankidetzaz-jolasak zabaltzea.
- Mutilentzako eta neskentzako jokoak izatea, bereizkeriarik gabe.

Oro har, joko berriak jangelaren jolasgaraian sartu ohi dira. Denboraldi hori zaintzeaz arduratutako monitore-taldea jokoen arauak irakasteaz arduratzen da, eta praktikatzera animatzen ditu, beraiek ere esku hartuta. Jokoa ebaluatzen da, honako alderdi hauen arabera:

- Ikasleen parte-hartzearen ehunekoa, bi sexuekiko erreferentzia eginez.
- Asebetetze-maila jokoaren praktikan.

- Zailtasun-maila jokoaren praktikan.
- Jokoan parte hartu dutenen arteko harremana.

Irakasle-taldearen eta ikasleen balioespenetan eta oharretan oinarrituta, jokoaren baldintzak edo arauak aldatzen dira, eta programazioan duten presentzia zabaldu edo murrizten da, baita ezabatu ere.

- *Joko arruntak*

Lehen Hezkuntzako ikasleek lurreko, mugimenduko, gaitasuneko, mahai gaineko, eraikuntzako eta estrategiako joko herrikoiak eta tradizionalak, eta kirol-jarduerak praktikatzeko dituzte, zikloen eta zonen arabera banatuak. Erabilitako materialak askotarikoak dira: erosiak, ikastetxean ikasleek eginak, bai eta gurasoen lankidetzarekin egingakoak ere. Era berean, gimnasioan erabiltzen ez diren materialak aprobeztatzen ditugu, eta beste batzuk hainbat erakundetatik jasotzen ditugu.

Hasiera batean, Lehen Hezkuntzako ikasleen jokoak antolatzen ziren bakarrik. Pixka bat aurrerago, Haur Hezkuntzako irakasleei proposatu genien beren ikasleentzako jokoak antolatzeari, erabil zitzaketen materialekin. Orain badauzkate motorrak, trizikloak (batzuk gurasoek ekarri dituzte), pilota saltokaria eta automobilak, eta baita eraikuntza-pieza handiak ere.

- *Munduko jokoak*

2000-01 ikasturtean, Intermonen kanpaina batean parte hartu genuen, hainbat herrialdeetako jokoak praktikatzeko beste kultura batzuetara hurbiltzeko. Gure ikastetxean geroz eta gehiago nabari den kulturartekotasunean ikasleak hezteko modu interesgarria zela ikusi genuen. Hurrengo urtean munduko jokoen astea antolatu genuen. Ikasleek harrera ona eman ziotela aintzat hartuta, jarduera hori zabaldu egin genuen gaur egungo egiturara iritsi arte.

Hilabete bakoitzean astebete ematen dugu kontinente bateko jokoak praktikatzeko. Eguero ikasketa-maila bateko ikasleek herrialde bateko joko bat praktikatzeko dute, eta, bi-tarte horretan, beste bi zonetan, gainerako ikasleek joko arruntekin jarraitzen dute.

Tutoretzan jokoa azaltzen da eta ikasleak prestatzen dira esku hartu ahal izateko. Patioan panel bat jartzen da, jokoa zein kontinente eta herrialdekoa den adierazita, oinarritzko informazioa emanez (hiriburua eta hiri garrantzitsuenak, hizkuntza, moneta, eta abar), eta herrialdeko musikarekin girotzen da.

- *Lankidetzaz-jokoak*

2005-06 ikasturteko programazioan hainbat iturritatik jaso ditugun *lankidetzaz-jokoak* berriz hartu ditugu (bibliografian bilduta daude). Ludotekan eta liburutegian praktikatzen dira, batez ere euria egiten duen egunetan eta eguerdiko jolasgaraian. Jarduera bateratuak eta parte-hartzaileak planteatzen dituzte; bertan, parte-hartzaile guztiek paper bat edo zerregin bat dute, eta denen laguntza behar dute helburu komun bat betetzeko, eta erronka bat behar bezala betetzeko elkarrekin jardun izanaren ondoriozko emaitza izan dadin. Jarduteko erabiltzen dituzten baliabideen aukerak aztertzerakoan eta gizakiaz bestelako elementuei lotutako zailtasunak gainditzekoan gozatzea da helburua.

c) Ikasleen partaidetza

Kirol-jardueretan eta patioko jokoetan parte hartzeaz gain, ikasleek zuzeneko papera betetzen dute horien antolamendu eta garapenean.

- *Materialen arduradunak*

Talde bakoitzak *ikasle arduradun* bat dauka, dagokion zonan eguneko jokoen materialak erreklamatzeko. 2. eta 3. zikloetan astero txandakatzen dira, eta 1. zikloan egunero. Bessoko bat dute bereizgarri.

Jolasgaraia hasi baino bost minutu lehenago patioa jaisten dira, koordinatzaileek prestatu dituzten eguneko jokoen materialen kutxak jasotzen dituzte, eta dagokion zonan kokatzen dituzte; zona horiek lurrian marraztutako lore batzuen bitartez bereizten dira. Jolasterakoan, jokoetan parte hartzeaz gain, materialak behar bezala eta soilik dagokion jokoa zonan erabiltzen direla zaindiaz arduratzen dira.

- *Materialak bildu eta zaindiaz*

Joko batean parte hartzen dutenek materialak zaindu eta biltzeko erantzukizuna dute. Arduradunek prozesua zaindiaz dute, materialen kutxa eramaten dute kutxak gordetzen diren lekura, eta kontrol-erregistro bat betetzen dute. Jokoa material bat gaizki erabiltzeagatik hondatzen edo hausten badu, konpondu egin beharko du edo ordezkapenaren gastua ordaindu.

- *Materialen konponketa*

Materialen mantentze-lanak eta konponketa-lanak beren borondatez hori egiteko konpromisoa hartu duten ikasle-talde baten esku egongo dira. Eguerdiko jolasgaraian egiten dute, patioko jokoan arduradunarekin batera.

- *Ebaluazioa*

Ikasurtearen amaieran, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak ebaluazio-orri bat betetzen dute beren iritziak eta hobekuntza-iradokizunak emateko.

d) Patioko arauak

Eskolako patioaren funtzionamendua irakasleek eta ikasleek landu eta adostutako arau batzuen arabera arautuko da, dagokion programan azaltzen den prozedura orokorraren arabera. Hainbat zonan ikusteko moduan jarriak daude, kontuan izan daitezkeen eta aldizka tutoretza-saioetan gogora daitezkeen.

PATIOKO ARAUAK
Arduradunak
<ul style="list-style-type: none"> • Gure zonako jokoak prestatzen ditugu. • Gure zonan jolasten gara. • Materiala zaintzen dugu. • Materiala jasotzen laguntzen dugu. • Kontrol-fitxa betetzen dugu.
Jasotzea
<ul style="list-style-type: none"> • Denen artean jasotzen dugu.
Materialaren erabilera
<ul style="list-style-type: none"> • Gure zonan erabiltzen dugu. • Behar bezala erabiliko dugu.
Irakasleen eta ikasleen arteko harremanak
<ul style="list-style-type: none"> • Elkar errespetatzen dugu. • <i>Adostokiak</i> eta bitartekariak erabiltzen ditugu gure arazoak konpontzeko.
<p><i>Oharra:</i> Modu desegokian erabiltzeagatik materiala hondatzen badugu, berria jarriko dugu.</p>

e) Irakasle-taldearen partaidetza

Irakasleek funtsezko papera dute. Klaustroak bere gain hartzen du proiektuaren erantzukizuna, patioko jarduera irakaskuntza-lanaren barruan dagoela uste baitugu. Era berean, programaren garapenean parte hartzen du zuzenean.

Irakasleez gain, bazkaltzeko eta jolasteko garaian ikasleei arreta ematen dieten 21 monitoreen taldeak paper esanguratsua dauka, funtzio hezitzailea duena eta ez soilik asistentziala.

• *Koordinatzaileak*

Irakasle batek eta jangelako arduradunak, zeinek zeregin horretarako astean zazpi ikas-saio esleituak dituzten, honako funtzio hauek hartzen dituzte beren gain:

- Jokoak hautatzea, ezarritako irizpideen eta jasotako balioespenen arabera.
- Jokoen eta kirol-jardueren plangintza-proposamena lantzea, asteko egutegia ezartzea, eta beharrezkoak diren materialak ematea.
- Jolasgarai guztietan patioan egotea.
- Munduko jokoak dinamizatzea.
- Amaitzerakoan, ikasleen, irakasleen eta monitoreen balioespena jasotzea, jarraituko duen, hobekuntzak behar diren edo bertan behera uzten ote den erabakitzeko.
- Tutoretzekin eta patioa zaintzen dutenekin harreman arina izatea.
- Beharrezkoak diren materialak erostea, horretarako onartutako aurrekontuan oinarrituta; ikastetxearen funtzionamendu-gastuetatik eta eskolako materialarentzat eta jarduera osagarrientzat familiek dituzten kuotetatik aterako da dirua.

• *Tutoreak*

Honako zeregin hauetaz arduratzen dira:

- Munduko jokoetan, jokia irakastea, jokoaren jatorrizko kontinente eta herrialdeari buruzko informazioa ematea, parte hartzera bultzatzea eta, lehen ziklokoen kasuan, jokatzen denean bertan egotea, jokia ondo egiten dela zaintzeko.

- Arauak lantzen eta onartutako arauak bere gain hartzen laguntzea, eta baita horien betetze-maila eta ez-betetzeak konpontzeko moduak aztertzea ere.
- Arduradunekin kontaktu arina izatea eskolako patioan gertatzen diren egoerei eta dinamikaren inguruan.

- *Patioko hezitzaileak*

Jolasgaraian, patioan 10 maisu egoten dira (2 koordinatzaile eta 8 tutore, txandaka), eta, bazkalorduetan, monitoreak egoten dira, honako funtzio hauekin:

- Erne egotea joko-programak funtziona dezan.
- Patioko arauak betearaztea.
- Gertatzen dena begiratzea, integratzeko arazo handiagoak dituzten ikasleei dagokien bereziki, eta datu esanguratsuenak biltzea, gero kasu bakoitzean esku-hartzeko programa egokiena lantzeko.
- Talde itxiak saihestea (nazionalitate bereko atzerritarren artean, ijitoen artean, eta abar), eraso-egoerak onbideratzea, eta gatazkak murrizten laguntzea adostokian konponbide positibo bat bilatuz edo bitartekari baten laguntzarekin.
- Jokoen garapena bertatik zaintzea ikasleen segurtasun fisikoa zaintzeko, arriskuak eta kalteak prebenituta edo, horiek gertatzen badira, kalteak artatuta.

f) Behaketa sistematizatua

Jolasgaraia une bikaina da ikasleen jokabidea ikusteko, naturaltasun handiagoko egoeran baitaude. Patioa zaintzen dutenek *etengabe eta oro har* honako hauek behatu beharko dituzte: zer egiten duten, zertan jolasten diren, zein harreman egiten diren, taldeko kide bakoitzak zein paper eta zein jarrera hartzen duen, zein gatazka sortzen diren eta nola konpontzen dituzten; betiere informazioa bereizita txikiak edo helduak direnean, mutilak edo neskek direnean, bi mutilen artean edo bi nesken artean gertatzen denean, eta abar. Behaketa horren bitartez ikasleen arteko bizikidetzan gertatzen diren atzerapenak eta aurrerapenak ondorioztatzen ditugu.

Kasu batzuetan, «Talde-kohesioa eta taldean integratzea» programan jada adierazi dugunez, irakasleak patiora joaten dira, soziogramen eta ikasgelako beste behaketa batzuen

bitartez diskriminatuak daudela, baztertuak direla edo tratu txarrak pairatzen dituztela dakigun ikasleen eta tratu txarrak jasaten dituenaren, eragiten dituenaren eta gainerako eskolakideen jokabideen *behaketa sistematiko eta partikularizatu*a egiteko. Behaketa horren eta beste batzuen ondoren, atzemandako arazoak gainditzeko programa indibidualak edo taldekoak definitzen ditugu.

4. Ebaluazioa. Ondorioak

Hainbat iturri ditugu ebaluazioak egiteko, eta ebaluazio horietatik ateratzen ditugu Klausuroak eta Eskola Kontseiluak aztertzen dituzten txostenak:

- Ikasturte amaieran irakasleek eta ikasleek betetzen dituzten balioespen-fitxak.
- Irakasleek zein ikasleek adierazten dituzten iritziak.
- Monitore-taldearen ebaluazio-fitxak, horien behaketekin eta jangelako arduradunak jasotako intzidentziekin, eta monitore-taldearen hiruhileko bileraren akta, bildutako informazioa bateratuta.

Ebaluazioak ikusita, honako ondorio hauek atera ditugu:

- *Ikasleak ikaskuntza garrantzitsuak eskuratzen ari dira:*
 - Joko berriak ikasi dituzte, horiekin gozatu dute, eta astialdia pasatzeko beste modu dibertigarri batzuk ikasi dituzte.
 - Mutilen eta nesken arteko harremanak normalizatzen hasi dira; izan ere, joko berberak egiten dituzte elkarrekin, diskriminaziorik zein bereizkeriarik gabe. Helduek txikien gainean eta mutilek nesken gainean baliatzen zuten agintekeria nabarmen murriztu da.
 - Gatazken kopurua nabarmen murriztu dela esan genezake.
 - Jokoak hautatzerakoan gustuen eta interesen dibertsitatea geroz eta gehiago aitorzen eta errespetatzen dute, eta baita gaitasunen eta trebetasunen aniztasuna ere.
 - Beste herri eta kultura batzuetako jokoak praktikatuta gozatzen dute, eta horrek lagundu egiten die beren jokoak eta kultura balioesteko, eta, aldi berean, beste kultura-adierazpen oso interesgarriak daudela ikasten dute.

- Ikasten ari dira, bizikidetzan on bat izateko, ezinbestekoa dela ondasun komunak gehiegikeriarik gabe baliatzeko arau batzuk errespetatzea, eskubide (zona bate-rako, joko batzuentzako, eta abar) eta betebeharrekin (besteen zonak errespetatzea, jasotzea eta abar), eta erantzukizunak beren gain hartzea (materialak eraman, jaso eta erregistratzea, zaintzea, besteei jokoaren arauak irakastea, eta abar).
- *Irakasleek, monitoreek eta hezkuntza-komunitate osoak honako hau ikasi dugu:*
 - Eskolako patioa gune hezitzailea da, eta horren aukera hezitzaileak ezin dira alferrik galdu; aukera horiek esku-hartze sistematizatu bat egitea merezi dute.
 - Ikastetxearen eta hezkuntza-jardunaren papera ulertzeko modu bateratu batean gabiltza, «ikastetxeko kultura» batean, hezkuntza-ildo bateratu batean.
- *Hezkuntza-komunitateko kide guztiek parte hartu dute:*
 - Irakasleek eta ikasleek, paper aktiboa dute.
 - Gurasoek lagundu egin dute, hondatutako materiala konponduz eta material berriak eginez.
 - Eskola Kontseiluak eta gurasoen Elkarteak proiektua eta horren garapena ezagutzen dute, eta beren iritziak eta balioespenak adierazten dituzte.

5. Eranskinak

- Programaren aurkezpena bideoz.
- Irakasleen prestakuntzarako testuak.
- Jokoak patioko zonetan banatzeko asteko ereduak.
- Munduko jokoen fitxak.
- Bibliografia espezifikoa.



III.
PROIEKTUA ABIARAZTEA

1

IRIZPIDE DIDAKTIKOAK

Bizikidetzarako hezkuntzaren helburua da oinarriko ahalmena eskuratzea, eta horretarako ezinbestekoa da jakintza batzuk eta egungo zein etorkizuneko bizitzako egoeretan jakintzak aplikatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta estrategia batzuk eskuratzea. EURED sareak oinarriko honako hiru alderdi hauek proposatzen ditu:

- «Indarkeriazkoak ez diren giza harremanen oinarrian dauden *kontzeptu eta printzipioak*: giza eskubideak, berdintasuna, justizia, pluralismoa, multikulturalitatea, garapen iraunkorra, etab.».
- «Indarkeriazkoa ez den jokabide baten *estrategia pertsonalak* gatazkak modu bake-tsuan konpontzeko: autoestimua, emozioen adierazpena eta kontrola, autoerregulazioa, asertibitatea, komunikaziorako gaitasunak, enpatia, etab.».
- «Taldeak eta ikastetxean indarkeriazkoak ez diren harremanak indartzen dituzten *estrategia komunitarioak*: partaidetza, interakzioa, negoziazioa, bitartekotza, taldeko lana».

1. Oinarri kognitiboak

Bizikidetzarako ikaskuntzaren lehen pausoa da ikasleek proiektua osatzen duten programen oinarrian dauden jakintzak eta printzipioak ezagutzea eta beren gain hartzea. Hortaz, funtsezkoa da, esate baterako, honako hauek ulertzea:

- Zeintzuk dira *giza eskubideak* eta osatzen dituzten *betebeharrak*, horien balio unibertsala, eta behar bezala errespetatzen ez diren moduak.
- *Ahalmen pertsonalen eta sozialen* esanahia, eta ongizate pertsonalerako eta harreman osasuntsuak izateko duten garrantzia, baita garatzeko modua ere.
- *Emozioak maneiatzea*, eta baita sentimenduak ere. Emozioak identifikatzearen eta adieraztearen garrantzia, bulkadak kontrolatzeko eta arautzeko ezinbesteko pau-

so gisa. *Arrazoibide* motak, praktikan jartzen diren prozesuak, eta bata edo bestea erabiltzen jakitea zein egoeratan izango den baliagarria.

- *Arauen* zergatia, gizarte demokratiko batean arauak legitimatzen dituzten prozesuak, eta betetzen ez direnean eman daitezkeen erantzunak, hartzen den justizia-ereduaren arabera.
- *Gatazka* motak, jokoan sartzen diren alderdiak, gatazkak gainditzeko erabil daitezkeen bideak, eta horien abantailak eta eragozpenak, etab.

Ikasketa horiek talde guztiek astean behin egiten dituzten *tutoretza-saioetan* egiten dira. Marrazkien, ipuinen, jokoan, testu errazen, soziodramen, jarduera plastikoen eta beste-lako jardueren eta baliabideen bitartez, ezagutu dituzten printzipioekin bat datozen jokabide motak dakizkiten eta probatzen dituzten norberaren eta besteen egoeren eta jokabideen hausnarketa eta eztabaida, eta analisisa bilatzen dugu.

Tutoretza-ekintzaren urteko Planean tutoretza-saioen oinarritzko ildoak eta gaiak zehazten dira, eta baita horien aldi baterako garapena ere, ziklo bakoitzaren tutoretza-taldeek tutoretza-saioetan zehazten eta aplikatzen dituztenak. Planak ikasturte bakoitzean nahi dugunari erantzuten dio, honako hauek kontuan hartuta: jada ikasi eta sendotu dena, gogoratua eta eguneratua izan behar duena, eta nahi ditugun ikaskuntza berriak. Pixkanaka, gaitasunak eta ahalmenak eskuratzeko pausoak zikloka banatu ditugu, pertsonen garapen harmonikoa lortze aldera. Adibide gisa, 2006-07 ikasturtearen tutoretza-ekintzaren Planaren aurkibidea jaso dugu:

Hilabeteak	Saio kopurua	Gaiak
Iraila	7 saio	Arauak / Ekintza konpontzaileak. Ohiturak: ordena, karpetak, etab. Harreman adeitsuko motak.
Urria	3 saio	Gatazken eraldaketa eta bitartekotza.
Azaroa	2 saio 1 saio	Ingurunearen zaintza, landatzea, garbiketa-kanpaina. Soziograma.
Abendua	2 saio 2 saio	Adeitasuna. Talde-kohesioa.
Urtarrila	3 saio	Talde-kohesioa.

Hilabeteak		Saio kopurua	Gaiak
Otsaila	<i>Denak</i>	1 saio	Arauen eta adeitasun-ohituren berrikuspena.
	<i>1. eta 2. zikloa</i>	1 saio 1 saio	Jokoak/kohesio-jarduera. Agenda 21.
	<i>3. zikloa</i>	2 saio	Agenda 21.
Martxoa		3 saio	Autoestimua.
Apirila		1 saio	Gaitasun sozialak.
Maiatza		4 saio	Ahalmen sozialak eta garapen morala.
Ekaina		1 saio 2 saio	Ahalmen sozialak eta garapen morala. Ebaluazioa.

2. Balioak eta jarrerak barneratzea

Gaitasun sozialaren eta herritartasun-gaitasunaren ikaskuntzan, tutoretza-saioretan ikasitakoa, plano teorikoan eta simulatutako egoeretan, bizitza errealean beren portaerak orientatzen dituzten jarrera bihurtu behar dira. Ikaskuntza teorikoa ez da nahikoa. Printzipioak praktikarekin *barneratu* behar dira.

Ikastetxean, ikasgelan edo patioan, eskolako zereginetan edo jokoetan, aukera asko aurkezten dira tutoretza-saioretan aztertutako estrategia pertsonalak eta komunitarioak baliatzeke. Ikastetxeko hezitzaile guztiak, eskolako hezkuntza-ekintzaren arduradun gisa, saiatu egiten dira ikasleek ikasi dutena praktikan jar dezaten, behar dutenean lagunduta edo, dagokionean, portaera jakin baten inkoherentzia eta desegokitasuna ikusarazita, aldi berean beren portaera egokia izateko orientatuz.

Balioen eta jarreraren ikaskuntza familia-eremuan hasten da, lotura emozional handiak ditugun pertsonak gauzatzen dituzten balioei eta jarrerei afektiboki lotuta gaudelako. Hauxe da familiaren oinarritzko hezkuntza-mekanismoa lehen haurtzaroran. Eskolaren zeregina da ikasle bakoitzari lehen ikaskuntza hori zabaldu eta hobetzen laguntzea, arrazionalki aurre eginda eta beste pertsonekin hitz eginda, baliozkotzat eta baliagarritzat hartzen dituzten printzipio batzuk berezko gisa hartzen dituzten arte. Horrek ez du esan nahi prozesu horretan, bereziki Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean, ikasleen bizitza afektiboa eta emozionala alde batera uzten dugunik; aldiz, benetan

kontuan hartzen ditugu haurren sentimenduak, afektuak eta bulkadak, eta horien garapen pertsonalean eta harremanen garapenean alderdi positiboa izan daitezen lan egiten dugu: beren gogo-aldarteak adierazten laguntzen diegu, eurekin enpatizatzen eta harreman afektiboak ezartzen saiatzen gara, eta beren portaerek bulkada emozionalei, sinismenei eta jarrera pertsonalei erantzuteko orientabideak ematen dizkiegu.

Programa bakoitzean ikasleek proposatu ditugun ahalmen eta gaitasun zehatzak praktikatzekeo jarduera egoki batzuk hautatzen ditugu, ikaskuntzako egoerak bihurtzeko baldintzak jarritz. Gure helburua da ikasleak gertatzen denaz jabetzea eta ikasi dutenaren arabera jarduten saiatzea, eta, jardun horretan, posiblea dela egitea eta norberarentzat eta talde osoarentzat atsegina dela ikustea.

Programa guztien jardueretan eta eskola-bizitzaren multzoan, herritarren bizikidetzarako beharrezkoak diren ahalmenen oinarritzko gaitasunak lantzen dira:

- Aseritibitateko, enpatiako, entzute aktiboko, adostasuneko eta bestelako *gaitasunak praktikatzea* irakasleekin eta eskolakideekin dituzten harremanetan, gatazkak konponterakoan, ikasgelako arauak lantzerakoan, ikaskuntza-taldeetan ikasgelan eta jokoe-tan, etab.
- *Taldearekin parte hartzea* eskolako lanean, tutoretza-saioetan, jokoetan, erabakiak hartzerakoan, etab.
- *Erantzukizunak beren gain hartzea*: ingurunearen zaintzan, patioko jolas-materialen banaketan, zaintzan eta bilketan, materialen bilketan eta birziklapenean, bitartekotzan, etab.
- *Taldean lan egitea* ikasgelako lankidetzajardueretan eta patioko jokoetan.
- *Ahulenari laguntzea*: helduek txikienei, loreak landatzerakoan eta lorategia zaintzerakoan, zerbait ikasi dutenek zailtasunak dituztenei, etab.
- Egindako jarduerak eta eskuratutako ikaskuntzak *ebaluatzea*.

3. Taldea, erreferentea eta ikasteko tokia

Ikasleentzat, taldea gertuko ingurunea da. Hartan, ikasleen eskola-bizitza garatzen da, eta ikasle guztiak harremanetan jartzen dira etengabea adin berbera, interes pertsonal ber-tsuak eta ikasketa-zeregin berdinak dituzten ikaskideekin.

Bizikidetza zer den ikasteko prozesuan, taldea lehen eredia da ikasleentzat, eta gizartean bizitzea zer den erakusten die. Talde barruan, elkarren artean alde pertsonal eta kultural nabariak dituzten ikasleekin harremanetan nola jarri ikas dezakete ikasleek, eta, horiekin guztiekin, talde bat osa dezakete, nor bere ahalmenetatik eta taldean kokatzeko duen modutik abiatuta. Ikasle bakoitzaren gaitasun eta estrategia pertsonalek eta komunikatiboek baldintzatu egiten dute taldean betetzen duen zeregina. Aldi berean, gainera, ikasleek gaitasun eta estrategia berriak ikasten dituzte, taldean aurki ditzaketen oztopoak gainditu ahal izateko, eta, hartara, aukera berriak edukitzeko.

Taldearen garrantziaz konbentziturik, talde-kohesioari arreta espezifiko eskaini diogu, baita ikasle guztiak taldean integratzeari ere. Gainera, taldea irakasgai guztien abiapuntu bihurtu dugu, tutoretzetan eginiko lanaren bitartez. Taldea toki egokia da hausnarketa egiteko eta iritzi, esperientzia eta bizipenak elkartrukatzeko, baita konpromiso kolektiboak ezartzeko ere.

Hortaz, *tutoretza-ekintza* funtsezkoa da, ekintza horren eginkizun nagusietako bat taldea testuinguru berezi bat bihurtzea dela aintzat hartuta, hain zuzen ere kide guztiek elkarrekin ikasteko eta zeregin horretan elkarri laguntzeko aukera izango duten testuingurua. Aldi berean, ikasle bakoitzak testuinguru horretan betetzen duen zeregina aztertu behar du tutoretza-ekintzak, baita ikasle bakoitzaren beharrei erantzuten eta gaitasun eta ahalmenen adierazpen eta garapenerako bidea errazten ahalegindu ere.

Ikasteko zailtasunak dituztenei laguntzea funtsezkoa da taldea integratzeari begira. Ikuspegi horretatik abiatuta, irakas-denboran ikasgelatik kanpoko laguntza indibidualak murrizten ahalegintzen gara, eta ikasgela barruko laguntzari lehentasuna ematen diogu. Hala, bi irakaslek edo gehiagok talde txikien ardura hartzen dute, edo bestela taldea banatu egiten dugu, gai eta une jakin batzuetan.

Gainera, irakas-denboratik kanpo ere laguntza eskaintzen dugu. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Autonomia Erkidegoen laguntzarekin bultzaturiko PROA (Indartzeko, Orientatzeko eta Laguntzeko Programak) programetan parte hartzen dugu. Lehen hezkuntzan honako helburu hauek dituzte programa horiek: lanean antolatzeko eta irmo aritzeko ohiturak hartzea; ikasteko adorea ematea, lan egiteko modu eraginkorrek proposatuz; irakurketari loturiko gaitasun eta jarrerak hobetzea; eta jakintzak eta abileziak indartzea, arlo instrumentaletan. Auzoko eta boluntarioen beste hainbat erakunderen laguntza ere badugu, baita Bilboko Udalaren laguntza ere.

4. Eskola-testuinguruaren koherentzia

Lortu nahi den helburua lortzeko, garrantzi handikoa da portaera modu berrien bizipena helburu horretara propio programaturiko jardueretara ez mugatzea; hori ez ezik, ikasleek ikusi eta sentitu behar dute ere haien hezkuntza gidatzen duten printzipioak bizirik daudela eskolaren bizitza eta jarduera osoan.

Taldeak ez daude bakartuta, eskolako parte baitira. Ikastetxeak, bere antolamenduaren eta bere funtzionamenduaren bitartez, metodologia eta ebaluazio jakin batzuk erabiliz, eta bereziki ikastetxeko eta ikasgelako giroaren bidez, *ezkutuko curriculum* bat garatzen du, eta horrek balio-jarrera eta bizi-eredu jakin batzuk transmititzen ditu, indar handiz gainera, inolako galbahe kritikotik ez dela igarotzen aintzat hartuta. Eskola-ereduaren, eredu didaktikoaren eta eskola-bizitzan ikasten den isilbidezko curriculumaren bitartez, irakatsitakoa indartu egiten da, baldin eta esanbidezko curriculumean adierazitako balio eta printzipioekiko koherentzia gordetzen bada.

Eskola-eredu jakin baterantz egin nahi dugu aurrera, hain zuzen ere *kultura arteko eskola barne-hartzaile baterantz*. Horren arabera, ikasleek eskola haiena dela sentitzen dute, aniztasuna errespetatu egiten dela eta jakintza eta behar guztiek babesa dutela ikusten dute, talde bateko kide sentitzen dira, ikasle bakoitzak bere zeregina betetzen du guztion ongiari laguntzeko, eta, aldi berean, horrek bere gaitasun pertsonalak identifikatzeko eta garatzeko aukera ematen dio. Ondo asko dakigu jatorrizko desberdintasunek eragina dutela ikasketan eta eskola-bizikidetzan, eta, oztopo hori gainditzeko, taldekideen arteko elkarreraginak erraztu egiten ditugu eta ohiko testuingurua aberastu egiten dugu, askotariko proposamen erakargarriak eginez, ikasle guztien esperientzia pertsonaletatik gertukoak, ikasle bakoitzaren aurrerapen eta zailtasunen jarraipen indibidualizatua egitearekin batera.

Eskola-bizitzan hezkuntza-diskurtsoa praktikatzeko, honako helburu hau eduki behar dugu gogoan une oro: hezkuntza-komunitatearen kolektibo guztien parte-hartzerako bideak ezartzea, eta bakoitzaren ahalmenak eta erantzukizunak zehaztea. Arauak adostu eta aztertu egiten dira, proiektua gidatzen duten printzipioen arabera. Ikasleak elkartzera koan eta ikasgela antolatzerakoan, taldearen aniztasuna eta kohesioa hartzen ditugu aintzat. Jarduera didaktikoetan, berriz, bakoitza talde-lanean inplikatzeko bilatzen dugu.

Ikastetxearen eta ikasgelaren giroa irakasleen eraginpean dago neurri handi batean; zehazkiago, irakasleek beren irakasle-eginkizuna ulertzeko eta garatzeko duten modua-

ren eraginpean. Aldez aurretik ohartarazi dugun bezala, irakaslearen begirada funtsezkoa da, begirada horren bitartez irakasleak onartzen edo baztertzen duen, ahalmenak onartzen edo ukatzen dizkion, eta irakaslearen laguntza edukiko duen edo ez igarriko duelako ikasleak. Irakasleak atseginez begiratzen baditu ikasleak, ikasle guztienganako ardura erakutsiz, hori lagungarri izango da harreman pertsonala ezartzeko eta ikasteko prozesu ooren oinarria den komunikazio-gaitasuna hobetzeko.

Aurkezten ari garen ezaugarriak biltzen dituen proiektua zehaztu eta garatu ahal izateko, irakasle guztiak beren irakasle-zeregina zintzotasunez eta sakonetik aztertu behar dute, baita irakasle taldearekiko, ikasleekiko eta familiekiko harremanak aztertu ere, eta, hortik abiatuta, ezarri nahi dugun hezkuntza-ereduari erantzungo dioten jarrera eta portaerak berenganatzeko konpromiso kolektiboa eta pertsonala hartu behar dute.

5. Familiaren, eskolaren eta auzoaren arteko lankidetzak

Bizikidetzarako hezkuntzan, eskola-hezkuntzaren beste zenbait eremutan baino gehiago, eskolak familiaren laguntza behar du. Lehen haurtzaroan, ezinbesteko zeregina betetzen du gizarteratzeari dagokionez, eta haurren eredu nagusia izaten jarraitzen du nortasuna heltzeko prozesuan zehar.

Familien laguntza bilatzea lehentasunezko oinarria da gure proiektuarentzat. Lehenik eta behin, familien konfiantza lortu behar da, errespetuan oinarritutako harreman arin eta atseginen bitartez. Bigarren, familiei ahalik eta informazio gehien eman behar zaie ikastetxeko proiektuaren ezaugarrien inguruan, eta hezkuntza-irizpideak haiekin partekatu behar dira, programen helburu eta oinarriei buruzko informazio- eta prestakuntza-prozesuen bitartez. Hirugarren, familian eta eskolan elkarri laguntzeko jardunbide egoikiak proposatu behar dira. Eta, azkenik, familiei iritzia eskatu behar zaie, diagnostikoa egiterakoan zein prozesu eta emaitzak ebaluatzerakoan.

Azkenik, auzoaren inplikazioa ere funtsezkoa da gure proiektuarentzat, hezkuntza-eragilea den aldetik, eta, horren haritik, auzokoen askotariko elkartean (gazteek, helduek, emakumeek eta hirugarren adinekoek osaturikoak, kulturalak, sozialak, parrokiakoak, kirol-arlokoak eta abar) parte-hartzea eta laguntza bermatu behar da. «Abusu sarean» sarea sortzen ari gara, Komunitatea Garatzeko Plana abian jartzeko, eta, plan horren barnean, auzoko haur eta gazteen hezkuntzaren aldeko jardunari lehentasuna emateko. «Auzora irekitako eskola» programan azaldu dugunez, elkarrekin egin ditugu lehen urratsak, eta

zenbait jardun burutu ditugu ildo horretatik, baina programa hastapenetan dago oraindik, borondate kolektiboa argia bada ere.

Lehen fase horretarako, honako jardun-ildo hauek ezarri ditugu:

- Auzoko kide izateko kontzientzia, eta eremu eta ondasun publikoak behar bezala erabiltzeko —eta horrela auzo gero eta garbiago, zainduagoa eta bizigarriagoa egiteko— guztion inplikazioa sustatzeko programak lantzea, topaketarako eremu fisikoak ahalbidetuko dituen hiri- eta hirigintza-planteamendu berria eginez.
- Gatazkak modu konstruktiboan konpontzen ikasiz bizikidetzan aurrera egitea ahalbidetuko digun bake-kultura positiboa sustatzea.
- Kidetasun-zentzua, harremanak eta gizarte-konpromisoa indartuko dituen boluntarioria sustatzea, auzoko komunitatearekiko eta ikastetxeekiko zerbitzuetan, hala nola ingurumenaren zaintzan, astialdi-klubetan, adinekoentzako laguntzan, ikasteko edo integratzeko zailtasunak dituzten ikasleekiko laguntzan eta abar.
- Eskolaz kanpoko jarduera osagarrien eskaintza publiko zabala egitea, aldi berean kohesioa eta guztiontzako aukerak bermatzeko, berdintasun-senez jardunez desberdintasunak gainditzeko.
- Auzoko gizarte-sarea dinamizatzea, kolektibo guztiek —familiak, gazteak, zaharrak eta abar— zuzenduriko eta kolektibo guztientzat bideraturiko eztabaida eta prestakuntzarako eremuak sortuz, eta kolektibo horien arteko harremanak erraztuz.

2

ANTOLAMENDU ALDERDIAK

Ikastetxe batean edozein proiektu abian jartzeko, antolamendu-egitura bat bermatu behar da. Esperientziak *baldintza* jakin batzuk bete behar direla erakusten digu.

1. Proiektuaren zuzendaritza

Ikastetxeko proiektu baten arrakasta bermatzeko, lehenik eta behin, zuzendaritzak helburu argiak proposatu behar ditu, jardun-ildo partekatuak zehaztu behar ditu, eta, helburuak lortzeko, interes kolektibo eta indibidualak bateratu behar ditu.

Irakasleen klaustroak, berrikuntza-proiektuen bitartez esperimentatu beharreko proiektuak aztertu eta zehazten ditu, eta proiektu horiei buruzko hausnarketa egiten du. Jarraian, proposamen hori Eskola Kontseiluari helarazten dio, abian jarri aurretik onar dezan eta urteko Planera bil dezan. Behin proiektua esperimentatu ondoren, Klaustroak ebaluatu egiten du, eta ikastetxeko ohiko praktikara biltzeko interesgarria eta bideragarria ote den ikusten du, eta zer ziklotan ezarri behar den eta nola garatu behar duen erabakitzen du.

Hasiera-hasieratik, *Zuzendaritza Taldeak* bere gain hartu zuen proiektuaren gidaritza, eta irakasle guztien eta eskola-komunitate osoaren konplizitatea eta inplikazioa bilatu zituen une oro. Talde horretako kide ez bada ere, aholkulariak eginkizun horretan parte hartzen du, eta garrantzi handiko zereginen bitartez laguntzen du. Zuzendaritza Taldeak, Proiektuaren Batzordearekin batera, askotariko bideetatik etor daitezkeen eskari eta ekimenak biltzen ditu, eta Klaustroari aurkezten dizkio. Irakasleen prestakuntza-prozesuak ekarri eta kudeatzen ditu, eta haien proposamenak biltzen ditu: Gainera, eztabaida bideratzen du, Klaustroari erraztasunak emateko erabakiak hartzerakoan. Behin proiektua abian jarri ondoren, horren jarraipena egiten du, eta zalantzak argitu eta zailtasunak konpontzen ditu. Azken batean, prozesu osoa bultzatzen du.

2. Irakasle taldeen koordinazioa

Irakasleen koordinazioa beharrezkoa da talde-lana garatzeko. Koordinazioa oinarritzen da, batetik, klaustro osoak partekatutako oinarri batzuetan, baterako prestakuntza-prozesuetan eratu direnak, eta, bestetik, errespetuan —eta, ahal den neurrian, atseginean— oinarritutako pertsona arteko harremanetan.

Ikastetxeko zuzendariak, ikasketaburuak, aholkulariak, ziklo bakoitzeko irakasleen ordezkariak eta jangelako arduradunak osatzen dute *Proiektuaren Batzordea*, proiektua koordinatzen duen organoa. Ikasturte bakoitzaren programazio orokorra ezartzen du, programa bakoitzaren jarduerak, arduradunak, baliabideak eta tenporalizazioa zehaztuz, eta ikasleei helarazi beharreko mezuak antolatzen dituen *Tutoretza Ekintzako urteko Plana* lantzen du. Ikasturtean zehar, jarduerak abian jartzea koordinatzen eta ikuskatzen du, eta jarduera horien guztien funtzionamendu egokia bermatzen ahalegintzen da, baita proiektu osoa, bere zailtasunean, behar bezala gara dadin ere.

Batzorde hori eta *Pedagogia Koordinazioko Batzordea* bereizi behar dira. Azken hori ikastetxearen jarduera orokorraren arduraduna da. Ikastetxeari oro har eragiten dioten proiektuko jarduerak koordinatzen ditu Pedagogia Batzordeak.

Irakasleak taldetan antolatzen dira. Ziklo bakoitzeko taldeek nor bere ziklora egokitzen dituzte ildo orokorrak, abian jarri beharreko jarduerak diseinatzen dituzte eta jardueraren funtzionamendua aztertzen dute, eta Proiektuaren Batzordeari horren guztiaren berri ematen diote, gainerako ohar eta proposamenekin batera. Proiektuaren garapenean, zikloetako *tutore taldeek* oso zeregin garrantzitsua betetzen dute, tutoretzako talde-saioak prestatzen baitituzte plan orokorra zikloetako ikasleen ezaugarrietara egokituz. Lanerako gidoi edo programak prestatzen dituzte, baita jarduerak egiteko behar dituzten material eta baliabideak ere.

Irakasleez gain, *begirale taldea* dugu, jangelako arduradunak koordinatua, goizeko eta arratsaldeko eskola-saioen bitarteko denboran eskola-jangelan bazkaltzen dutenei arreta eskaintzeko ardura hartzen duena, bazkalorduan eta patioan. Talde horretako kide guztiek astialdiko begiraleen prestakuntza edo antzekoa dute gutxienez, eta elebidunak dira.

3. Irakasleen inplikazioa

Irakasleen inplikaziorik gabe, ahalegin oro ustela izango litzateke. Inplikazio hori lortzeko, betidanik argi ikusi dugu irakasleek funtsezko zeregina bete behar dutela prozesu osoan, proiektua guztiona eta norberarena dela sentitzeko moduan. Guztiek ere parte hartzen dute proiektuaren betearazpenean, nor bere zereginekin eta erantzukizun-mailarekin.

Nabarmentzekoa da *tutoreek* betetzen duten zeregina, proiektuaren euskarri diren mezuak helarazi behar dizkietelako nor bere taldeko ikasleei, eta., aldi berean, programetako jarduera asko abian jartzeko erantzukizuna ere hartu behar dutelako, tutoretza-bileran koordinatu ondoren.

Irakasle guztiek proiektuari nor bere ekarpena egiten diote, ez soilik zeregin zehatzetan, baita irakasle-jarduera osoa eta ikasle eta familiekiko harremanak gidatzen dituzten printzipioak betez ere. Ekarpen hori ezinbestekoa da proiektuaren helburuetan aurrera jarraitu ahal izateko.

Programa jakin batzuetan, zenbait irakaslek *erantzukizun espezifikoak* hartzen dituzte beren gain, eta hori kontuan hartzen da bakoitzaren lan-orduak zenbatzerakoan:

- Aholkulariak eta tutoreak taldean integratzeko zailtasunak dituzten edo bazterkeria-arriskuan dauden ikasleei laguntzeko programak prestatzen dituzte, eta bitartekotzan bildutako ikasleen prestakuntzaz eta arretaz arduratzen da.
- Hizkuntza indartzeko emakumezko irakasleak eskolatzen hasi berri diren atzerriko ikasleei eta haien familiei arreta eskaintzen die, eta, oro har, ikastetxean kultura-aniztasunarekin zerikusia duen oro dinamizatzen du.
- Gizonezko irakasle bat Agenda 21 programaren eta Udalarekiko koordinazioaren arduraduna da.
- Emakumezko irakasle bat eta jangelako arduraduna patioko jolasez arduratzen dira, hau da, jolasak programatu eta garatu egiten dituzte, beharrezko materialak prestatzen dituzte eta abar.
- Proiektuaren Batzordeko kide guztiek astean bi saio ematen dituzte lan-bileretan, irakas-denboran.

Irakasleen inplikazioak harreman zuzena du ikastetxean duten *egonkortasunarekin*. Irakasleak bere burua plantillako kide egonkor gisa ikusten duen neurrian, ikastetxean egiten diren proiektuekiko uztartuago dagoela ikusten du. Eta, aldi berean, ikastetxeko proiektuetan inplikaturik sentitzen den heinean, ikastetxean jarraitu nahi du. Azken urteetan zera egiaztatu dugu, ikastetxean plaza duten irakasle gehienek plaza horri eusten diotela, eta, aldi baterako, behin-behineko edo ordezkapeneko plaza dutenek, berriz, gure ikastetxea berriz ere hautatu egiten dutela, ahal duten neurrian. Hala, lanbide-arloan eta arlo pertsonalean langileen gogokoak diren proiektuetan inplikaturik, egonkortasun nabaria lortzen dugu plantillan, eskolako bizi eta jardueraren, eta, zehazkiago, proiektuaren dinamikaren, mesedetan.

4. Eskola- eta gizarte-komunitatearen parte-hartzea eta laguntza

Aldez aurretik adierazi dugun bezala, gure proiektuarentzat garrantzi handikoa da familien eta gizarte-komunitate osoaren parte-hartzea eta laguntza lortzea. Horren ondorioz, proiektuaren antolamenduan eta dinamikan, kontu handiz ibiltzen gara guztiek parte hartzeko eta laguntzeko aukera izan dezaten, nork bere aukeren arabera.

Familiei ikasturtearen proiektu eta jarduerari buruzko informazio guztia aurkezten zaie ikasturte-hasierako bileretan, ahoz eta idazki batean jasota. Programa berri baten hasieran, familia guztiei informazio idatzia helarazten diegu, eta, GUREA aldizkariaren bitartez, familiek etengabeko informazioa jasotzen dute ikastetxeko bizitzaren, eta, zehazkiago, proiektuaren garapenaren, inguruan. Familiek lagundu egiten digute prestaketa berezia eskatzen duten edo zailtasun handiagoa duten zenbait eskola-jardueratan.

Auzokoen erakundeen laguntza bultzatzeko, sare bat sortzen ari da, aldian-aldian egin ditugun bileretatik abiatuta. Giza Eskubideen Zuzendaritzak kontrataturiko pertsona batek laguntzen digu, lanaldiaren herenetik lanaldiaren erdira bitarte jardunez, eta, sareko idazkari gisa aritzeaz gain, elkarte eta talde guztiak koordinatzen ditu batera planifikatutako jardueretan.

5. Baliabideen kudeaketa

Proiektu batean baliabide ugari biltzen dira: pertsonak, funtzionalak, didaktikoak, materialak, instalazioak eta ekonomikoak. Gure ikastetxeak Euskal Autonomia Erkidegoko

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe baten ohiko baliabideak ditu, nola irakasleei eta jangelako denborarako hezitzaileei dagokienez, hala funtzionamendugastuetarako baliabide ekonomikoei dagokienez. Eskura ditugun baliabideak optimizatzea, horixe da gure zeregin nagusia.

Irakasleei dagokienez, orduak behar bezala banatu nahi ditugu, figura jakin batzuen ordu kopurua murriztuz edo espezialistak ekarriz. Ikasturtearen hasieran, klaustroaren lehen bileran inolako erabakirik hartu aurretik, denbora horiek baliatzeko irizpideak adostu egiten dira. Irakasleen bajak gertatzean, taldeei arreta eskaintzea lehentasuna da guretzat. Premisa hori oinarritzat hartuta, denbora-tarte jakin batzuk esleitzen dira, lehentasun-ordena honen arabera:

1. Zuzendaritza Taldea, zikloko koordinatzaileak, Batzordeetako kideak eta Proiektuko jardueren arduradunak, agindu zaizkien eginkizun eta zereginen arabera.
2. Taldeei laguntzea, ikasgeletako kideak banatuz edo ikasgelaren barnean.
3. Mailaz mailako taldeak osatzea, urteko Planean bilduriko lanak egin ditzaten.
4. Premia duten ikasleei laguntza indibidualak ematea.
5. Lan indibiduala.

Alderantzizko ordenari jarraituz betetzen dira bajak: nork jarduten duen lan pertsonalean, nork egiten duen laguntza indibiduala eta abar.

Baliabide ekonomikoei dagokienez, Hezkuntza Sailak, ikastetxe guztiei irekitako urteko deialdietan, irakasleen prestakuntzako eta hezkuntza-berrikuntzako proiektuei eskaintzen dizkien laguntzak dauzkagu. Gure proiektuak Hezkuntza Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren sariak irabazi ditu, eta, horri esker, kontuan hartzeko moduko diru-kopurua eskuratu dugu une jakin batean.

Zenbait jardueratarako, familien ekarpena dugu. Ikasturte bakoitzean, diru-kopuru jakin bat ekartzen dute familiek jarduera osagarrietarako. Ikastetxeko Ikasleen Gurasoen Elkarteak, halaber, diruz laguntzen du ahal duen neurrian.

3

PROGRAMAK GAUZATZEKO PROZESUA

Proiektua osatzen duten programak gauzatzeko prozesuan zenbait faktorek eragin dute, hala nola programen itxura berritzaileak, planteaturiko jardueren tamainak, ikastetxearen ibilbideak, beharrezko baliabideek eta abar. Salbuespen hori gorabehera, programa guztiek antzeko prozesua izan dutela esan dezakegu, eta guztiekin ere jarraian aurkezten dizkizuegun faseak igaro ditugula.

1. Hobetzeko arloa zehaztea eta diagnostikoa egitea

Lehenik eta behin, aurre egin nahi diogun *aukera-arloa* zehaztu behar dugu. Horrekin, irakasle guztien iritziz —eta batzuetan eskola komunitatearen iritziz— eskolako hezkuntza-zereginetik zer hobetu behar den azpimarratu nahi dugu, hobekuntza horretarako baldintza egokiak betetzen direla aintzat hartuta.

Zuzendaritza Taldearen, zikloko talde baten edo irakasle talde baten kezka batetik sortzen da ekimena, edo bestela irakasleek prestakuntza-saioetan egindako hausnarketen haritik. Arlo guztietatik, hasiera batean adostasun handiena lortu den arloa edo arloak hautatzen ditugu. Lehenik eta behin, *diagnostikoa* egin behar dugu, baina ez sen hutsez; diagnostikoak errealitatearen informazio zehatza eskaini behar digu, abiapuntu egokia izan behar du guretzat. Inkesten, behaketa sistematikoen eta bestelako baliabideen bitartez, datu objektibo eta balioespen kuantifikatu batzuk biltzen ditugu, eta horrek aukera ematen digu irakasleek arlo bakoitzean dauzkaten premiak aztertzeke, baita guk gure irakasle-jardutean premia horiei ematen diegun erantzuna aztertzeke ere.

Batzuetan adostasuna azkar-azkar lortzen da, guztiok ere eskola-jardueraren alderdiren bat hobetu beharra partekatzen dugulako eta hori lortzeke modua bilatzeko prest gaudelako. Beste batzuetan, ordea, prozesua motela izaten da, eta irakasle guztiak heltzeko denbora eskatzen du: kasu horietan, funtsezkoa da talde txiki bat etengabe eta irmoki aritzea, hausnarketarako elementu berriak behar den garaian taldera biltzeko ahaleginean.

2. Prestakuntza

Behin zer hobetu nahi dugun eta nondik abiatzen garen jakin ondoren, gure kezkei erantzuna emango dien proposamena eraikitzeko unea iristen da. Prestakuntzaren eta gure jarduteari buruzko hausnarketaren unea da, baita alternatibak bilatzeko unea ere.

Proiektu osoa eta proiektuko programa guztiak proiektu horren oinarria ere badiren planteamendu teoriko batzuetatik abiatzen dira. Gure ideia, pentsamendu eta esperientziak testuinguru teorikoan alderatzean, eguneroko jardutearen testuinguru zehatzetik urrundu egiten gara, testuinguru hori objektibo bihurtuz hartan zer geratzen den kritikoki aztertzeko. Aldi berean, jarduteari buruz hausnarketa egitean, euskarri teknikoaren bermearekin, senonetik abiatuta egiten duguna sakonagotik azter dezakegu, eta, azterketa horren ildotik, atzemandako akatsak gainditzea ahalbidetuko diguten alternatibak planteatu ditzakegu.

Ikasturte bakoitzean, *irakasleen prestakuntza-plana* prestatu eta garatzen dugu, eta, plan horretara, ezagutu nahi ditugun eta proposamen berri bat egin nahi diegun gai berriak biltzen ditugu, baita alde zuzenetik gure hausnarketan jomugan egon diren gaiak ere, alde zuzenetik hasitako jardutean sakontzeko eta aurrera egiteko helburuarekin. Proiektuaren Batzordeak planaren proposamena egiten du, eta, Klaustroak proposamen hori onartu ondoren, Zuzendaritza Taldeak garatu egiten du, asteko prestakuntza-saioak prestatzeaz gain. Irakasleek astean arratsalde bat ematen dute jarduera horretan, eta, arratsalde horretan, ikasleek ez dute irakas-jarduerarik, nahi dutenek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko aukera badute ere.

Prestakuntza-saioetan irakasle guztiak hartzen dute parte. Zenbait modalitate erabiltzen ditugu: saio orokorretan, aditu batek funtsezko lerroak aurkezten ditu edo taldeak hausnarketa egiten du testu batetik abiatuta; beste saio batzuetan, ikasleek, taldetan banatuta, proposamen orokorrak aztertzen dituzte, baita proposamen horiek gure ikastetxeko testuinguruari eta ziklo jakin bati aplikatzeko modua ere.

Parte hartzen duten jardueren dagozkien programei buruzko prestakuntza zehatza jasotzen dute begiraleek, ikastaroaren zenbait unetan.

Familien prestakuntzari arreta berezia eskaintzen diogu. Programa berri bat edo jardun berri bat garatzen hasten garenean, familiak prestatzeko saioak antolatzen ditugu, irakasleen prestakuntzan lagundu duen aditu berberarekin ahal dela, familiek eta irakasleek jasotzen dituzten mezuen artean ahalik eta koherentziarik handiena bermatzeko, mezu

horiek batzuen zein besteen ezaugarrietara egokitu behar badira ere. Ikasturtean zehar, halaber, ekitaldi informalak antolatzen ditugu (hitzaldiak, topaketak eta abar), familiak prestatzeko beren seme-alaben hezkuntzarekin zerikusia duten gaien inguruan, bizikidetzarako hezkuntza-proiektuari loturikoei arreta berezia eskainiz.

3. Berrikuntza

Oro har, prestakuntza-prozesuek berrikuntza-proiektuak ekartzen dituzte berekin, eta, horietan, hainbat proposamen didaktiko, antolamenduzko edo funtzional probatzen ditugu, aldez aurretik planteaturiko hobekuntza-helburuak lortzeko.

Lehen fase batean, probatu beharreko proposamenaren zentzua eta lortu nahi diren helburuak zehaztu egiten dira, ahalik eta argitasun handienarekin, eta, horren haritik, ebaluaziorako adierazleak zehazten dira, baita helburuak lortzeko aurreikusitako epeak ere. Hori ez ezik, proiektua zer mailatan gauzatu behar den, arduradunak eta baliabideak ere zehazten dira.

Bigarren fasean, programaturiko jarduerak gauzatu egiten dira. Proiektuan bilduriko irakasleek taldean jarduten dute jarduerak prestatzen eta jarraipena egiten, prozesua doitzeko beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak eginez, eta prozesua eta emaitzak ebaluatzeko. Proiektuaren Batzordeak proiektuaren etengabeko jarraipena egiten du eta beharrezko ikusten dituen laguntzak ekartzen ditu.

4. Ebaluazioa

Programa gauzatu ahala, datuak eta iritziak bildu egiten dira une jakin batzuetan, aurreikusitako tresnen bitartez: behaketa sistematikoa; protokolo bakunak betetzea, jardueren gertakarien berri emanez; eta ikasle eta irakasleei —eta, une garrantzitsuetan, familiei— inkestak egitea, jarduera jakin baten alderdi jakin batzuen inguruan (interesa, parte-hartzea, gogobetetzea, ikasitakoa eta abar).

Hiru hilean behin, taldeak, bilduriko datuetatik abiatuta, proiektua zenbateraino garatu den eta ezarritako adierazleak zenbateraino lortu diren balioesten du. Ikasturtearen amaieran, proiektuaren Batzordeak ebaluazioa lantzen du eta irakasleen Klaustroari aurkezten dio, eta, klaustro horrek hurrengo ikasturteko urteko planerako proposamenak egiten ditu.

5. Instituzionalizazioa

Berrikuntza-proiektuaren xede izan den proposamenak ebaluazioa gainditu ondoren, ikastetxearen ohiko ekintzara biltzen da, dagokion dokumentu instituzionalera biltzearekin batera: curriculum-proiektura edo programaziora, ikasteko edukiak edo irizpide didaktikoak bada; eta ikastetxearen antolamendu- edo funtzionamendu-arauegira, antolamenduko edo jarduneko irizpide, arau edo moduekin zerikusirik badute.